


JAKIN

10 URTE



AURKIBIDEA

| | | |
|---------------------------------------|-----------------------------|----|
| 10 urte | jose aurumendi | 1 |
| igor fheodorovitch strawinsky | ibon sarasola | 7 |
| ibarrola'ren pintura | jan san martin | 13 |
| euskal-kezka baroja'ren baitan | etxaithar'ek | 16 |
| pentsamentuaren bakardadea | jose a. otaegi | 25 |
| parkeko euripean | iñaki iturriotz | 34 |
| santimamiñe | jose antonio arana | 37 |
| euskalerrriari begira | gomiga | 47 |
| agur, aita salbatore! | karmelo iturria | 55 |
| "orixe"ren poemari buruz | juan san martin | 65 |
| burgeskerrriari agur? | joan mari torrealday | 73 |
| unamuno ala jammes? | igara | 81 |
| gizonaren ezin geldia | etienne salaberry | 85 |

margolaria: xabier egaña

SALNEURRIA

urtekoa: Espaiñi-an, 75 pta.

Atzerrian, 1,5 \$

alea: Espaiñi-an, 25 pta.

Atzerrian, 0,5 \$

10 URTE

JAKIN

EUSKAL-GAZTEDIA
KULTURA BIDEETAN

1 - 1966

21'gna. Arantzazu'n

Hamargarren urtea ospatzeko egin dugun zenbakiarekin zaude. Hamar urte. Beharbada ez da axio ikaragarria izan gure hau, baiña gu zerbait izan delakotan gaude. 1956-ko udazkenean sortu zen JAKIN. Ez diogu aitatzat izenik ekarriko, irten den bakoitzean berriro sortua dirudien ezkerro. Izan ere, JAKIN-en bizitza ez da nagia izan. Indarrak, setak, bizi beharraren legeak eutsia ta hogeit aldiz sortu dela esango nizuke.

Hauxe litzake egokiena, JAKIN-en bizitzaz ezer esatekotan: hogeit aldiz sortua dala esatea.

Hamar urteotan zer egin duen? Ernetzea bera etzen, agian, gutxi;

ez gutxiago bizitzea. Kultur aldizkaritarako asmotan hasia dugu gure hau: "Gure euskera kultur ioera eta kultur-ats guzi guzietan" trebetzeko. Lortu duen ala ez bestek irizpetuko du, merezi badu beñepein. Bein baiño gehiagotan irabazi du makiña bat gorespen eta ohore orain artekoan beintzat. Ez gera alper lanean jardun hamar urte.

Lehenik, euskal apaiz eta prailleen elkartasuna iritxi zuen JAKIN-ek. Egiteko batean bat. Hasiaririk beretik agiri zaizkigu jesuita, benediktino, pasionista eta frantziskotarrak lankideen artean. Gerora, ezin ahantz ditzakegu Euskal Seminarioak, sakramentinoak, karmeldarrak... Azkenik, herri gizonak ere bildu zaizkigu lan ardurazko hau zuzen aurrera eramateko. Eta neskatxen izenak ere ez dira luzaroan faltako, Jainkoa lagun.

Eskubidez, JAKIN-en epaitzaille izan ditekean Yon Etxaide-ren hitzekin esateko, kultura euskeraz barreiatzearen merezimendu ez kaxkarra aipatuko dugu bigarren: "Euskeraz orainaldi hontararte ikutu ez ditugun jardun goitiarrak" erabilli ditu JAKIN-ek. Eta ez beti gaizki, ez horixe!

Iñork aterako ez digun erabaki ta uste amorratua euki dugu beti aldizkari honetan arkitu geranok: euskerak bizi egin behar duela, premiazkoa dela kultura europarra gure hizkuntzan sartzea, ta guk egitekoa dela hori, ez beste ñork. Jo-

IRITZIAK

"...Iñoiz gure gazteen artean asmo bikaiñik sortu bala bada, JAKIN'en ots-emalleetan sortu da. Auxe bai esan dezakegula gazteen zitua dala, gazte ikastun, langille ta aurrerazaleena..."

[Ibinagabeitiatar Andimak]

"Ona azkenik nere eskuetan ainbeste aldiz amestu dudan errebista. Ez da kaxkarra izan nere poza... Jakintza, jakintza bear du gure euskerak bere izen onerako, ta auxe emateko eskeiñi diguzute zuen JAKIN. Euskaldun guzior txaloak merezi dituzute. Aurrera beti zuen lan ortan!"

[B'tar A.]

IRITZIAK

...JAKIN irakurria dizut pozaren pozez. Oiek, bai, gazte ederrak! Gai sakonek eta zailenak euskera zoragarritz eman dizkigute. Orrela iarraitzekotan, atzean utziko gaitute gazteok alabearrez..."

[Zaitegi'tar Yoakin jaunak]

"...Neretzat, askoz ere bi-ziago, interesunago ta batez ere batuago agertu da (JAKIN) bigarren aldi onetan. Bide orretan barrena jarraitzeko eskurik baduzute, zoazte aurrera, bide zuzenetik abiatu zeratelakoan..."

[Luis Mitxelena'k]

muga honen egia daukagu beti begien aurrean: euskal kultura.

Amesak ames, ba dugu gauzazko zerbait:

52 idazle

111 lan

9 ordena ezberdinetako izenak.

Hau da lehenengo hamar zenbakiek (kontuz, ez urteek) ematen digutena, 52 idazle horiek denak JAKIN-ek sortuak dituzu. Alegia, beren izena ta izana —euskal letretan— JAKIN-en agertu dituzte. Jakinlari hoetako batzuek euskal aldizkariaren lankide jator dituzu gaur.

Aipu berezia zor zaio JAKIN-i, euskal aldizkariaren artean, euskera idatzia errezagotzeko alegiñetan. Ekintza zaillean abiatu zen JAKIN bere kultur asmokin. Ezerezean oiñarriturik bezelatsu: batetik, kulturazko daukaguntxoaz ezagutzea nekeza zitzaigulako, eta bestetik, egitekoaren zati haundi bat zearo berria zelako euskal literaturan. Beraz, bidea billatzea zen lehenengo zeregiña. Eta honetan ere gazteek egitea itxaro zitekeana baiño jatorrago jardun gera: askatasunez, egia, baiña gogor. Noizpait, apika, gogorregi. Euskera garbiaren auzi betikoa jorratu on batekin garbitu zen gure artean.

Sendo leiatuaz billatu dugu (ez noski erabat, honek ez baitu azkenik) bidea, edo Luis Mitxelena-k esango ligukeanez, guk mogimendua ibilliarekin probatu dugu.

Laugarren lekuan beste hau gogora dezakegu: alegia, JAKIN-ek ez duela basamortuan lan egin. Gaurko euskal letren mogimenduarekin batregia dator, zintzo asko etorri, sarritan ondo kostata izan arren. JAKIN-ek gogoz onartzen du Euskaltzaindiaren zuzendaritza, batasunaren gerri beharrezkoa. Eta Baiona-ko erabakieri ere sakonetik lotua gelditu da, beharbada beste euskal aldizkaririk ez bestean.

JAKIN

eta

Euskaltzaindia'k laguntzaille hartutako

Altuna
Arregui
Azurmendi
Bestarrika
Intxausti
Lasa
Mendizabal
Muxika

Jakinlari

Baiona-ko Biltzarraren Erabaklak

1964 -eko
Agorrillaren
29 - 30

EUSKALTZAINDIA

"Tori beza Euskalerrriak eta Euskaltzaindiak gazte auek beren biotzik onenarekin egin duten lan eder au".

"Euskaltzaindiari.

Gidari zaitugu... Iñora joango bagera zurekin bakarrik joan gaitzke: ez dugu beste gidaririk...

Euskaldunak, burrukaldi gogor ontan, batasuna ta gidaritza bat, bear dugu, ta ori zuk bakarrik eman dezaigukezu..."
(10 zenb.)

BATASUNA

Baiona-ko Idazkaritzak lan handi bat burutu du.

"JAKIN-ek erabaki hauek guztiak onartu egin ditu, eta bete egingo ditu. Beraz, gaurtik aurrera, datorren alean hasita, JAKIN-en lege hauek obligatu egingo dute.

...JAKIN-era etorriko diren artikuloak arau hoietara lotuko dira..." (18 zenb.)

Azkenik, lau liburu eder argitaratu dira JAKIN-en ardurapean A. Villasante-ren "Jainkoa", A. Gandiaga-ren "Elorri", "Filosofiaren Kondaira I", "Europa" ta beste zenbait izango dituzute ondotik. Gertutzen ari gera.

JAKIN-en goraberak hobeto ezagutzeko, ikusi EUSKERA, Bilbao 1963-1964, N. 336-371. Hlan aztertu nuen zeazkiago JAKIN-en bizitza.

geroari begira

Errebista batek berak egiten du bere burua, eta JAKIN-ek horretan jarraitu behar luke, orain artekoa ukatu gabe. Batez ere gaurkotasun gehiagoren premia duela aitortu beharrean aurkitzen gera, nahiz eta hau izan bere betiko nahia. Gaurkotasuna ez da gure herriak dituen prolema ta goibeheri aurrera bide billatzen saiatzea baizik.

Ez da hauxe sekula eginkizun erreza izan. Eta gure gaurrean gutxiago. Egin beharrekoa denez, halere, billatu egingo ditugu egoki diren bideak. Zai daukagu herria, gure zai, guztion zai. Ba dakigu ez gerala guztion arteko batzuek besterik, ez dezakegula mirari apartekorik egin. Baiña bai bizitzeko miraria. Behar dugu, eta egingo dugu. Jainkoak daki nola.

Zerbaitetarako gaude munduan herri bezala, zerbait hau, agian, garbiegi agiri ez bazaigu ere... Jaiotzean aukerarik izan ez bagenuen, bai bizitzeko. Eta derrigorrean kultura aukeratu beharrean gaude, herria ez da herri kulturarik gabe-ta. Gurea ez da joera itsua. Beharra da, bizi beharra, ez bizi nabi soilla. Orain bizi beharra. Ez gaude denporaren eskuetan, gure eskuetan daukagu denpora. Beatzen artetik, ura bezala, gal ez dezagun, irmo elduko diogu denporari —gureari, euskaldunari— gazte atzamarrren eta beharraren indar guztiarekin. Ez al gera bakarrik egongo guztiona den alegin honetan!

Oraina eskas bezain zabal datorkigu etorkizuna, saiatu ezker. Bizitzea ez da ez biltze hutsa. Bizitzea sortzea da batez ere, ta horra JAKIN-ek sortu beharrekoa: euskal kultura. Kultura, berriz, ez da berezko ta bere baitako ezer. Jendeari eta denpo-

rari lotua dago; haiengan ernetzen da, hari begiratzen dio. Eta horri lotu behar gakizkiogu: gure jendeari, gure gaurrari.

JAKIN-ena ez da gairaipen bizitza izan, ez baitago garaipenik norberaren burua garaitu arte. Noiz iritxiko digu holakorik JAKIN-ek?... Ta zer inporta digu noizak? Bukacrarik gabeko eginkizuna baiño zoragarriagorik ez da!

Azken aldian Arantzazu-koegia biurtu zaigu JAKIN. Egia da herri gizonen laguntasuna erakarri dugula. Aspaldian nahi horrekin ibilli gera, salatzen ziguten sakristia kutsua ezabatzeko asmoz. Bitartean, ordea, nun daude jesuita ikasleak, esate baterako? Bateko, apaizgai idazleak urritu zaizkigu, ta besteko sakristia usairik gabeko teologia egin ditekeala ahaztu edo dugu, nunbait.

Eta bukatzeko, zuk duzu hitza, irakurle. JAKIN-ek, nahi duen euskal-kultura ez da posible zu gabe. Hasieran usté genuen zera, alegia, "JAKIN-en jomuga ez dela irakurlearentzat izatea bakarrik", lotsa pixka batekin begiratzen dugu orain. Amesak ziren. Eta gaur amesetzko ez baiño gauzazko kultura billatzen dugu. Ba dakigu krisian dagoena ez dela euskera, krisia kontzientziaren larri astindua denez. Gu gaude, gu, ta ez euskera. Perogrullo-ren egia irudituko zaizu hau, ta zerbait adieraz dezai-guke balere. Guri beintzat, zuri galdetzeko ta entzuteko ta erantzuteko premia erakutsi digu, elkar bizketa hau izango da gure kultura.

Zuk duzu hitza. Guk, gure aldetik, beste hau esan nahi genizuke: eskerrik asko, hamar urte boengatik.

jose azurmendi

KONTUAN HARTU

JAKIN-eko fitxeroa artez eramán dezagun, komeni da zuzenbidea aldatzen duzunean, guri ohartxo bat pasatzea

Hori bateko.

Ta besteko, edozein arrazoigatik, gerta baledi ez zaizkizula edo aldizkariaren zenbakiren bat edo eskaturiko libururen bat xuxen irixten, idatzi iguzu oharraraziz.

Mil esker!

"Nik musika,
injinadoreak zubiak bezela, egiten dut"

igor fheodorovitch strawinsky

- Tchaikovsky eta Rimsky-Korsakov'ekin errusitar musikak autodidaktasuna bazter-tzen du. Lehenengoa S. Petersburgo'n ari da. Bigarrena, Moskou'n. Biak eskola sor-tzen dute.
- — *Tchaikovsky'enetik*: Arensky, Rach-maninov, Medtner, Scriabin.
- — *Rimsky-Korsakov'enetik*: Glazunov, Liadov, Gretchaninov, STRAWINSKY.
- Rimsky-Korsakov'en ikasle, Strawinsky neurriz-gañeko orkestadorea da.

ibon sarasola

STRAWINSKY'REN ERRITMOA

«Kronikak» bere liburuan, aur-denporan gertatu zitzaion gorabehera bat kontatzen du:

«Landetxe baten pasatzen genuen udara guraso-seeak, gure tankerako famili gehienak bezela. Baserritar haundi bat enbor-ertz baten eserita zegoen... Mutua zen bainan mingaina bulla haundiz karrastatzen zuen, eta aurrak bildurtu egiten ziren. Baita ni ere. Alaz ere, jakin-nahia haundiagoa zen. Hurbiltzen ginen ta orduan, umeak alaitzeko, kantatzen hasten zen. Bi silabako kantu zat zen, atera ahal zituen bi silaba bakarrak, sentidurik ez zutenak. Bainan trebetasun haundiz aldatzen zituen, mugimendu oso bizian...»

Eta liburu bertan, «Petruchka»ri buruz:

«Nire burua alaitu nahi izan nuen, pianoa nagusi izango zuen orkesta-lan bat, «Concertstück» antzeko zerbait, egiñaz.

Musika hau egiten ari nintzanean, deabruzko arpejio-zurrutaz orkestaren pazientzia sutan jartzen zuen marioneta baten irudia ikusten nuen klarki. Orkestak, egundoko farradaz erantzuten zion: izugarritzko itillua sortzen da, eta itilluaren go-renera heldu ondoren, marioneta gizagajoaren eror-aldi penagarrarekin bukatzen da...»

Azkenean, ballet-tankera eman zion obra huni: «Petruchka» izeneko ballet ezagutua.

Obra huntan, konsonantzi armonikoak alde batera utzirik, orkestako instrumentu bakoitzak ba du bere abots berezia. Vals txiki baten erritmoari josita, errusiar dantza ero-amorrratu bat entzuten da, eta «valse a deux» makal baten fagot-laguntasun alaitsuaren ondoan, Petruschka-polixinelaren gaia, bi klarinetek neurritz gaiñeko disonantziak egotzia. Eta hauen gainean, iñauteri-arratsalde bat gogoratzen digun polierritmia, Strawinsky'ren polierritmia arrigarria.

Kompositore batzuek beren impresioak, antsiak, anima-egoerak, melodi eta armonia bihurtzen dituzte pentagraman. Strawinsky'k berriz, guziaz erritmu bihurtzen du. Alaitasuna erritmu bat da, miña erritmu bat, paisajea erritmu-sorta bat. Gelditasuna ere erritmu bihurtzen du: hunela «Salmo-sinfonia»ren amaieran, baretasun geldia, horizontala lortzen da, basa-instrumentuen perkusio etengabea dela medio.

Strawinsky'ren estetikan, erritmoa da lehenengo oinarria.

POLIERRITMIA ETA POLITONALITASUNA

Teknikaren aldetik, soñu-bateratasunak (soñu-simultaneitasunak) bi aplikazio-posibilitasun ezberdiñak azaltzen ditu: polierritmia eta poliarnoni edo politonalitasuna. Gehienetan, biak lotuak erabiltzen dira.

Polierritmia, edo hobeki, polimetria, Strawinsky'ren estilo-bide berezietakoa izango da Petrouchka'tik arat. Bi edo gehiago erritmu-aldi galgan (paralelki) eta lojikaz erabilliz lortzen da hau. Adibidez: alde batetik, bihotz-taupada gisa errepikatzen dan beltz-nota batek ezartzen du neurria; hunen gain, etengabe ari dan bost kortxeazko gai bat. Beltzak oinarri-notak (nota basikoak) dira, eta beraikiz (automatikoki) aldatzen dute bost kortxeazko gaiaren azentu-banaketa. Hunela, lehenengo kortxeasortan bigarren eta laugarren kortxeak indartzen badira, bigarrenko kortxeasortan, lehendabizikoa, hirugarrena eta bostgarrena indartuko dira...

Politonalitasunaren enplegua, Richard Strauss eta Claude Debussy'gan arkitzen da orduko. Bainan Strawinsky'gan bikaintasun eta arkaismo berezi bat azaltzen du. Hunela, Petrouchka'ren bigarren gertaldian, bi klarinetek, batek fa sostenido nagusiz arkorde arpejiatua, ta besteak, aldi bertan, do nagusiz akorde arpejiatua aditzera ematen dute, do, la sostenidoaren parean, mi, do sostenidoaren parean eta sol, fa sostenidoaren parean erortzen dirala.

Kontrapuntu hau, acorde hedatuen disonantzian datza, kontrapuntu klasikoa, tonalitasun bakarreko kontrapuntua, konsonantzian tinkatzen dan bezela. Gai huntaz, oso interesgarria iruditzen zait M. H. H. STUCKENSCHMIDT'ek, «Musika berria» (Correa, 1956) bere liburuan agertzen duen lana.

STRAWINSKY ETA BALLETT-MUSIKA

Strawinsky'ren lana azertu ezker, bereala nabaituko degu garrantziko lan gehienak «ballet»ak direla: «Suzko txoria», «Petrouchka», «Udalenaren sakrantza», «Eztaiak», «Axeria», «Soldaduaren historia», «Pulcinella», «Mavra», «Apolo Musageta», «Hadaren laztana», «Dantza kontzertanteak», ...e.a.

Strawinsky'ren estetika pixka bat konprenitu ezker, errex ulertu diteke bere ballet-zaletasun hau. Strawinsky'ren musika, funtsez, dantza-

-musika da: idea klaroak, zeatzak, disonantziaren personalitatean oin ortzen duen zeñu-leko (motivo-gesto) eta kolore-leloa (kolore instrumentala eta baita ere armonikoa), dantzak bahar duen forma-jardun argia, zeatza. Eta beste alde batetik, dantza-teknikak eskatzen duen gai-desarrolloaren laburtasuna, ekonomia, esan oi dan Strawinsky'ren *estilo telegrafikoa*.

STRAWINSKY ETA JAZZ-MUSIKA

Erritmoari hunen inportantzi haundia eman dion gizon batek, ezin lezake jazz-musika baztertu. Musikazale askok jazz-musika on-hartzen ez badute ere, ezin diteke ukatu XX'garren mendean duan gora-behera. Eta hau ez da iritzi bat, errealitatea baizik. 1914-1918'ko gerlaren bukaeran ezagutu zan jazz-musika Europa'n. Orduan ezagutu zuen Strawinsky'k ere. Gai huntaz mintzatuz, «dantza-musika berri hunen zeazketa» egitea nahi zuela dio «kronikak» liburuan, «kontzerto-zati baten inportantzia emanaz (jazz-musikaren zeazketa huni, lehenago denporako musikalariak minue, vals eta mazurkari buruz egin zutena eginaz».

Strawinsky'ren joera berri hunen lehenengo frutua «Soldaduaeren historia» da. Gero «Ragtime», jazz-erritmoari zearo lotua. Huni jarraika, «Piano-Rag Musik». 1937-1938'ko urteetan, «Dumbarton Oaks Concerto», eta 1945'garren urtean, «Ebony Concerto» lan ospetsua, jazz-orkesta eta klarinetearentzat, Woodi Hermann klarinete-jotzaileari eskeiñia.

— STRAWINSKY'REN MUSIKA-KONZEPTOA

«Funtsez, mami-mamiz, zerbait expresatzeko ahalgabetzat hartzen dut musika. Expresioa ez da beinere musikaren tasun edo propiedade berebuitakoa, intrinsekua izan... Musikak zerbait adierazten duela badirudi ere, ea beti gertatzen dan bezela, ameskeri bat da eta ez errealdade bat. Aspaldiko alkargo ixil batez musikari ezarri diogun geigarri bat besterik ez da... oituraz edo oharkabez musikaren esentziarekin nahastu dugun arau bat.

Musikaren fenomenoa, asmo bat-batekin eman zaigu, hau da: gauzen artean ordenu bat sortu dezagun, batez ere gizonaren eta denporaren artean. Horregatik, hau burututzeko, konstrukzio bat da xoilik beharrezkoa. Konstrukzio hau egin ezkeru, orde-

nuā eskuratu ezkerō, guztia egiña dago. Uskeria izango litzake beste zerbait billatu edo espero izan. Konstrukzio hau, ordenu hau da, hain zuzen ere, eguneroko inpresioekin zer-ikusirik ez duen bihotz-ikara berezi bat sortzen duana gure baitan... Ondo ulertu zuan hau Goethe'k, arkitektura musika harri-bihurtua zela esan zuenean. (*Erinnerungen, Atlantis-Verlag. 1937.*)

Strawinsky'rekin, Picasso'z edo Apollinaire'z gogoratzen gera. Haren margo edo hunen poemetan bezela, Strawinsky'ren musikan gai desberdiñak nahasten dira, «collage» antzo. «Collage» hauek, superinpresio hauek, soñu-simultaneitasun bat leheneratzea nahi dute. Strawinsky'k, ordenua, objetibotasuna, forma-zorroztasuna billakatzen ditu, mintzaera otz-jelatu, gogor, zeatz batez, edertasun uts, soil batez, gizonen lege eta aldakortasunetik urrun. Funts-lege haueri jarraituz, «musika uts» bat burututzen ari da. Horregatik gustatzen zaizkio horrenbeste hizkuntza hil batez —latiñez— idatzitako textoak musikatzea, entzule gehienak ez baidute hizkuntza hau ulertzen. Hunela, hitzak izan dezaketen literatur balorea edo oroit-araztea baztertzen ditu, textoaren ots-balorea (balore fonetiko) bakarrik on-hartuz.

STRAWINSKY'REN EBOLUZIOA

«Tchaikowsky eta Rimsky'ren musika-esperientzia bereganatuz hasi da, gero Debussy eta frantzez-inpresiozaleak asimilatu zituen. Influentziarik desberdiñenak alkartu zituen, eta «Sakrantza» egiten ari zan bitartean, Schoenberg'en «Pierrot lunaire» entzun zuen, eta hunen instrumentazioa miraritu zuen...» (M. H. H. STUCKENSCHMIDT: Op. cit.).

—Nola adieraziko zenuke «Suzko txoria» eta «Salmu-sinfonia»ren arteko diferentzia? —galdetu zion bein periodista batek.

—Ogei urte —ihardetsi zion Strawinsky'k.

Strawinsky'ren eboluzio hau uko-eziña iruditzen zait. Bere lehenengo obrak (hau da, «Petrouchka», «Udalenaren Sakrantza»...) bakarrik eza-gutzen dituztenak, arrituta gelditzen dira 1940 urteko «Sinfonia do'z» edo 1946'ko «Meza» entzutean.

Lau aro bereizi ditezke:

a) Gazte-aroa. «Elejia Rimsky Korsakov'en eriotzean» obrakin bukatzen da. Debussy, Mussorgsky, Rimsky eta Scriabin'en influentziak ikertu ditezke.

b) Ballet haundien aroa. Diaghilew, errusiatar-ballet egille ospetsua eta Ramuz idazlea ezagutzen ditu.

c) «Sakrantza» eta «Eskaiak»tik gora, klasizismoaren eta futurismoaren tartean zalantzatzen da Strawinsky'ren musika. Jazz-musika ezagutzen du.

d) 1937'an hasten da, gutxi gora behera, Strawinsky'ren azken aroa, optimismotsua. Bere etengabeko eboluzio huntan, klasizismu berri bateruntz abiatu da.

Sonu-materialismoan («Strawinsky'ren sailak metal batekin ebakiak daude, zink'ekin adibidez» zion Diaghilef'ek) tinkatzen dan mugimentu berri baten burua bihurtu da. Eta mugimentu hau, nahi-ta-nahiez neoklasizismoaruntz doa. Serie-teknika (teknika seriala) on-hartu du Strawinsky'k bere azkenengo lanetan («gaur eguncan, musika-mintzaerarik bikaiena serie-mintzaera da»-Strawinsky). Obra hauetan ikusi diteke hobeki Strawinsky'ren musikaren propiedade nabarbenetako bat: soñu-gaiak taiu haundiz erabiltzea («ni ez naiz konpositorea, musika-asmatzaillea baizik»-Strawinsky).

AMAIERA

«Nik musika, injinadoreak zubiak bezela egiten dut».

Eta Fernandez-Cid jaunarekin batera esango dut: injinadoreak zubiak bezela, bai, bainan jenio gehiagokin.



Oraintxu izan ditu, Agustin Ibarrola bilbotarrak, zenbait erakusketa Bilbon, Eibarren eta Donostian. Bere pinturaren ingurua lan-giroari buruzkoa da. Latza, baiña bortitza ta eraginkorra.

Artea gizonagandik sortzen da —artista beragandik—, baiña bere izatekoa era askotarikoa izan ditek: apaindura utsezko zentzuari dagokiona, naturalezaren edertasu-

IBARROLA'REN

PINTURA

juan san martin

na adierazteko (bear bada barne-gogoaren atsedenerako) edo gizonarentzat zuzenkiago dijoana, gai bera gizona ta bere soziedadeari dagokion ingurua danean. Eta azken era onetakoa da Ibarrola-ren pintura. Gaurko gizarteak berakin dituan gertaerak adierazteko modu bat. Bere lan guzietan kezka berdiñeko era ixuri du. Kondairaren une onetako gizarte bizitza larria adierazten duan pintura.

Bere arte bizi ta kementsuak, esango nuke, indar bereziak tajutzen dituala gizon eta erri kontzientziak iratzartzeko eran. Batez ere, gaia du baliozkoa.

Gizona, berak sortutako teknikaren bidez gauzak menderatu ditularik, gauzak, era berean, menpeko egin zuen bera. Makinaren sortzaille ta menpeko. Ibarrolak, batez ere, bere lanetan, gordin adierazten du gizonak asmatutako makiñari bidutziazen iopuen artean sakrifikatuenak diran beartsuen bizitza illuna, umillen trajeria.

Arte-lan ori, indar materialen jabe bakar diran jainkokien kontrako burruka ote, gizonaren deretxoen alde, Prometeo-ren antzera? Dana dala, g i z o n a menperatzen

duan makinismo izigarriaren egin-tza larria salatzen du. Artistak, bere-gisa bildu ta adierazten bai ditu, era berezi batean, makinismo indartsuak dakarren uzta samingarria. Bere kuadroak, bidutzi menperatzaille gandik libertade eskariz ari diran abots illetariak bai dira.

Egiteko erak, konpozizioaren aldetik, oso bakunak izanagaitik, ondo begiraturik lortutako estudioak dira; egillearen zentzuetikako pentsaeren emaitza. Konposizio oiek, iñoiz, zapal badira ere, urren-go (geienetan noski) sakon, bere luze-zabelean. Beregan, indar-leerroak, garrantzi aundia dute. Ta, goitik bera, zearka, diagonalak, maiz erabiltzen ditu.

Sinbolista da lanik geientsuena. Bere plastika apaltasunez nabariz, sobranterik gabe, urritasun berezi bat duelarik.

Pinturaren teknika ere apalki eramaten du, umiltasunez, gaiari datorcion bezela, apal eta gizatiarra. Pintzeladak herriz, juntuak ez-ezik, urriak ditu. Urriak, baiña bortizki emanak, bat-bateko esku golpeetan. Oialak guziz betetzeke dituala, maiz utsune oietan ondorio ikusgarriak lortuaz. Naita orta-

ratuak, kuadroen batasuna olerkiz kutsatuaz. Olerki latza, baiña giza-tiarra.

Ez d a u k a t dudarik, artistak, momentu guzietan esku-artean zer daraman ondo dakiela. Bere pintzelarentzat ez dago zalantzarik, ta bere bidean ziurtazenez bortizki mantentzen daki.

Estetikaz, pintura lodi ta koskor zapal batean, ritmu mugimentuaren itxura ematen dio oial guziari.

Koloreak berriz, oialera zuzenki eramana dira, paletan nastatu gabe. Ibarrolari dagokion maixutasunezko doai bat da ori. Ta, kolore tankeretan urdin eta urdiñarrea, zuriarekin kontrastatuz, gainberatzen ditu beste koloreak, indartsu, lan-gaiaren drama illuntasunez sakonkiago azaltzeko. Bere urdin, urdiñarre ta gaztain-koloreak indartzen bai dute drama.

Bere jardueraz, estilu orokorrez, Arteta eredutzat duan euskal pin-

turaren eskolaren influentzia du. Naiko aurreratua. Aranoa bera baiño askozaz aurreratuago noski. Ta, Ibarrolak arro dio Arteta gandikako iturria duala bere artearen tankera. Arteta-ren eskola orrek, bere aldetik, Cezanne-ren geroztikako egitura du oiñarri, emengo errikoi-tasunarekin naasturik.

Bere espezioz beteriko irudiak, andana estuetan bildurik jartzen dituanean, Goya-ren tajurak ditu. Izan ere, Ibarrolak, gaurko Goya dirudi. Zergaitik, Goya biziko baltiz, kasik seguru nago era orretara pintatuko zuela.

Azke, adierazten indarrez ari da Ibarrola. Bere irudi kementsuak oialak puskatzeko era biziz agiri dira. Egillearen gogo-izakera gartsua nabari dute. Beti kezka bera agertuaz, makinismoak menperaturiko gizon beartsuen karraxi larrien eragiña.

Oker aundiren batek bere mar-txa etetzen ez badu, etorkizunean izen aundia artzera dator Ibarrola.

euskal - kezka

baroja' ren baitan

etxaithar'ek

Pio Baroja'k bere eleberri (1) ugarietan zehar, gehiago edo gutxiago, euskal-kezka gorde-eziñik daramala eztago demonstratu beharrik. Nun nahi esango dizu, premia esturik gabe sarritan, bere pertsonajeez mintzatzen delarik, «había aprendido muy bien el vascuence», «sabiendo el vascuence», «hablaban en vascuence», «habla en vasco», «decía en vascuence» ta abar. Esaldiz, bertsoz eta kantuz bere nobelak apaintzen ere ezta batere kamotza, nahiz-ta zabar eta arduragabe eman maiztxo hain bihotz barruan sortzen zaizkion euskal-aletxoak.

(1) Novela.

Sinisgaitza benetan, euskera eta Euskalerria'ganako sentipenez eta maitemiñez gal-gal dagoen gizona, ez gehiago saiatzea euskerazko atalak zuzenago eta egokiago ematen. Izan ere, kasorik gehienetan, hongi kopiatzen alegintza aski luke, eta entzutez jasotakoa izatekotan jakitunorbaitekin kontsultatzea. Ba-dirudi, ordea, D. Pio'k, berak zekien euskerari aski irizten ziola behar zituena aditzera emateko, eta etzuen honesten, nunbait, haundiritziz edo mesfidantzaz —bere aldiko berritasun-giroa ezpaitzuen maite— iñoren kontsejurik gai hontan. Aitortu behar da, ordea, bai euskerak eta baita bere izen-hotsak ere mesede izango lukela gai hontan beste moduz jokatu izan ba'lu.

Pio Baroja'ren obra guzietan euskal-giroz ornituena, nere ustez, «Erlaitzeko Zalduna» («El Caballero de Erlaiz») da, eta honetxegatik eleberri hau aukeratu dugu bere euskal-kezkaeren lerroz-lerroko azter-lan bat egiteko. Lehenik, langintza hau hiru zatitan bereiztea pentsatu nuen: gizonak, toki-izenak euskal-esaldi eta kantagaiak. Baiñan, batzuetan guztiok elkarren artean nahasten direlako, bana-keta hau ez egiteari obeto iritzi diot.

Gure lanerako erabili dugun ediziñoa «Ediciones La Nave» da, Madrillen argitaratua 1943'garren urtean. Beraz, horrialde emankizunak argitarapen honi dagozkionak dira. Guk erabilliko dugun ortografia «Euskaltzaindia»rena izanen da, baiñan komeni den guzietan, Baroja'k zerabilen erdal-idazkera ezarriko dugu ondoan, batez ere -a atzizki mugagarria darabillenean. Eleberriaren sailak aldatu behar ditugunean, euskerara itzulita emango ditugu.

Ba'liteke irakurle asko iritzi hontakoak ez izatea, baiñan, gaztekeraz alda ba'nintza, gure euskal-aldizkariaren horrialdeak ez lirake euskal-horrialdeak izanen eta hortaz «JAKIN»ek euskal-aldiroko soilla izateari utziko lioke. Beraz, gure irakurle guziak gaztekeraz jakinarren, itzulpenaz baliatuko gera. Giarrez motelagoa, zaporez gezagoa eta doitasunez exkaragoa izanen dala? Ba-liteke... Baiñan, euskera izanen da eta hauzen da guretzat gaurko balorerik haundiena. Eta berriketa gehiago gabe, goazemazute gure soroa jorratzera.

KANKAIL (CANCALLA), 24'gn. hor.)—“Mari Joxepe beti oso tente ibilli oi zan, eta, beharbada, horretxegatik hirian batzuek “Mari Kankalla” deitzen zioten, honek euskeraz **Maria la “Tiesa”** esan gura baitu”.

Nik neuk, sekula ez dut entzun “kankail” hitza zentzu honekin. Azkue'k, “hombre grandazo y desmañado” itzultzen du. Lhandek, lenengo zentzuz berdin eta bigarrenez “chose de maniement difficile, à formes disproportionnées”. Nundik atera ote zuen Baroja'k “kankail = tiesa”? Bidaso-ibarreko hitza ote? Harritzen nau ordea komunzki duen kontrako zentzu hau edukitzea. Gogora dezagun gaiñera “kankailu” aldakizunaren zentzua, *moldakaitz, baldar, trakets*, dela eta honegatik tentesunarekin adiskidetzen gaitza. Nik uste, “Mari Tente” edo “Mari TTente” esan da euskaldunik gehienak obeki ulertuko luketela. Biziago eta esakorrago litzake askoz ere.

JAUN FERMIN ESTEBE URANGAKO (Don Fermín Esteban de Uranga), 26'garren horrialdetik 38'raiño. Pertsonaje honi, guri interesatzen zaigun puntuan —botanikarekin zer ikusirik duenetan, alegia— kapitulu oso bat eskeintzen dio. Eleberriaren bigarrena da eta “Apaiz landarezalea” (2) deritza, gazteleraz “El cura Botánico”.

Euskalzaleoi interesatzen zaiguna ezta hain zuzen ere botanika, botanikua baizik. Izan ere, aspaldi zaharrean jo baitzidan susmoak, apaiz honen antz-irudia gure Jose Mari Lakoizketa'n pentsatuz edo ideia hartuz egiña dagoela.

Ezagutu ote zuen Baroja'k gure apaiz landarezalea? Nik eztaikit pertsonalki ezagutu zuenik. Lakoizketa'k bere fameli-koekin hartu-emanik ez baldin ba'zuen, hobeto esango nuke ezetz, Baroja'k emeretzi urte bakarrik baitzituen Lakoizketa hil zanean (apaiz landarezalea 1891'gn. urtean hil zan eta Baroja 1872'garrenean jaio). Baiñan, begiz-begi ezagutu ez baldin ba'zuen ere, haren berri hongu jakingo zuen, Lakoizketa landarezale eta euskalzale bezala txit ezaguna baitzan. Gaiñera, apaiz landarezalea Narbarte'ko semea zan eta bititza guzia bere

(2) Landarezalea diot profesionala etzalako, zaletasunez hortara emana baizik. Bestela, landarelaria itzuliko nuke.

sortirian egin zuen erretore, eta Baroja'k "Erlaitze'ko Zalduna" idatzi zuenean (1941) handik urbiltxo zeukan kabia- —Bera'ko Itzea'n— udarako egonaldia egiteko.

Gure ustea, ordea, elitzake sendo finkatua geldituko, beste susmobiderik ezpa'gendu. Bide hontan argi egiteko txit konbenigarri izango zaigu Lakoizketa'z Aita Villasante'k diona hitzez-hitz aldatzea, Baroja'k Uranga apaizaz dionarekin konparatu ahal izateko.

"Botanikazale purrukatua zan —dio Aita Villasante'k Lakoizketa'z (3)—. Diotenez, beti omen zebillen edozein landare klaseren billaketan, zein sailleko ziren aztertuz eta izenak ikasiz. Hirian txorotzat, arrarutzat eta erotzat zeukaten. Baiñan, burutik egin hau, ero hau, naziñoz barruko eta kanpoko Botanika eta Historia Naturaleko zenbait lagunartetakoa zan. Haren griña loreak eta landareak biltzeko ikaragarria zan eta horrela bere diru guziak eginkizun hontan txautu zituen lur-jota gelditzeraiño".

"Izkiriaturik utzi zizkigun —darraikio Villasante'k "Catálogo de plantas de Vertizarana" eta, batez ere, "Diccionario de los nombres éuskaros de las plantas, en correspondencia con los vulgares castellanos y franceses y científicos latinos". 200 horrialdeko obra, Iruña'n argitaratua 1888'gn. urtean. Aski da liburuari begiratualdi bat egitea, euskerazkotzat ematen dituen landare-izen guziak hala ez direla ohar-tzeko. Izan ere, Lakoizketa'k neurritz gaiñetik miresten zuen Larramendi, eta euskera hizkuntza filosofiku bat dalako honen teoria guztiz honar-tzen zuen; eta horrela, bere liburuan buru-lanezko hitz asko ageri dira "Diccionario Trilingüe"tik harturik. Hala ere, egiazkoak, hots, herrian zuzen jasoak oparo azaltzen zaizkigu".

Honeraíño Villasante. Orain, entzun dezaiozun Baroja'ri. Esan bezala, kapitulu oso bat eskeintzen dio bere apaizaren landarezaletasunari. Hau dela-ta, dena alda eziñean, guretzat lerro-rik jakingarrienak irauliko ditugu ondoren.

"Landaretarako zuen zaletasuna, ezin utzizko griña bihurtu zan beretzat. Haren langela botanika-gabinete billakatu zan, dena liburu, belar-bilduma, paper, kaja ta tresna".

(3) Historia de la Literatura Vasca, 275'gn. hor. ald.

"Hirureun liburukiko biblioteka zuen, espainolez, latinez eta frantzesez. Linneo'ren obrak bereganatu zituen eta benetan estudiatzen asi zan".

"Jaun Fermin Estebe'ri sueziatar naturalistaganako mirespen haundi bat sortu zitzaion. Arretaz irakurtzen zituen haren obrarik nagusienak, **Fundamenta Botanica, Bibliotheca Botanica, Classes Plantarum**. Ohartu zan, sistema baten bidez estudiatu nahi baldin ba'zuen gure lurraldeko landaretza (4), behar-beharrekoa zuela belar-bilduma bat egitea, zeren, Upsala'ko naturalista sonatuak dion bezala: **Herbarium necessarium est omni botanico**".

.....

"Mendiak, arboladiak, arruak (5), itxasoa eta errekek miakazten (6) zituen".

.....

"Ia (landare) guzien gaztelerazko, latinezko eta euskerazko izenak ba-zekizkien, hizkuntza honetan zutenean. Batzuek etziran ezagunak euskeraz, eta beste batzuek, **suge-belarra** edo **ira-belarra** (pozin-belarra) esaterako, izen berberaz baliaturik, aldakera (7) asko ez-ezik, mota liferenteak ere deitzen zituzten horrela. Landareen euskal-izenei zegokienetan, euskal-gaietan sakondurik zegoen apaiz jakintsu batekin hartu-emanean egon zan. Honi, Jaun Peru Paulo Astarloa zeritzaion".

.....

"Bera inoiz iritxi ahal ba'ledi "Euskalerrri'ko Landaretza"-ren (**Flora Vasconica**) katalogu bat osoki argitaratzea, zer gozo-aldia (8) bereztat! Zer garaipena!"

.....

Ba-dirudi Baroja'k Jaun Fermin Estebe Uranga'k "Flora Vasconica" liburua argitaratzeko zuen lehia aditzera ematean, Lakoizketa'k argitaratutako Bertiz-arana'ko landareen katalo-

(4) Flora.

(5) Barranco.

(6) Testuan: esplorar.

(7) Variedad.

(8) Gozaldia, gozagiroa, ezialdia, eztigiroa eta besterik gehiago ere uste dut esan ditekeala gaztelerazko «satisfacción» aditzera emateko.

guan edo landareen euskal-izenen iztegian edo bietan pentsatuz ari zela.

Baroja'k, seguru-aski, eskuartean eduki zuen gure Lakoizketa'ren landare-hiztegia, bertan ageri baitzaizkigu "suge-belar" eta "ira-belar" adierazpen hauekin:

"759.—Arum dracunlus, L.: (9) Cast. dragontea: serpentaria: serpentina: yerba de la culebra: fran. goué serpenteaire: vas. suge-belarra, de **sugia** culebra y **belarra** yerba, y quiere decir yerba de la culebra, aludiendo al color abigarrado de su tallo que se asemeja al de la culebra" (166'gn. hor. ald.).

"11.—Aconitum napellus, L.: cast. acónito: matalobos: casco de Júpiter: napelo: nabito del diablo: fran. aconit: casque de Jupiter; char de Vénus: vas. ira-belarra: de **ira** ponzoña y **belarra** yerba, y quiere decir yerba que tiene ponzoña. Es muy activo y su uso terapéutico exige mucha prudencia, por lo que los vascongados la llaman también **pozaiduna**, D. T. (10): que equivale a decir ponzoñosa por excelencia. También se le llama **otseria**: de **otsua** lobo y **eria** enfermo, y cuya composición significa que indispone a los lobos, y concuerda con la denominación de matalobos, Aizk. (11)". (47'gn. hor. ald.)

Bukatzeko, beste alderakizun bat egin nahi nuke. Baroja'k ño, bere Jaun Fermin Estebe Uranga apaiz landarezaleak, Jaun Peru Paulo Astarloa apaiz euskalzalearekin euki oi zuela hartu-emana, hau baitzuen gidari euskal-arloetan (12), eta Vilasante'k dio berriz, Lakoizketa'k neurritz gaiñetik miresten zuela Larramendi, eta euskera hizkuntza filosofiku bat delako honen teoria guztiz honartzen zuela; eta horrela, bere liburuan buru lanezko hitz asko ageri dirala «Diccionario Trilingüe»tik harturik.

Baroja'k bi euskal-pertsonaje hotsaundikoen aldaketa egin beharra zeukan anakronismu batean erori nahi ez baldin ba'zuen, eta trukea ezin egin zezakean hobeto, ezin asma zezakean

(9) Linneo.

(10) Diccionario Trilingüe.

(11) Aizkibel, Diccionario Basco-Español.

(12) Cuestión, tarea.

bere eleberrirako Larramendi'ren ordezko hoberik Astarloa bai-
 ño. Korapilloa hontan dago: «Jaun Fermin Estebe Uranga— Ba-
 roja'k dion bezala berak sortutako pertsonajeaz— Itzar'eko
 erretore zan XVIII'garren mendearen azkenetan eta orduko
 jaun zahar bat zan, hirurogeita bostetik hirurogeita hamar ur-
 tetarakoa» (13). Beraz, eleberria garai hontan denboraturik (14),
 Andoaindar Jesuita hotsaundikoak etzion balio, hau lehenago-
 koa baitzan (1690-1766), baiñan, hura bezain hotsaundiko beste
 euskaltzale bat primeran zetorkion bere garairako, Jaun Peru
 Paulo Astarloako (1752-1806) eta gure Baroja'ki iaioki aldatu zi-
 tuen izenok.

Egia da, bestalde, Lakoizketa eta Fermin Estebe Urangako
 oso garai liferentetakoak direla, baiñan Baroja'k libertate osoa
 uan buru lanezko hitz asko ageri dirala «Diccionario Trilin-
 zeukan Frantzia'ko bihurrialdi garaian denboratutako elebe-
 rrian Lakoiketa'ren antz-irudi bat txertatzeko, nahiz-ta hau
 emeretzigarren mendekoa izan. Etzitzakean, noski, Jose Maria
 Lakoizketa izen-deiturak erabilli XVIII'garren mendeko eleberri
 batean, baiñan bai, egin zuen bezala, gure landarezalean inspi-
 raturik bere Fermin Estebe Urangako sortu. Jakiña, guztiok
 nere uste eta irudipenak dira. Irakurleak juzga beza deriz-
 kionez.

ITZAR (45'gn. horrialdea). Zalantzarik gabe Gipuzkoa'ko
 Itziar da. Horra, nola adibideratzen (15) duen gure itxas-bistako
 hirixka panpiña: «Itzar izeneko hiria gainalde batean zegoen
 hauzogune txipi bat zan Kantauri itxasoari begira. Hogeitamar-
 tsu etrez osatua zegoen. Hauek, hiriaren soin-gixa, elizaren in-
 guru-minguruan zeuden eta zenbait baserri sakabanaturik; da-
 nera, milla bat bizilagun izango zituen. Eliza, zahar-iritzirik ze-

(13) «Erlaitzeko Zalduna», 19'gn. hor-ald., Ediciones «La Nave», 1943.

(14) Situar en el tiempo.

(15) Jazkeratzen, orrazkeratzen? «Describir» aditzera eman nahi dut.

goen (16). Soin (17) bakarduna zan eta Ama Birjiña'ren gelatxo bat zeukan. Txit donetsia (18) zan herrialdean itxas-gizon eta mariñelen zaindari bezala. Zaharren Stella Maris, alegia. Korian, abesti (19) bat zegoen idatzirik Ama-Birjiña'ren goraiamenez esatera honekintxe: Ave Maria Stella».

48^{gn.} hor-ald.: «Gero, dirudienez, kosta bertakozeko Elgea (20) hirira aldatu zan parrokia eta orduan, Itzar basamortu antzo gelditu zan; baiñan, bizilagunak ugaltzearekin, hiritzat jo zuten berriro eta baseliza parrokia bihurtu».

49^{gn.} hor-ald.: «Kosta hura guzia Itzar eta Elgea artean harri illunezko labartegi (21) bat zan».

«Itzar'ek etzuen kairik, nahiz-ta itxasotik urbil eta beronen gaiñean egon; nekazari hauzogune bat zan. Zenbait baserri bazituen artasoroz inguraturik».

Jaun Adrian Erlaitz Uranga'k, hots, Erlaitz'eko zaldunak, bere haurtzaroan osaba apaizarekin (Fermin Estebe) Itzar'en

(16) Estaba considerado.

(17) «Nave», testuan.

(18) «Venerada», testuan.

(19) Hitz berri hau bazterturi neukan aspalditxoan. «Itxasoa laifio dago» ezkeroz ez nuen erabili, tajugabe eratu iritzi niolako. Eta holaxen da, baiñan gerora ohartu nintzan, esate baterako gehienek ohartu duten «idatzi» hura bezain tajugabekoa dela. Beraz, biak erabili edo biak baztertu da zentzuak agintzen duen jokabidea. Ezin egin dena da gure artean askok egin dutena: **idatzi** honartu eta **abestu** baztertu. Jakiña, jokabide hau alderdikeri hutsezkoa da. **Idatzi** Azkue'k honartu zuen «el bellissimo neologismo de Arana-Goiri» deituz gutxi gora-behera eta **abestu** zapuztu zuen gustatu etzitzaiolako. Geroztik, **idatzi** ideologia guzietakoak darabilte eta **abestu** alderdi batekoak bakarrik. Baiñan, herrian «abestu» «idatzi» hainbat edo gehiago sartu zaigu, hitz gozoa da, eta eztio kideko beste euskal-sustraidun hitz bati tokirik kentzen (alegia «izpar»ek «albiste»ri kentzen dion bezela). Honegatik, neurriz erabiliko dut aurrerakoan, izugarri beharrekoa baitzaigu esate baterako «abesti bat kantatu» eta **kantatu** askotan errepetitu behar denetan. Belarriarentzat gozoago da batean **kantatu** eta bestean **abestu** erabiltzea. Nik beñepein, idazkeraren estetika aldetik, hitz hau baztertuz geroztik naiko lanak ibilli ditut beronek utzitako hutsunea bete ezifik.

(20) Ba-dirudi Deba dela Baroja'ren irudimeneko hiri hau, baiñan Zumaia'k ba-du zer-ikusirik. Ikus onezaz esaten direnak «Elgea» hitzean.

(21) Acantilado.

egiten duen egonaldiaz dio: «Hontan, erretoreak kontseju egin zion bere arrebari, Adrian eraman zezala bolara bat egitera haren lengusuaren etxe batera, Lastur zeritzan hurbilleko hauzogue batean bizi baitzan».

«Adrian gustora joan zan, artzaiñei lagundu zien Andutz mendi barrena aberea (22) eramaten, hurreko beste mendi batzuetara igo zan eta pozik etxeratu». Egon ere, Andutz mendia Itziar'en bertan dago eta Lastur hauzoa urrean.

Jarraituko zaio.

(22) Ganadua,azienda. Gipuzkoa'n, ordea, zaldizkoari bakarrik esaten zaio eta Nafarroa'n abelgorriari.

jose a. otaegi

pentsamentuaren bakardadea

Begiek ezeze arimak ere aberriko jendearen artean du giro. Atzerria aberri itzuli dugunok pozgarririk batere ez duen zerbait aurkitu diogu bakardadeari. Atsegin nuen nik, lehenago, lagunartea utzi ta mendietako nahiz gelako bakardadean nire pentsamentuekin elkarriketan jardutea. Begiak barrura iraultzea bezala zen. Geure barneko bizitzaren igidura xeheak arretaz begiratzen ditugu beti. Baiña hemen, atzerrian, pentsamentuaren erlojua gelditzen doakidala konturatu naiz, begiratzearen begiratzez.

**atzerri bideetako
gogo azterketa**

Ondo nekien nire pentsametuaren muiña kokorra zena. Ez nuen bereala aitortuko hain kokorra zenik, halere. Lagunarteak, nune bait eragiten zion, zorna ematen zion. Orain, elkarrizketarako lagunik ez-ta, eztabaidaren zirikada galtzean, igartu egin da pentsamentua. Ez dute erakartzen noizpait hainbeste urduritzen zuten galdekizun haiek ere. Aspergarri bilakatu dira beti alderdi beretik begiratzeaz. Ezagunegi. Ez esan, gero, menderatzen ez den hizkuntzan gogoetak trebeki, airosko azaltzeko nekea denik. Sakonagoa da gaitza. Giarra bera dut auldutakoa. Gogoetak berak biurtu zaizkit nekagarri ta elkor. Behiñolako argi piztearen poz hartarako gaitasunik ez du nire gaurko pentsamentuak. Ez du segurantzarik tinkatzen nire gogarteak, hasieran baiño duda gehiago, bai, galdera gehiago bakarrik.

Gauzarik zaharrenak berri ageri ziren lagunartean, eztabaidak ematen zien garbituarekin dizdira berria irabazita. Batek batetik, bestetik besteak, bapo astinduak uzten genituen prolemak, eta ba zirudien iñoiz akitu ezin ahal beste aurpegi zoragarri zeuzkala edozein huskeri xinplek, sakon aztertu zekero. Gaur

ez du bere idoro lanean estrato zezatik aurkitzen pentsamenak; antxiñako huri eratxietan ondarrak antzo, prolema guztien erraiak nahi ta biurri, korapilloz josiak baiño. Motel iruditzen zait auzirik gorriena. Lur ezagunarekin topatzen naiz pittin bat jorratu orduko. Iñoiz ez gera helduko ezere barrutasun egiazkoraiño.

Eztabaidaren zoroan, ezerk ez zidan etsaiaren arrazoiak birrintzeak baiño atsegin bizkorragorik, gozoagorik ordaintzen. Beharbada alderdi berriak idorotzea seguruegi neukan, merezitako neurrian estimatzeko. Ez nintzan haren prezioaz asko akordatzen, ez horixe. Errezezia zen iritziak baztertzea, onartzea, lagatzea, aldatzea, zuzentzea, ukatzea. Irribarre mikatzez oroitzen naiz orain nolako abegi onez onartzen genituen Frantzia-ko ideiak, Alemania-ko liburuak... atzerritik etortzearen zoramena beste ederrik al zuten gehiegi arduratzerake. Errezezia, bai. Hauxe da kanpora irtezeak lehenbizi desegiten duen mitoa. Ez ote dira gure antzeko kanpokoak ere?

Aidea bete iritzi ta kezka egonezin ba zen gure Arantzazu-n. Edozein iritzik kolkoan dakarren egia

zattia ikusteko ta aprotxatzeko lana ba zenik ere ez zitzaidan otutzen orduan. Dirua ez omen da irabaztes zenbat kostatzen den probatu artean behar bezala estimatzen. Horrelako zerbait.

Gauza guztiak neronek bakarrik begirutzen ta irizpetzen ditut gaur. Hasieran, askatasuna hauxe izango zelakoan nenbillen. Askatasuna? Bai zera! Galduarena, ardi deslairaena, izatekotan. Nahiago nuke neure senez bakardadean egindako idorokunderik miresgarriena baiño, nire jendartearen pobrezia. Hobe milla bider bakardadean aberats baiño gure herriarekin pobre. Ondo dakust, bai, ez nuela zorionez nire begiekin bakarrik ikusten. Lagunarteak, gizarteak ikusten zuen nire begiotatik aurrera. Ta ezin ohitu naiz nire begiok nire herria ez den honi uztera.

Galdekizunak analizatzean «nire» alderdiak ikusten ditut eta kito. Ez dut ikuspegi berrien billa zizta nazan lagunik. Ez daukat ustegabeko alderdi izkutueta eramatzen nauen kontrarioaren laguntasunik. Zergaitik ez atzerriaren bentajarik haundiena honetxek izan behar luketa? Zer dakit nik... Ezin asma-

tu ditut nunbait ba dirala igarritako errealdade kabiak, zokoak. Hain da poxpolo eskasa gure irudimena. Galdekizunen barrunberaiño sartzeko zirrikituak misterioan gordetzen zaizkit. Huri handien antzekoak aurkitzen ditut prolema guztiak. Paris-en, Kolonia-n, Hamburg-en, Erroma-n, bakarrik abiatzen denak ez du erdiaren erdia ikusterik irixten. Oin alperrotan ez dugu asperkundearen bide betikoe-tatik irtetzeko adorerik. Eta lehenengo egunetako alegiñen zoroaldia igarotakoan, aukiren batean exerita bertan abandonatzen dugu arima.

Hutsunea egin zait pentsametuaren inguruan. Hutsunearen esi bildurgarria.

Bakardadea goratzen dute olerkariak. Apartekoa baita, ideien joan-etorrian, inpresioen zurrumilloan, atsegitera erretiratzeko. Baretzen dugu arimako aidea ta go-goaren leiak txukun txukun bakoitza bere leku jakiñetara jasotzen ditugu. Lotara joatea da. Halabaiñan, zer poz izan dezake oheak urrengo goizean, ta ondorengo gabean, ta geroko egunean ere ta aurreragoko luzaroan lo egon beharko duela dakiarenentzat?

Atzerrira irtetzeak gauza asko irakasten dituela esan oi da. Duda-rik ez dut. Izan ere, pentsamolde diferentea topatzeak iritziak berriro juzgatzea behartzen gaitu. Eztabaidaren egikizuna ederki betetzen du alde honetatik: pitzgarriarena. Pentsamentuaren eraberritze hau samentasunez eramango bada, ordea, gogorki saiatu behar, eta batez ere, norbera mundu berriari bakardadean ez baiño lagunartean aurreratzeari komeni litzake. Nahiz azkarrena izan, bat da beti buru bat, eta iritzi berriak ez dira berrigatik hobe. Nundik norakoa eta zegatikoa aztertu behar zaizkie. Egia zuritu, mamia xurgatu, gutasunaren kalterik gabe gudanatu. Baiña hau, bakarririk eta hareago hizkuntza, literatura eta herri gogoaren milla ageriak banaka banaka begiztatu barik nola tajuz iritxi? Atzerrira irtetzeak ez du, beste gabe, arnas berrikerik batere adierazten. Elkarrizketa erretzen du, noski, baiña niri, makiña baten moduan, «hizketa» falta zitzaidan.

Putza dira turismoaren impresioak, sakondu gabekoak. Arratsaldeko haizeak erabilliko dituen orbel. Eta nik ez dut orbelezko pentsamenturik nahi. Beraz, han he-

men mokoka aritzearen aldean hobe dut bakardadean arraren lan setatsuan alegin.

Valencia-tar batekin topatu naiz Paderborn-en. Euskaldunak itxiak gerala bota dit, gure lurtxoari lotuegiak. Honek ere bere egia izango du. Nik ez dakit neure burua salbatzeagatik (besteen eskasiak gure defentsa biurtu oi ditugu!) baiña zabalegia iruditu zait bera. Alemania-ri aurkitzen dizkion hainbeste birtuteak, kritikaren galbaetik pasatuak ote zituen? On direlako onartzen ote ditu, ala aleman direlako hutsagatik? Nire herria itxia bada, itxi ta guzti maite dut. Ezin dut haren nahigabeaz irrik egin. Ez dut ezerkin konparatuko, ama ez da ezerekin konparatzen-ta.

Mundu berri bat agertu ote zait Euskalerririk aldentzean? Ezetz esango nuke, ta halere, baietz uste dut. Haiak ala gu gizon izateak ez digu zeharoko alderik ametitzen, baiña berebiziko berexkiak nunahi topatu ditut. Berdiñaren eta ezberdiñaren nahasketa hau aldagoiaren gogorrez sartu zitzaidan impresioen ate arteetatik barruraino. Ez diot sartuera eskatzen zidan onari sarbiderik ukatu. Orain liskarretan

daukat barrua. Liskarretan ote? Ez, autsita. Onena ere ez da txarra baiño askoz hobe. Zimeldu egiten da ontasuna gure barruan, edertu txar-keria. Biok paretzen ditugu, biokin zapero bat egiten dugu, ta ez dugu besterik gizon izatea. Zer da on ta zer txar? Ez diogu ezeri jarraitzen ahal iturbururaino.

Zentzua kaskaldu-edo zait. Asmatzen ez dut baliogoen maillari neurri hartzen. Zer berezko mani dute, guk estaltzeko jarritako irudiaren azpian? Gaizki iruditzen zitzaidana bedeinkatzen duela aldamenekoak ikusten dut. Eta aitzitik. Milla arrazoirekin azaltzen didate hau ta hori zergatik ditugun primerakoak, ta kaikukeria galanta izateari osta osta irabazten diotelakoan gelditzen naiz. Arrazoiok zergatik ez dute *nire* arrazoi egin artean gero izango duten indarrik? Nire arrazoiak ez dute nire ingurukoentzat nik ustetako zerarik. Banal aurkitzen ditut nik haienak. Gauza bat arretaz ikusi, goraberak pixatu, atzeaurreak neurri, goiak eta beak kalkulatu, ta iritzia burutu dudanean, beste inorenentzat xentimorik balioko ez duen kezka apurtzen dit arrazoiketaren poz guztia...

Ni neu ote naiz arrazoa arrazoi biurtzen duena, ta nire antzera besteak? Argitu nahi nuke hauxe.

Atzerrietan ikusiriko dena on-
tzat etxeratu nahi ziguten asko eza-
gutu dut. Nik ere lagundu nahi
nioke Euskalerrriari baiña ez nuke
kontrabandorik alperrrik, eta gu-
txiago kaltetarako, egin nahi.

Eta hemen, hain zuzen, kakoa:
zer da on ta zer txar. Lehenago
hain gogokoa nuen kritikaren haiz-
toak ez dit balio. Eskuetatik eror-
tzen zait. Ezpaiaren, zalantzaren
herdoiak pentsamentua geldotu dit.
Ez al dit alperkeriaren goroldioak
esteliko, etsipenaren astunak zanpa-
tuko!

Bereizgaitzak dira benetan bizi-
tzaren errealidadeko barne illunean
baliogo onak eta txarrak. Ez dira
baliogoak izanarekin berdintzen.
Nahastu bai, ausaz. Munduaren
adarrak desiragarri biurtzen dituen
kalitate izanaren jazkiak dira nos-
ki baliogoak. Ez aurpegiko begie-
kin ikustekoak, eta arimakoak ne-
katuta egon... Dena garbi ikusteko
grïña ilusio hutsa ez ote dugun iru-
dituak azpiratzen nau. Gure barruaz
nagusitu nahi duen argi-min arra-
zoinalistari amor eman eragin eta
misterioaren aurrean gabiltzala kon-
fesa besterik ez dagokigu, egiati ja-
rraitzekotan. Honezkero egiati ja-
rraitzea posible bada beiñepein.

Osotasunean betetzen duen apa-
la igarri gabe alderdirik ezin eza-
gutu genezake, ta halabaiñan oso-

tasunaren bueloa ez da gure men-
derakizun. Ba ote gera labezai bai-
ño gehiagorik? Agian, sua zer den
ulertu gabe labeari egurra sartzea
dugu egiteko guztia. Alegia, arra-
zoiak xehatzea baiño lehenagokoa
dugu apika —bai inportantzia eta
baita denporaz nahiz metoduz au-
rretik *b i a l d u* beharrekoa ere—,
obratzea. Hots, zergatikoak argitzea
baiño bizitzago ez ote den obratze
soilla galdetu nahi nuke.

Atzo arte nire baitan libre ta
errege zebillen pentsamentua bakar-
dadean preso lotu behar izan dut.
Errealidade azkengabearen, ondo-
gabearen baitaratzeko gaitasunez us-
te zuen bere burua. Ez zen kontu-
ratzen nola iritziko errealidadea
gauzazkoarekin nahasten zuen. Ni-
re barruko pentsamentu deneri zer-
gatiko galdezka hasi naizen orduko
itzali zaizkit gehienok halere. Errez
beratu dira baliogo ezinikututzat
neuzkan milla. Bigundu, urtu, deu-
sez tatu. Baliogoen prezioa neronek
asmatua nuen, seguraski, edo asma-
tua ez nuena, antxiñakoengandik
oiñez oin zetorkidan eran, kritika-
rik gabe, onartua. Ia beñere egi-
ten eta pentsatzen hala itxaroten

dugunaren arrazoi ermorik. Ikara-
garrizko despistea hauxe: izadiak
jarritako legetzat daukagu pentsa-
mentu soillaren asmazio den gehie-
na. Nik, beñepein, neronenak bai-
ño gauzatasunarenagotzat neuzkan.

Zenbateko egia dioen Riehl-ek,
Nietzsche-ren kontra eutsi duenean:
«Baliogoak ez dira asmatu egi-
ten...; bere horretan idorotzen di-
ra. Kulturaren aurrerapenarekin,
gizonak ikusi ahalekoaren esferan
erortzen dira, zeruko izar berriak
antzo». Kulturaren aurrerapenare-
kin, alegia, denok batera konkista-
tzen ditugu Bakarka irixten gera-
nean, ez diogu alderdixoren bat
besterik jasotzen, ta honen ingurua,
osotasuna, gerok asmatzen dugu...

Denok batean joan behar dugu
baliogoen billa, Don Quijote-ren hi-
llobia reskatatzera. Unamuno giza-
joa... Hoen atzetik joatea da bizi-
tza. Beraz, ibiltzea.

Iturri agor aurkitzen dut bei-
ñolako filosofoen ekuazio hura: per-
sona da «hipostasis», hots, norbe-
raren jabetasuna, izate akabatua,
atributoen (eraskiñen) oiñarri eus-
kaia. (Iñoiz ulertu ote dut, baiña?)

Ez dirudit ezeren oiñarri naizenik, batez ere, norbait ba naizela ikusi (edo desiratu) arren. Desiratu, hobe. Zer dakit nik subsistentzia honek, buru-euste honek, nun tinkatzen dituen erroak. Izate gorrian? Buru-euste hau al dut nire izanaren ardatza?

Begoz metafisikoentzat ardura horiek. Niri abstrazio mehegiok ez didate nire nia ulertzeko laguntzen. Ezin dut nitasuna bertan kokatu.

Esan beharrik ba al dago dagoenako? Metafisikoek nitzaz diotena jakiteagatik asko larritu gabe, baliogo egarriz nabari dut nia nik. Beti antsiaz, irritsez beti. Baliogoek erakartzen naute maillaz mailla, gorago, liburu edo hitz baten harri-petik sarritan, gertakizun ximpleenetik iñoiz. (Historia kontagarriak eta idazle erakusgarri luzituak baiño hobe genituzke kondaira imitagarri ta adimentu gidariak.) Baliogo billatzeko pizten dugu pentsamentua. Zerbaitek esaten dit hemen barrenean baliogoak irabazi ahaleko neurrian askatzen dudala lurraren loturetatik izpiritua.

Bai ote? Amesak ezin du amesetako askatasuna baizik eman. Libre bai, baiña ezin billa dezakegu erabat libre izaterik, hau da, izpi-

ritu huts. Ez dut ulertzen hori zer izan ditekuan. Susmotan naiz, horregatik ez ote duen pentsamentuak, bere arrazoinalismoko bideak barna begiek ekaia galtzen duten goietaraiño hegatu ta gutasuna joritzen digun baliogoen mundua (ta ondorenezko legez gu geu) izpiritu hutsean anzaldatzeko joera. Aingeru-nahi izkuturen batek erretzen du gizona, absolutu irrutsak. Absolutu biurtzeko, berriz, materia zuritu nahi dugu, gainekoa kendu, ideia hutsarekin gelditu. Abstrazio langintzan ari gera denok, zein apropos, zein ohartzeko. Ondarrezko gaztelugintzan. Garbi ikusten dugu albokoaren gaztelua aurreneko uhiñak ondatuko duela, ta —xelebrea benetan— gurea bestelakoa dugulakoan gelditzen gera. Besteen pentsamentua, arrazoi-joskerak, oiñarriak, ergel irizten ditugu. Gureak ez!

Bidezkoa da, orduan, baliogoak ez bere hartan geuganatzea, edo geuganatu ostean, gure izanari moldatzea, geu haieri egokitu beharrean. Lehen billatzeko bezain lanabes ta laguntzaille ernea izaten dugu eginza honetan guztian pentsamentua. Eta hara, nik uste, zergatik osotasuna komeni den sakon-

tasunez, osotasunez (barka korapil-
lora) «hartu» eziñean, *hartz*en
duentxo bere antzez osatu egiten
duelako. Zati bat baizik ez diogu
ebakitzen bakoitzak errealidadeari.
Asmatua dugu beste guztia. *Eta*
hau ez ote zaigu bakarka gabiltza-
lako gertatzen? Denen ikuspegiak
elkartuaz iritxiko dugu baliogoez
jabetzea, gutasuna benetan ornitze-
kotan ez daukagu jendartea aban-
donatzerik. Elkartze hau da elka-
rrikeria. Orduan gertatuko da gu-
re begiotatik, geure ikustea galdu
barik, *herriak*, gure kulturak,
ikustea.

Premiazkoa dugu elkarrikeria.
Zerbait idatzia dut honetzaz JA-
KIN-en, komunistekin elkar hitze-
gitearen obariak oharrazten ni-
tuela. JAKIN-en bertan aitortzen
nuen minoria zuzentzaileen gidari-
tza premia ere. Gaur, biok berri-
tzen ditut. Nabarmen agiri zaigu
euskal lurrean gazteri kementsua-
ren erretzea. Baiña bakoitzak bere
aldetik jarraitzen dugu. Nik ez dut
gazteri hau lotzen duen (lot deza-
kean) bururik sumatzen. Ez ote
dugu ba? Ni ez naiz batere fiartzen
egitekoaren bakarrak estuki eutsiko
digula-ta. «Unidad de empresa»
horiek auskorak dira, amesak be-
rak baiño amesago direlakoxe zer-

baitegatik. *Eta* gurea ekipo lana da,
sail lana. Bidegintza baita.

Oraindik feudalismoan bizi ge-
ra euskal intelektualok. Egia da,
mingarri bezain egia, gure pentsa-
mentuaren aldetik atzerriko idazle
ta pentsazailleen *zordun* generala.
Kanpokoak ditugula gidari. Baiña
honek ez liguke geure arteko har-
tuemanketarik ito behar. Zer egin-
go dute hainbeste estropalarik, ita-
soaren erdian, patroiрик gabe? Ez
baitut uste euskal egoera benetako
itsaso —*ta* nolako itsaso!— dela
enteratu gabeko iñor geldituko de-
nik.

Gerekasa ihardukitzen enpeiña-
tzen bagera, laister esango dugu
esateko guztia. Gure mezua agitz
garrantsi amorratukoa izango da,
baiña guretzako bakarrik, agian.
Gure burua illargi dela, ez aguzki,
aitortzeko lotsarik ez genuke izan
behar, humiltasun karioz ez bada
arrokeriagatik beintzat.

Bai, euskal intelektualok har-
tuemanak estutzenago leiatzen ez
bagera, laister gera etiketa desber-
diñez jenero bera saltzen. *Eta* ondo
probatua dut: trenaren gisako hots
beti berdiñak lo eragiten du. Ba
ote du gure herriak, iñork loerazi
beharrik, gero?

Barcelona'n odol-bila dabilzkigu. "Gurutze Gorri"-koak.

Gizonak salbatzeko behar omen dute. Bide-ixtripuak, umeak, erdi hilak: guziok askotan odola behar izaten omen dute. Hala da nunbait. Bainan odola ez du edonork ematen, eta hor izan dituzte lanak, eta goriak gaifera -odol urdiñekoak ez baidute zerarik, emateko moduan behintzat. Sariketa bat asmatu dute odol-bila. Ta nork irabaziko ta hemengo judegu-komunitateak eraman du saria. Ez genuen beste ezbeharririk behar; hamar gizaldi joan zaizkigu, Espainian, gure odol-garbitasuna nola frogatuko, ta azkenean amildegi hauetara erortzeko. Esker-rak Euskal-Herrian judegu gutxi dugun eta odola oraindik garbi gordetzeko asmorik irmoenak ditugun... Ez gera galduko, etorkizunean izanen dugu herri zoolojiko bat. Biba gu!

Horiek gora-behera, ta euskaldun garbien aurka, zerbait proposatu nahi nuke: Guk ere beste hainbesteko norgehiagoka asma dezagula, ta guzion laguntzarekin (nik nere aldetik ba dut aideko bat —urrun samarrekoa bada ere— Donostia'ko "Gurutze Gorri"-an) EuskalHerriko judegu guziak —nahi bada ta ez bada, hori berdin— odola eman dezatela gure etorkizuna salbatzeko. Zertarako? Euskera ez dakiten guziera odola alda dezaiegün: ea horrela beren hizkuntza ikasten diguten. Mirakulu hauek, mintzaira-aldaketa azkar eta aberkoiak alegia, judeguen artean bakarrik gertatzen baitira. Nik proposatu bakarrik egiten dut. Orain komisione bat sor bedi.

PARKEKO

Mutil gazte bat ezagutu dut gaur. Goserik zetorren, arropak zarpail, ta gizona eskas. Ez daki bere buruaren berri haundik. Joan den astean hor nunbait gizon bat hil nahi izan du: hurrengo eguneko periodikoak aitatzen zuen gertatua. Libre dabil honelako burugabekeria egitera ausartu dena

abenduak, 9

**GOSEAK
HILTZAILLEAK BA DITU**

ez baitzen atzemangarria: sozieta-
tea, Fuenteovejuna. Hamar egun
daramazki ezer onik jan gabe;
gauz kamioi-barnetan lo egiten
du; baiña hemengo serenoak nola
ez duten lorik gauz egiten, arrap-
patzen duten bakoitzean, kanpora
botatzen dute. Lagunurkoari la-
gundu egin behar zaiola-ta. Elka-
rren ondasunak zainduko ez bage-
nitu, nora joango giñake izan ere?

Gizarteak ongi defendaturik lo egi-
ten du gauz. Unamuno'ren "tran-
kilitate".

Ogei urte, lanik ez eta tuber-
kulosi bizi bat kolkoan. Anai bat
Alemanian, ama ezjakinik. Billete
berde batek, beharrik ez duenaren
eskuetan, ba du gauz baten bu-
rua nahasteko lain ekarmentik.
Geroak eta Jainkoak juzga gaitza-
la bera ta gu!

AITA GABEKO AMATZA

abenduak, 25

Bestelakorik ba dirudi ere, nik ez dut kaferik (akeita, esaten da)
hartzten. Bainan katalan familia batek, nere herritik urrun nagoela-ta,
kafetara deitu dit. Irtetzerakoan, "urrutizkiñera" deitu didate: hutsa,
haur bat hil da, zazpi eguneko ta xaxpikia. Gabon-egunerako poliki.
Bizitza, agian, okerrago izango baitzuen, eta Jainko onak ere lagun
egin dio haur gaixoari.

Ama estranjeriatik etorri da, haur-izateko hain zuzen. Han ez bai-
tzen posible, gurasoak ondrauegiak zirelako nunbait. Ta gure artean
ondrautasuna ta karidadea ez dire beti bidelagun. Amak ogetahiru urte
ditu; mutila, nijerianoa omen zen. Honelakoetan joan-etorriak bakarrik

EURIPEAN

iñaki iturriotz

egiten dituzten gizon horietakoa. Normal samarra: Historia triste bat.
Amaren bikaintasunak ez dire urrez ordaintzekoak. Gure etxeakoandre-
rik onenak ez luke gehiago balio. Benetan doa hau.

Nere Gabon-eginkizuna ez da beste mundukoa izan... hemengo, ta
oso hemengo baizik: ama gazteari —gizon sastraka batek eta gizarte
ordenatu batek eman dizkioten sufrikario guzien hondotik— semearen
heriotza-albistea eman behar nion. Klinikara heldu nintzanean, gauza
egina zen ordurako. Alboko gelan amak berak aurkitu du haurraren
gorputza. Beraz, ez neukan esan beharrik.

Iritxi nintzanean, ez zuen negar haundirik, ta zotinak barnetik barrik: "Ta dena alferretan", esan zidan. Haur hilaren amonak ez du jakingo, noski, zeruan baizik, honelako ilobarik izan duenik. Rose Mari'ren arimaren sakona ta haunditasuna ta zabaleroa Jainko onak barrik dakizki: amatza desegin zezakela, inguruaren zitalkeria aukeratu du.

Amak haur beltzari, maiteari, egin dion azken-agurra ikustekoa izan da: buru beltxean ikutu-goxatu bat, ta agur betiko.

Gure kaleetako neska ta mutil, ta gizon-emakumeok, ez gera bi mila kilometroko bidean ama izatera etorri zen neska izkutu honen pareko. Bestelakoak izanen lirake gure uriak!

Eguberri hauetan hildakoen bila ibili naiz, edo hildakoek ibili dire nere bila. Zer nahi duzue. Vic'en ba nituen mintzaldi batzuek eta hara zuzendu naiz. Vic'en zeregin arraroak hartu dituzte beren gain zerbait gaztek. Hilan lagun eta haldikaldeko geroaren beldur direlako-edo, kanposantura joaten omen dire; bueno: joan egiten ziren, orain ez baitute beste hainbestetarako ahalmenik... Bainan edonork hau dena prosa erromantikoezia dela esan ez dezan, jakin beza horrek olerki ta guzi joaten zirela mutikuok hül-herrira. Han egiten zituzten beren gaulanak, olerti ta abarrekkikoak alegia.

Ta egun batek, hobeki, gau batez deliberatu zuten hildakoekin aurrez-aurre ta gorputzez-ezur elkarrekin hitzegin behar zutela. Bitxia, hainan egia! Benetan diotsuet. Gau haretako olerkia iluna izan zen biziki, nunbait. Eta sepultura itxi batera zuzendu ziren: hura momentua! Zer ote zioten hildako gizarajoak? Sepultura-losa, ordea, blaus!, eta behera (ifernuetara ustez) joan zitzaïen.

Gero jakin denez, iñork ez zuen adorerik izan, han tinko irauteko. Anka egin omen zuten gazteok. Ta orain, goardazabilen erabakiz, berak ere losapetuak omen daude, ta olerki-deklamatzailerik gabe gainera. Ez da gaitza zoritzarra.

Diotenez, hau ere geroztik jakin dugu, gazteok ez ziren intelektualak, Jaime Balmes'en irudiari buruz-behera pintura-baldetzar bate jaurti omen zioten-ta. Ikusten da: ba zituzten asmo ederrak, baina askotan ez da erreza aurrera eramatea.

Holaxe bizi gera, ba, Parkeko euripean.

SANTIMAMIÑE

jose antonio arana

Orain, aurtengo ilbeltzean, berrogetamar urte igaro dire Bengoetxea Jaunak Santimamiñeko leiza euskal jakintzara argitu zuanetik. Lurralde hori, Basondo deritzaguna, Gernika aldean dago, eta ugarria da oso halako leizetan: aintziñetik datorkio ugaritasun hori ta izentasuna ere egunotaraiño eldu zaigu: baserri bat, Lezika derizkiotena (1), hau da «aldatzeko koba», bertan dago, izan ere.

(1) Ainbat toponimo dira, Bizkai aldean, «-ika» atzikia daukatenak. Atzizki hau batzuek eusko hitza dala diote: aldatz, gaiñe, garai, eta abar. Beste batzuek hitziko hau keltarra, edo «preindoeuropeo» edo latindarra da. Iberozelezko ere hitz honek «leku» esan gura du. Ikus nere idazlana *Guernica y los topónimos vizcaínos en -ika*.

Baiña inguru honetako leiza guztiak izan dire urteetan gauza bakoak, abereak aterpetu edo etxeratutzeko baiño ez baizuten balio. Bengoetxea jaunak argitu zituan arteño etzekian iñork hango barruko berririk. Orduntxe asi ziren izendunak izaten: Nabarniz'tik Gabika'ra, handik Kortezubi'ra eta, erreka igarota, Foru'ko alderaiño xainbat leiza daude. Aipaturiko leku hok eta beste batzuek, aitatu gabekoak, gure Edesti-Aurrean nabarmenak ziren (2). Baiña danetatik izenduena Santimamiñe dugu. Zergatik? Euskal kultura bideetan gabiltzanok derrior eman behar diogu galdera honi erantzuna.

Migel Unamuno'k, bere «Tesis Doctoral» (3) delakoa idatzi zuanean, orain larogetamar urte, etzuan tema obarik billatu hortarako euskaldunen abendatsa baiño: beha-

rrezko bidea zen orduan, Edesti-Aurreko berriak argitutzeko, hizkuntzaren laguntasuna, etzeukan beste biderik-eta. Ezbekian orduan Unamuno'k Lumentxa, Santimamiñe ta Atxeta'ko berririk, ezta Urtiaga ta Isturitze'ko billaketaen ondorerik ere. Bide bakar hortatik aterakizun honetara iritxi zan: «Euskaldunak ez dakigu ezer gure Edesti-Aurrearen gaiñean» (4). Egia zan orduan, eta gaur ere asko gehiagorik ez dakigu; baiña, zorionez, 1916'an, Bengoetxea'ren argimenekin, beste bide berri bat iriki zen.

Baiña orain arteko jakintzak ikusita, ez dakigu askorik gure lehenengo gurasoen bizitzaz. Beste euskal kulturako arlo askotan ere holako galdera bat egin behar genuke: oraiñarteko jakinezaren errua nori bota? Bakoitzak jakingo du

(2) *Ikus Monografía de las cavernas de Vizcaya* Antonio FERRER'ek argitaldunikoa. 150 aipatzen ditu Bizkaian, eta heuren artekoak berrogei, gutxienez, Gernika ta Lekeitio artean daude; ara batzuek: Lumentxa, Errotabarri, Armiña, Ondaro, Saspilexeta, Boluna, Goikolea, Atxondo, Aurtenetxe, Akorda, Atxeta, Giñerradi, Sagastigorri eta abar. Nabarniz'ko Keltar «kastroa» ere ezaguna da. Atxeta'n (Foru) 1959'tik 1960'ra Aita Barandiaran ibilli zan, eta ainbat ezur, harri, txirle ta gizon-ezurrak ere atera zituan. Gernika'ko erreka ere, Gorozika'n jaio ta Bermio'ra doa hiltzera: hemen diote Tubal jarri zala Armenia'tik Euskalerrira etorri zanean. Baiña hauk Mitoloji baratzeko lorak dira.

(3) *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la Raza Vasca*. Op. Omnia. Aguilar. Tomo VI. Hemendik aurrera *Tesis*.

(4) *Tesis* 139/140 horrialdeak.

zer erantzun eman. Nere ustez, egia garbia hau da, alegia, lotsagarria dela gure gazteak Altamira'ko berriak buruz jakitea, eta, ostera, Santimamiñe'ren izena ezaguna ere ez izatea. Gazte-gaztetatik dakizkigu

Altamira'ko aitz-margoen kontuak: ba, kontuxu, Santimamiñe'ren inguruan bizi geranok, ez dakigu leiza honetan holakorik ba dagoanik ere. Lotsagarria, baiña egia.

I. Orain 15 milla urte

Bengoetxe Jaunaren argimenak etnologo ta antropologoak laister zirikatu zituan. Lopez Mendizabal eta Abate De Breuil agertu ziren, lehen baiño lehen, leiza berri hau ikustera, 1915-ko iraillan. Arkeologo ospetsu honek, urte batzuk ariñago, Altamira'ko berriak argitaldu zituan, ta baita ere gure inguruko beste leiza batzuen berriak. Gure Edesti-Aurraren ezagutzaille deritzagu horregatixe (5), eta bere esanak benetan dire baliozkoak: Aziliense aldian bizi izan zirela gizonak Santimamiñe'n, esan zuen orduan De Breuil'ek, ots, orain amar milla urte.

Hau entzunda, Aranzadi, Eguren da Barandiaran, bat-eginda, leiza honen barruak argitu ta berriak billatzen asi ziren. Bi urte barru, 1920-an, amaitu zituztan heuren lanak (6): handik ateraniko ezur eta harriak etziran noski Isturitz'ko ezurrak baiño aintziñagokoak; baiña dana dala, baliozkoak bai gure Edesti-Aurreari argi apur bat egiteko. Handik urte batzuetara, Aita Barandiaran'ek topatu zuen Itziar'ko koba baten, Urtiaga, alegia, Euskalerriko buru-ezur edo kraneorik zaharrena. Buru-ezur hau eta Isturitz'ko matrail-ezurra dire lehenagokoenak euskotar gizonen artean. Magdalenense aldikoak baidire. Santimamiñe'ko ezurrak, ordea, geroagokoak dire, Neolitikokoak. Baiña berton billatuniko beste harri ta txirlak orain 15 milla urte bizi zela gizona leiza honetan adierazten digute.

(5) Ikus *Les cavernes de la region cantabrique* (1912). Gillerme DE BREUIL Abadeak opa zuan here bizi luzea (1877-1961) Edesti-Aurrera.

(6) Lan honen ondoreak idatzi zituan Bizkai'ko Diputazioari *Memoria* batzuetan 1925'tik 1931'ra. Ikus *Los hombres prehistóricos de Vizcaya* (1962) BARANDIARAN'ek idatzita, Junta de Cultura de Vizcaya argitalduta.

«Ibi historia silet, lapides ossaque loquuntur», dio Isturitz'ko rrik, hainbat aitz-margo ere baidire han: zaldi, artz. idikonkor keta» Santimamiñe'ko hizketan ez daude harri ta ezurrak baka- rrik, hainbat aitz-margo ere baidre han: zaldi, artz. idikonkor edo bisonte, aunts, eta abar (7). Danak dioskute ez dela euskera gure Edesti-Arreko testigu bakarra.

II. Unamuno'ren jakin-bidea

Philippe Veyrin (8), etnologo prantzesak dioskun bezala, eusko ikaslanak hiru aldetik igaro dire: teolojiko, metafisiko ta positivistak maillak igaro dituzte. Lehenengo biak Filolojiak bete- zten ditu. Irugarrena XIX-gn. mendean ageri zen, baiña etzuen indarrak artu gaurko egunetararte.

Lehenengo aldiko idazleak, ots teolojiko maillakoak, eus- kaldunak ziren guztitsuak. Heuren tesia hau zen: euskera Jain- koaren hizkuntza ez izanik ere, ziur-ziur lehenengo gizonen min- tzoera da. Tesi hau, egi handiena lez zerabilen Diharce de Bi- dassouet'ek (9). Jainkoaren ahoan jarri zuen euskera, ezpairik gabe, Abate honek. Berak baiño ariñago, beste batzuek ere ha- lako esakerak ba zerabilzkiten (10), heuren artean Manuel La- rramendi'k. Bere «Diccionario trilingüe» argitaldu zuanean, 1745-ean, halakoak esaten zituan: «Euskera Jainkoak Babiloniko torre-egilleari emaniko hizkuntza, beste hirurogetamabiren ar- tean, zan». Halako nabarmenkeriak —esan beharra da— gure egunetan ere lotsarik gabe jarri dituzte batzuek: halan bai erre- za, benetan, euskeraren eta euskotarren hasiera topatzea! Beste Abade batek diosku, prantzera: «Le basque est une langue ori- ginale: la divinité de la Genèse le demontre comme viceversa:

(7) Ikus: BARANDIARAN, op. cit. Sorbona'ko Maixua, Leroi Gourhan, etorri zan, denbora asko ez dala, Santimamiñe'ko aitz-margoak berriro ikusten.

(8) *L'art basque ancien*. Baiona, 1927.

(9) *Histoire des Cantabres*. Pau, 1825.

(10) Juan Ramón de ITURRIZA: *Historia de Vizcaya* Cap. XI ta urrengo ho- rrialdeetan. R. MENENDEZ PIDAL: *Introducción al estudio de la Lingüística Vasca*, 1921, 12/13 horrialdeetan. Migel UNAMUNO: *Tesis*. Andrés de POZA: *Antigua len- gua y poblaciones de España*. Bilbao, 1587. Ta abar.

L'originalité du Basque prouve la divinité de la Genèse...» (11). Teolojiko aldi honetan esan ditu Etnolojiak ere zorakeri batzuk. Mito ta ipuin asko sortu dire gure hasiera inguruan.

Alemandar batek, Gillermo Humboldt'ek (12) asi zituan Metafisika maillako ikaslanak. Berak asiniko billaketak, Filoloji arloan, argi asko eman digute jakin-bide honetan. Iberoak, ligurrak, pelasgoak, ejiptioak, bereberak, keltak, etabar, euskotarren senideak direla azaldu badigute. Baiña senidetasun guztien artean lehenengoa ta beharrezkoena dela diote euskaldun eta iberoen artean jaio zana. Teori hau antziña jarri zen gure idazle artean (13), eta gaurko jakitun batzuk ere goratzen dute senidetasun hau: Luchaire Schuchardt, Hübner, Menendez Pidal, Giacomino, Gomez-Moreno, Ernest Lewy, Pio Beltran, Pericot, Bertoldi, Campos Turmo (14), ta abar. Baiña hauen aurka ere batzuek idatzi dute, alegia, euskereak ez duela zer ikusirik iberoekin: Vinson, Van Eys, Philipon, Bosch Gimpera, Schulten, Urkijo, Bouda, Tovar, eta beste zenbait idazle ospetsuak.

Berriro esan behar dugu, teori hau Filoloji baratzean baiño ezin dela bizi, ez Antropoloji arloan. Euskaldunak eusko abendatsa daukate; ez, ordea, iberoak. Unamuno'k zion: «Teori hau ez da enure gabea ze «ibero» deiturak Jeografiari begiratzen dio gehiago Etnolojiari baiño, eta ibero abendatsen inguruan hitzegite ezautzaka mintzatzea da; iñork ere ez du erakutsi, nere us-tez, abendats horren izatea» (15).

(11) Abate Dominique LAHETJUZAN: *Essai sur quelques notes sur la Langue Basque par un Vicaire de Campagne, sauvage d'origine*. Baiona, 1808.

(12) *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispanies vermittelt der vaskischen Sprache*. Berlin, 1821.

(13) Ikus: 10-gn. oharreko idazlanak.

(14) Euskerea iberoaren seme dala, ziurtasun giziaz, baiezten du egunotan ere Ramiro CAMPOS TURMO'k: *Frente Interior Hispano: El problema más importante de nuestra movilización espiritual*. Idazlan honetan dakar atal bat: «Llevemos la luz del iberismo al hermano separatista». Idazle honen beste lan batzuek: «Antecedentes históricos para el estudio de las murallas de Avila». «Los cimientos de la vieja Patria: Geografía Política de nuestra Península en los siglos V al III a. de J. C.». «Los cimientos de la vieja Patria: la primitiva Iberia». Idazlan guzti hauek, ezagunak ez diralako aitatu ditut. «Ejército»-ko zenbaki batzuetan agertu dira.

(15) *Tesis*, 105.

Filoloji arlora atzera etorrita, Tovar'ekin (16) banatzen gera: ba daude bai hitz batzuek euskerean iberoaren antzerakoak, baiña ele hoiek ez daukate senidetasunik: hitz berdiñak edo antzerakoak ez dire-ta heuren artetik artu-emanak baiño. Ez dire, ez, senideak euskera eta iberoa (17). Baiña egia esateko, Humboldt'etik Tovar-eraiño ez da oraindiño problema honen bukaerarik sortu. Benetan senideak balira euskerea eta iberoa, galdera berri bat baiño ez genuke jarriko, ze: nortzuk dire iberoak? Ta senidetasuna izanda ere hizkuntz arloan, ez dezakegu senidetasun berdiñik billa abendats arloan. Euskaldunak heuren abendatsa askatua ta bakarra daukate; iberoak, ostera abendats arloan ez dute batasunik.

Jakin-bide edo metodo hau zerabilen Unamuno'k gaztetan. Bere ikas-aldiak amaitu zituanean Madrillen, kezka da zirinka, oi zan lez, berexi zuen tema legor ta nabarmen hau («poco y mal espigado», zion berak lan hori idatzi zuanean). Ogei urtekin, 1884-an, amaitu zuen bere «Tesis Doctoral» hori: «Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la Raza Vasca» izenekoa. Hartarako, egotaldi beharrezkoak zeuzkan Madrilleko Biblioteka Nazionalan, eta bertako, gai honetako, liburu guztiak irakurri zituan. Metafisiko aldian sartuna zegoan eta, naitanaiez, derrior, bide bakar bat zeukan: Filologia. Bide onetik joan zen illuntasuna argitzeko arlo honetan. Antropoloji aldeko berri batzuek ere ba zerabilzkin: Biblioteka hartan irakurri zituan Reztius, Broca, Argllies, Virchow ta Landa'ren idazlan batzuek. Ez baizuen bertan zuzentasun handirik arkitu, berehalaxe ahaztuta utzi zituan. Arkeoloji arloan ere berri askorik etzegoan: Mikeldi'ko harria eta Arretxinaga'ko leiza. Halan ba, Filoloji bidetik Edesti-Aurreko iturriari ura dario: «Podemos asegurar que del pueblo vasco no nos queda más que su idioma, el euskera» (18) ta horregatik hizkuntza da bide bakarra Euskalerriko hasieraraiño heltzeko (19).

Ainbat horrialde idatzita gero, bere lanari buru emakeran, lau ondorio atera zituan:

-
- (16) *El euskera y sus parientes*, 38 ta urrengo horriak.
 - (17) *El euskera y sus parientes*, 55.
 - (18) *Tesis*, 91.
 - (19) *Tesis*, 96.

- 1.^a Orainarteko esanak, euskeraren senidetasun gainean, danak zirala ganorabakoak.
- 2.^a Ez dala arrazoi naikorik, ez alde batetik ez bestetik, oraingo euskotarrak iberoen semeak dirala esateko.
- 3.^a Arlo honetako jakiñezaren errua?: bide egokirik-eza ta arazo hau gaizki jartzea.
- 4.^a Euskaldunak ezer ez dakigula gure Edesti-Aurra-en inguruan.

Mamintsuak dira, benetan, lau erabaki hauek. Unamunok lenengo biak idatzi zituanean, bidezkoak ziran: Filolojiak aurre-rapen handiak ordurako eginda bazeuzkan, euskera arloan, aldiz, ez baizuan berri handirik agertu oraindiño. Zori txarra izan zuan, bai, Unamuno-k: billaketa bihotzekoak utzirik euskeraren aurka asi zanean, argira sortu ziran euskeraren aldeko berri handiak-eta.

Hirugarren erabakia ere benetazkoa da, beste biak bezala, baiña Unamuno galduta jartzen du bere esakera horrek: ez da Filolojia izan ere biderik egokiena Antropoloji ta Etnolojiko arlorantz heltzeko, ze jakintza honek, bakoitzak bere jakin-bidea du, ta behar ere. Ez zan ba egokiena Antropolojiaren ordurarteko lanak ahaztea, bere ustez baliogabekoak ziralako: bide honi xeldu behara zeukatzen, bertan ekiñ argitasuna agertu arte. Zaila zan, benetan, biblioteca baten bidez irixtea berak zion argira (19).

III. Santimamiñen sortu zan bide berri bat

Ziur ere ziur egun hori argituko zaio benetako bideari, bihotzeko zintzotasunez, eldu ezkeror: Aranzadi ta Unamuno'tar Telesforo'k artu zuana. Bergaran jaio zan 1860'an euskalzale ta gizon ospetsu hau. Handik hiru urtera Bilbora eraman zuten gurasoak; orduan gutxi-gora-behera jaio zan Bilbon bere lengua

(19 bis) UNAMUNO'k nahi zuan «vislumbrar la aurora del día en que se ponga en claro tal problema, si tal día ha de llegar». *Tesis*, 90 horr.

sua, Migel Unamuno. Gaztezero erdi berdiña egin zuten lengusu biak katedra-billa. Azkenean, Migel Salamanka'ra joan zan; Telesforo Granada'ra lehenik, eta handik Barzelona'ra. Biak batera dauzkagu, ba, katedratiko eginda. Aldi berean zebiltzen euskotar hauek euskal kultura bideetatik: bata, Migel, azkar gogaituta, euskeraren aurka asi zan (20); Telesforo, ostera, euskal kultura bidean zintzo jarri zan. Bata bide zarretik, bestea bide berritik.

Bide berri honetan gizon jakitunak jaio ziran, alegia, Aranzadi'rekin batera hasi ziranak lehenengo arnasak botatzen. Ta heurrekin sortu zan Veyrin'ek aitaturiko hirugarren aldia: positibista. 1845'ean Anders Retzius'ek lehenengo buru-ezurra neurtu zuan; benepen eusko-ezurrak zirala zeritzan. Egia garbia esateko, billaketa hauek Filolojia'ren eskutik sortu ziran, baiña hasieratik bere bidea hartu zuan Antropolojiak. Gerotxoago, Paul Broca gure abendatsen gora-beherekin arduratu zan, eta Zarautz'era lehendabizi ta Donibane'ra gero etorri zan, berton, «in situ», benetazko neurriak hartzeko (1862-1857). Ordutik ona asko izan dira eusko abendats inguruan ibilli diranak: Argellies, Collignon, Intxauspe, Oloriz, Deniker, Velasco, Hoyos Sainz, eta abar. Gaurko egunetan Antropoloji ta Etnolojia jakintza nagusiak bilakatu dira ta bide zuzena jarri dute bukaera onetara galdu gabe irixteko. Schuchardt'ek autortu zuan Filolojia ez zala naikoa euskaldunen hasierako problemak argitzeko: bide barri hau, ostera, bukaera onetara doa zuzen. Metafisika aldia amaituta, hasi da indarra hartzen metodo berri hau gizon jakitun artean eta bitarte honetan Aranzadi'rekin batu dira beste bi euskaldun zintzo ta jakitun: Eguren ta Barandiaran.

Eguren ta Bengoa'tar Enrike, arabarra, katedratiko zan Oviedo'n. Santimamiñe'ra etorri orduko ere idatzi zuan, 1914'an, eusko abendatsaz liburu bat (21).

Bitturi'tik dator heurrekin alkartzera Barandiaran ta Aierbe'tar Joxe Migel; Eguren'ek lez honek ere Jeoloji irakasteak zerabilzkin apaiz izan orduko.

(20) Azkar gogaituta ere ainbat idazlan argitaldu zituan Migel Unamuno'k euskera inguruan, gehienak gaztetan eta hizkuntza honen aurka. Gehienak Manuel GARCIA BALANCO'k bildu ditu esaniko Tomo VI-an. Salvatore MITXELENA'k («Inurritza») argitu du tema hau bere *Unamuno ta Abendats* liburu sakonean.

(21) *Estudio antropológico del Pueblo Vasco*, 1914.

Biak, bai horixe, lagun egokiak Aranzadi'rentzat. Ba gauda ba Santimamiñe'ren sarreran: halako maixuekin biblioteka guziak baiño berri gehiago emango dizkigu leiza honek, ziur.

Ordutik ona ere beste mailla handi bat jarri dugu illunak argitzeko: 1928'an Hirszfeld polakotarrak zeraman Antropoloji arloro laguntari handi bat: Serolojiak, odolaren gorabeherekin, argi asko egin zuan eusko abendatsaren egia azaltzeko. Eguntan, Iruñako Batzarrean, bilbotar osagille ospetsu Goiti'tar Jose Luisek, tema honi buruz hitzaldi bat egin du.

IV. Bide berriaren agerpenak

Jakin-bide berri hau ez zuan Unamuno'k ulertu amesetan ere orain larogetamar urte. Ezta bere ondoreak ere. Bide berri honetan banatu egin dita Filolojia, Arkeologia, Antropolojia, Paleontolojia, Etnolojia, Serolojia, eta abar, bakoitzak bere indarra, zintzotasunez beterik, artez gure hasierako illuntasunak argitzen, emateko: halan ikusiko dugu egun ederraren egunsentia, euskal kulturaren hasiera ezkutua.

Lehenengo ekarriak izan ditu jakin-bide honek. Aizkora bat pagoan sartzan dan lez, iñoiz burdiña zur bihurtu gabe, halan Euskalerrria ta euskal abendatsa dago beste batzuen artean sartunda. Baiña abendats hau Europa'n bakartuta ere, bere hasiera oraindiño laiño artean ezkutua da. Handik eta hemendik ba da biltza jakitunak ainbat hipotesi egiten, gehienetan batak bestearena ukaturik. Odol neurriaren ondorrekin, Serolojiaren eskutik, ainbat senide billatu dizkiote batzuk euskaldunari; beste batzuentzako (22), erri bakarra da. Laiño artean gabiltza, baiña asko aurreratu dugu.

«Lapides ossaque loquuntur», esan dut lehen. Urtiaga'ko kraneoa eta Isturitze'ko matraill-ezurrak, ziurtasun guztiarekin, Magdalenienese aldian gutxienez jartzen dute gure herria. Neolitiko aldikoak ziran, Santimamiñe'n Lumentxa'n, Atxeta'n, eta

(22) Pierre de JAUREGIBERRI: *Consideraciones acerca de la Raza Vasca* ta beste idazlan batzuek Auñamendiko 24-garren tomoan.

beste leiza batzuetan billatuniko euskotarren ezurrak ere (23). Orain amar milla urteko ezurrak asko topatu dira Euskalerrian, eta heuren neurriak adierazten digute eusko abendatsa orduan ondo moldatuta zegoala. Honela ikusi daikegu Barandiaran'en erabateko lan baten (24). Billaketa hauek eman dizkigute, gairera, aintziñako Euskalerrriaren mugak. Filolojiak ere arlo honetan argitasun handiak eman dizkigu (25) bai euskeraren zabaldekua bai ta paleolitikoko hiztegia agertuaz (26).

Esan dezakegu ba Santimamiñe'n hasita darigula bide berri bat, ta jakin-bide honekin berritasunak ugari izango ditugula. Ta, zorionez, Unamuno'k baiño zerbait gehiago aurkitu dugula bide honetan: harek Mikeldiko jarri bakarra; guk, ordurik ona, beste herri asko. Ta ekin ezkeru, azken onera helduko gera. Bai, ziur.

(23) Luis de HOYOS SAINZ: *El más antiguo cráneo vasco*. Homenaje a D. Julio URQUIJO E YBARRA, tomo II, 129 ta urrengo horrialdeetan.

(24) Telesforo ARANZADI: *Síntesis métricas de cráneos vascos* ta Joxe Migel BARANDIARAN: *Antropología de la Población Vasca*, idazlanak argitaratu ditu Auñamendik bere 5-garren zenbakian.

(25) Ikus: beste batzuen artean Auñamendik argitaldu dituan bi tomoak (13 ta 14, alegia): *Geografía histórica de la Lengua Vasca*.

(26) B. ESTORNES LASA: *Los Vascos*, 285-286 herr. BOSCH GIMPERA: *Arqueología y Lingüística en el Problema de los Orígenes Vascos*. Homenaje a D. José Miguel de Barandiarán, Bizkaiko Diputazioak argitalduta, 98 ta urrengo horrialdeetan

ZENBAKI ZAHARRAK

Asko dira JAKIN-en bilduma osoa nahi dutela-ta, zenbaki zaharren eske idazten digutenak. Ba... agortuak dire aspalditik. Behar bada, izango dire beste asko gure harpidedunen artean, ale atzeratuak zokoratuta dauzkatenak. Hoierei eskatzen diegu, mesedez, aditzera emateko guri, saldu nahi badizkigute. Oraingo, zenbaki hauek erosiko genizkizueke: 1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 14, 15 ta 16-garrenak.

Eskerrik asko aurretiaz.

EUSKALERRIARI

«Berriro Euskalerrira!» Nere biotz barnean kilikili egiten zidan ol-
dozpen onek. Begiak parrez neuzkan. Iru urtez atzerrian bizi ondoren
gurasoak besarkatu, aspaldiko lagunak agurtu, oroipen beteriko mendi-
-ibai maiteak berriz begiztatu, Euskalerraren egoera nere begi-belarriz
azterkatu...

Geneve'ra minuto batez beranduago eldu giñan. Olakorik! Bi mi-
nuto bakarrik genitun Irun'era eramango gindun urrengo trena arrapa-
tzeko. Aduanak ondatu ginduten. Trena galdu ta zai egon bear. Dana
minuto batengatik! Alare laster egokitu zitzaigun beste bat. Eta ordu
batzuk igaro ondoren...

Hendaya'n nago zoraturikan
zabal zabalik begiak...

gomiga

BEGIRA...

*Irun: Lenbiziko zirrarak pixka bat goibeldu nindun. Irun'eko gel-
ditokian konponketan ari ziran. Paperak eta azalak nunai ikusteko ziran.
Ormak margoztu gabe edo erdi eroriak... Etxe batzuen leioak puskatuak...
Nola liteke olako aldea izan muga gañeko ta beko euskaldunen artean...?
Nere etxean alditxo bat egitera nerekin zetorren austriar mutikoari azal-
du nion: «Emen konponketan ari dituk eta baztarrak orregatik zeudek
ain zikiñak».*

*Donostia txukun arkitu genun eta orrek nere azalpena ustela etzala
agertu zidan... Denbora gutxirako, zori txarrez.*

— o —

*Etxea Elgoibar'en dut. Gendeak lanerako duan gogoak arritu nau.
Batzuk diruz bete dira azken urte auetan. Geienak buru auste aundirik
gabe bizi dira.*

*Ortega y Gasset'ek zion gaztelerazko «trabajo» itza «trapelium»-dik
datorrela. Trapelium orrek «zigorra» esan nai du. Bizkaieraz mintzatzen
diran errietan berriz «biarra» deitzen diote. Euskaldun auentzat lana
nai ta naiezko eginkizun bat da, erantzunezko «eginbear» bat.*

Euskalerrri osoan ez dugu arkituko Bilbo'ko «Monumento al Trabajo» bezelako oroitarrik. Oroitarri onek euskal karakterraren mamia agirian jartzen digu. Euskalerrrian nabari dan lanzaletasunak Europa'ko laterrien maillaraiño igoazten gaitu.

EUSKAL JAKINTZA

Euskalerrria atzeratuta dugula sarritan entzun oi dugu. Ori ukatzerik ez dago. Baña azken urte auetan aurrerapen arrigarriak egin ditugu. Utsetik egoera pozgarri batera pasa gera. Utsetik: orain arte ez genun Unibersidaderik Euskalerrri osoan. Erri xumea ez da konturatzen Unibersidadeak erri baten etorkizunerako duan garrantziaz.

Iruña'n eta Bilbo'n ba ditugu bi. Donostia'n eta Gazteiz'en ere Fakultade berriak iriki dituzte.

Baña kultura zabaltze onek gorapillo aundi bat dakar. Kultura ori gatzeleraren bidez datorkigula. Kultura zabaltzea euskal kulturaren ondante dala diote askok. Edo zeatzago: euskeraren ondamena.

An edo emen umeentzat ikastolak irikitzen badira ere, zer da ori erderak artu duan indarraren aldean? Ume batzuek euskeraz ikasten badute ere, zer, bitartean millaka ta millaka batxilleratoan, teknika eskolatan eta Unibersidadeetan erdera utsez baliatzen badira?

Udaro ontan euskaldunekin itz egiterakoan garbi konturatu naiz askok ez dutela ikusten euskeraren egoera negargarria. Ez dira konturatzen euskerak unibersidadeak ez baditula irabazten pot egingo dula. Ba dira «Euskal Jai»-ekin eta folklore pixkatekin berez, landare bat bezela erneko dala uste dutenak.

ORGANIZAZIO EZA

Lan kontuan Europa'ko beste laterrien neurrian bagaude, antolaketan kontuan oso gibelatuta gabiltz. Euskaldunak gai ontan españiar osoak gera. Euskal kultura erakunde-ebak eta improbisazioak ondutzen gaitu geien.

Organizazioak bi gauza eskatzen ditu: jomuga garbi euki eta jomuga edo xede ori irixteko bide egokienak aukeratzea. Euskaltzaleeri jomugak dir dir egiten diela esango nuke: euskera ta euskal kultura zabaldu. Baña bideak aukeratzean burua illundu egiten zaie. Edo samingarriago oraindik: gauzak erdipurdika egiten ditugu.

Euskaldunen akats ta birtute aundiena indibidualismoa dugu. Zenbat buru ainbat aburu. Noiz ikasiko dugu alkar lan egiten...? Edota au ikasten dugu edo gure euskera betiko itzaliko da. Emen bai dugula alemanetatik nun ikasi.

Euskal kultura 20 garren gizaldirako egokitu bear dugu. Egi au, ain agirian izan arren, ez dute guziak ikusten. Gaur egun, esate baterako, abestiak nolako indarra duten guziok dakigu.

Gaurko abestiak. Eta or ari gera gu euskaldunok jo ta ke zortziko-teen txapelketak jartzen. Baña abeslari bakarren txapelketak, gaurko gaztedia euskeraren zaletasunez piztuko luketen abesti xoillen txapelketarik ez dugu inñun ikusi.

Ezinbestez aberatsak eta intelektualak irabazi bear ditugu euskal kulturarako. Bitartean erdaldunak parre egingo dute gure lepotik: «Euskera... arlotekeria, «boronokeria», bertsolarikeria...». Eta gure buruari berea ematen badiogu, arrazoia dutela aitortu bear dugu.

Neskak sarritan ixekatu oi ditugu erderara jotzen dutelako... Baña neskak sarri buru ta senaz guk uste dugun baño askoz azkarragoak dira. Nik beintzat benetan diot: neska banintz eta euskeraren egoera ikusi ezkeru, euskerari utikan egingo niokela bildur naiz.

ZABALKUNDEA

Langilleak gera euskaldunok. Baña propaganda egiteko gutxi balio dugu. Lesaka'ko Rafael Olaetxea'k bein esaten zidan: «Euskaldunak illun-txoriak gera». Euskaldunok ez dugu maite tronpetakeri ta zalapartarik. Gaiñera beste birtute on bat dugu, onenetakoa nere iritziz: besteak

pakean uztea. Propaganda gure izakeraren kontra dijoala esango nuke. Eta batez ere: propaganda egiten ez dugula oraindik ikasi.

Euskal jaietan kritika pixkatekin aztertu ezkerro, erakunde eta zabal-kundearen eza bereala agertzen da. Zergaitik gelditzen dira sarritan antzerkiak ikuslerik gabe? Bein baño geiagotan jakin izan dut euskal kultura arloan ikusgarri au edo ura izan dala eguna igaro ondoren. Eta nere aldamenean bizi ziranak, euskaltzale jatorrak, aiek ere tutik etzekiten.

Aleman, Austria, Suiza'tik ba dugu zer ikusi ta ikasi. Emen ez dute gauza tipiena ere goraberran egiten. Trenak garai garaiez etorri-irtetzen diran bezela, beste erakundeak ere zeatzkiro ematen dute, aurretik ongi oldoztu eta esan bezela.

EUSKAL DEMOKRAZIA

Euskaldunok arto arto jarri oi gera gure demokrazirako sena aita-tuaz. Erdi aroan Europa guzira ere izan bai giñan! Nundik dator-kio euskaldunari sen ori? Karakter aldetik? Zeozer baliteke. Baña karak-terrak baño indar aundiago du sozial giroak, oiturak eta bizi moldeak.

Erdi aroan euskaldunak bakarrik bizi giñan gure errietan. Demo-krazi miragarri bat osatu gendun eta demokrazi orren moldeak demo-kratak izaten erakutsi ziguten.

Baña gizaldi asko dira España'ko beste erriekin batera bizi gerala. Erdi aroatik onera euri asko egin du. Intolerantzia, jasan-eziña bertakotu egin zaigu Euskalerrian.

Ezaugarri bat: euskaldunok ez dakigu gure iritzia pakez ta sosieguz azaltzen. Beren burua euskal jatorrentzat duten askok, kirolaz mintza-tzen asi orduko beren onetik ateratzen dira. Eta politika ikutu ezkerro... ez esan!

Demokratak izateko gure arbasoak zuten onbide bat bearrezkoa dugu: norberak bere burua errespetatzea, bere burua aintzakotzat artzea. Eta

onek ez du arrokeririk edo aundikeririk esan nai, auxe baizik: bere buruari lotsa agertzea, gizonak izatearren bakarrik mailla gorentsu batean jarriak gerala, eta aunditasun onen aurka diran txatxukeri guziak aldera utzi bear ditugula.

Orregatik ez du bere burua errespetatzen eztabaidetan zoroa bezela jartzen danak, bere iritziari indarra emateko edozein zikinkerri ta itz nazkagarri jalkiten ditunak. Eta zoritxarrez orrelakoak gero ta geiago dira Euskalerrian.

Iru urtez kanpoan igaro ondoren jota bezela gelditu nintzan Euskalerrian euskalduneri biraoka (blasfemia) entzun nienean. Eta ori ez bakarrik ni katolikoa naizelako eta biraoka ari ziranak ere. Ba ditut nik emen lagunak Jainkoa ba danik ere ukatzen dutenak. Baña iñoiz ere ez diet biraorik entzun, eta ia iñoiz itz zatarrik. Ori bere burua basatien neurrian jartzea dalako, besterik ez.

Demokraziak besteen iritziak aintzakotzat artzea eskatzen du. Nola onartuko ditugu besteen esanak gure burua zikintzeko lotsarik ez badugu?

España'ko beste erriekin artueman estu estuak izan ditugu. Eta len esan dudan bezela bizi giroak moldatzen ditu erriak. Orregatik, «Euskalerria demokrazirako gerturik al dago?» galdetzen didatenean emen, burua makurtuaz eta penaz beterik erantzuten diet:

«Gerturik al dago España demokrazirako?»

PUNTUALIDADEA

Euskalerrian —España'ko beste alderdietan bezela— denbora gutxi gora bera dijoa. Onek alde batetik humanismoa agertzen du. Izan ere denbora gizonarentzat da eta ez bestelaz. Baña neurritik kanpora joka ezkerro kaltegarri biurtu diteke.

Konturatzen al gera laterri baten ekonomiari trenak, autobusak, gizonak ordurako ez etortzeak egiten dion kaltea? Puntualidad eza onek gaurko euskaldunen eskastasuna erakusten digu. Gauzak gutxi gora bera egiten ditugula, alegia.

Trenak ia egunero denbora ezberdiñetan etortzeko arrazoiak arkitu ditzakete... Baña Azpeiti'tik Elgoibar'eraño datorren autobusa egunero gutxi gora bera ibiltzea nola onartu edo ulertu?

Orrek gure lasaikeria erakusten du... Errexago dalako norberak nai duan orduan joan-etortzea, lan gutxiago emanten dulako paperak lurrera botatzea papertokian lagatzea baño, gauzak «ya vale» esan da aizea artzera joatea atsegingarria dalako.

ALCOHOLA

Udaro ontan euskal idazle batek esaten zidan: «Gure izkuntza ta personalidadea galdu ez bakarrik, gure gorputza ere kaskartzen ari gera euskaldunok. Españi osoan ez da iñun emen bezenbat edaten.»

Euskalerrriaren egoera negargarria aztartzeko «Txikiteo» ta ardo edateari begiratzea baño geiago ez da bear. Txikiteoak salatzen du gaurko euskaldunen lan zaletasuna «Biarra» dala. Morroien «egin biarra». Orrek salatzen du ez dala asmo bikañik gure gazte askoren artean. Ardoa edan eta kirolaz itz egin. Ara emen batzuen bizi-jomuga.

Okerrena auxe da gañera: askok arrotu egiten dirala txikiteoa dala-ta. Europa osoan ez omen da iñun Euskalerrrian bezin ondo bizi. Afrika'ko basatiak ere ori esaten dute, narru utsik dantzan ari diranean.

Udaroan aleman batekin topo egin nun. Alditxo bat zeramakian euskal sendi batean. Sendi orren etxeko jaunak sarritan eramaten zun ardandegietara. Alabearrez ni ere oietako ardandegi baten, negoan alemana ta bere euskal laguna sartu ziranean. Au, ezaguna nuanez, neregana etorri ta ondoan exeri zitzaidan.

Pixka bat alkar mintzatu ondoren galdetu egin nion:

—«Ze, pozik al zegok aleman ori euskalerrrian?»

—«Ez dek ba pozik egongo! Txikiteo au Alemanian ez dagola-ta, zoraturik zegok.»

Atzenik aukera izan nun aleman berarekin bakarrik itz egiteko. Gizon tolesgabea zan eta nere galdera oni:

—«Zer derizkiozu txikiteoari?» —erantzun zidan:

—«Noiz edo noiz egiteko ondo dago. Baiña ezin dut ulertu nola euskaldunak urte osoan ortara edan ezkerro ez diran usteltzen.»

EUSKALDUNAK ETA ABEREA

Ez dut gauzak aunditu egin nai. Alemania'n eta Austria'n ezagutu ditudan famili guzietan alkar sarrera irabazi ondoren beti jalki didate galdera au:

«Zer pentsatzen duzu zezenketaz?» Alemanak abere maitasuna baño aberekeria dute. Bein batean ere aspertu egin nintzan zezenketaren aurka botatzen zizkidaten uste okerretaz eta erantzun nien:

«Begira, España'n zezenak iltzen ditugu, baña alare ez ditugu milloiren bat ume akabatu nazitarrak emen egin zuten bezela.»

Egia da, bai, arazo ontan auek gauzak aunditu egiten dituztela. Baiña guk euskaldunok ezin ditzakegu gure buruak eredutzat jarri. Zezenak dirala edo ez dirala, San Permiñetan egiten diran zorakeriak, moskorkeriak, lotsagabekeriak gure burua lotsatzeko aiñakoak dira...

Emen ere okerrena bera da: euskaldun askok ortaz arrotu egiten dirala. Eta urtero urtero millaka europatar dira, San Permiñetan izan ondoren, Afrika Auñamendian asten dala betiko sinisten dutenak.

Zezenketaren alde egizko arrazoiak atera ditezkeela uste dut. Baña txoriak iltzeko? Emen birigarroak eta zozoak gure leioetan egiten dituzte kabiak. Negoan, alderdi aunitzetan, etxeko balkoietan, parkeetan, kutxatxoak dira gendeak txorieri janaria jarri dezaieten. Inoiz ez dut ikusi mutiko bat txorieri arrika. Zoriak gendeari urreratzen zaizkio, bildurrik gabe...

EUSKALERRIAREN ETORKIZUNA

Orain dirala sei urte lan luze xamar bat egin nuan Euskal karakterraz. Argitaratzeko ere asmoa izan nun, baña astirik ez dut izan. Ikasteari ekin bear... arnasik artu eziñik. Lan ori egi-terakoan Euskalerrriaren etorkizunaz konbenzitu nintzan.

Euskalerrria bi indar auek moldatuko dute: Euskal kultura ta langilleen artuemanak. Euskal kultura oraindik lotan dago. Egiteko bildurgarria izan arren... Baña sarritan pentsa izan dut zenbat eta luzaroago lo egin indar aundiagoarekin esnatzen gerala.

Euskalerrriaren etorkizuna pozgarria da. Gaztediak egin bear bat bear du eta ba du: Euskal kultura eratu, sendatu ta zabaldu. Xede lilluragarria: eskolak, ikastetxeak, unibersidadeak, erri osoa euskal kulturarako irabazi.

Eta langilleen arazoak. Langilleak irabazten dituanak Euskalerrria irabazi du. Izan ere, beste taldeak, intelektualak, aberatsak, eliz gizonak e. a. oieri begira jokatu bear dute. Itxaro dezagun Euskalerrrian, laister, sozial giroa gizontasunezko bide-etan jarriko dala.

Nork kenduko digu itxaropen au...? Gaztek sinisten dugu: sinisten dugu Euskalerrrian guziok gure buruari zu esaten ikasiko dugula, anaiak bezela bizi izaten oituko gerala, edozein zikinkeri baztertuko dugula, langilleeri berea ematen aleginduko gerala, laister edo berandu Euskalerrriko Unibersidade guzietan euskeraz erakutsiko digitela... edo dugula.



Gela txiki ta estu bat. Leiotik at, tellatu zar batzuk. Urruti-xeago, lago urdin-urdin bat, munduko lagorik altuena: Titikaka, alegia. Lagoaren beste aldean, urruti-urrutian, begiak jo ala, Andes mendi altsuak, betiko elurrez zurituak. Kopakabana'n nago. Tokitan, mutillak!... 3.850 ko alturan bizi naiz. Ezta gero txan-txetako gauza! Gora begira jarri bear dituzute begiak euskal-

Agur, Aita Salvatore!...

karmelo iturria

dunok gu urrutian ikustarazteko. Baña ondo bizi gera. Arnas-estuka batzutan, eskallerak laisterka igo ezifik. Birika-auspoak sendoak bear emen... Pozik alare, oso pozik...

Bat-batean, ustegabeko karta jaso det. JAKIN aldizkariaren zuzendariarena ain zuzen. Beñiola, Arantzazu'n nere euskera-

-ikasle izana bera. JAKIN'erako Mitxelena'tar Salvatore zanari buruzko lantxo bat eskatuz idatzi dit. JAKIN aldizkaria!... MITXELENA zana!... Oiek burutapenak eta oroipenak datozkit burura, gogora ta biotzera! Nola ukatu nere lagunik maiteen eta kutunenari buruz eskatzen didatena? Ezin inoiaz ere. Bein da berriz ura aiatuz idatzita ere, ezpaitegu zer-esana agortuko. Alako gizona genun bera. Gizona, pralilea ta apaiza. Ta guretzat bereziki, alako euskalzale jatorra. Gure aldian inor gutxi bezela. Irakurri ditut, jende on batzuk ortik onera bidalita, Artetxe'k, Basarri'k eta Amillaitz'ek «La Voz de España» eta «Zeruko Argia»n idatzi dituzten artikulutxoak. Tajuzkoak, ederrak, maitasun beroz idatziak. Suiza'n argitaratutako «Vida» erdal-orritxoia ere eskuetaratu zait, ara joandakoen boletina alegia, eztaikit nork bialduta. Danak goratzen eta aupatzen dute gure Mitxelena zana. Ez bear aña alare... Asmatuko al det nik zeozer esaten? Zaila zait benetan. Ain lagunak giñan, ain sakkonkiro ezagutzen eta maitatzen genun elkar, ain bat giñan ainbeste gauzetan, gure pentsaeratan, gure maitasunetan... Bat-batean galdu degula pentsatze utsak, malkoak ixuriazten dizkit. Barkatu...

Barka-eske asi bear det derrior. Aita Salvatore zanari buruz nere oroipenak paperean jartzean, «ni ta nere gauzak» bear baño geiago aiatatu bear bai-ditut. Ezin det bestela idatzi. Ez nuke ezer asmatuko. Barka, bada, arren! Gauzak burura datozkidan bezelaxe esango ditut. Ezer orraztu ta txukundu gabe. JAKIN aldizkarirako idazten ari naizela konturatzen naiz. Ezta gauza makala alako aldizkari goitar eta mardulean idaztea. Ez nun beñere uste aldizkari ontan inoiz idatzi bear nuanik. JAKIN aldizkaria! Amar urte betetzen omen ditu aurtan. Urte-mordoska polita da alako aldizkari batentzat. Nere zorionik beroenak bere egilleai. Izan ziranai eta diranai. Ondo gogoan ditut aurreneko aleak atera ziraneko denbora alek. Orduin lanean ziarduenak ba dakite nik eman nien laguntzatxoaren berri. Orain urrutit nago ezertanako. Jasotzen ditut alare JAKIN'en zenbakiak noizean bein. Eta pozik irakurtzen. Eztaikit nork bidalita etortzen diran. Eskerrak berari emendik. Oar txiki bat ematea uzten al didazute gazteok? Zuen aldizkariaren euskera-modua berdin xamarra iruditzen zait, «estereotipo»n ateratakoa bailitz, personalidaderik gabea. Bat irakurri, bestea irakurri: ia berdin. Len etzan ala, nere ustez. Ta barkatu nere ausarditasuna, ba dakit euskera-kontuan ni baño maixuagoak zeratela-ta...

Eguberritan eta bat-batean eldu zitzaigun berria: «Aita Salvatore il da». Orrelaxe: bat-batean eta besterik gabe. Otz, illun eta ustegabeko. Zeaztasunik batera gabe. Gaixo zegonik ere ez genekin. Geroztik jakin ditugu zeaztasunik asko. Baita Donostian, Zarautzen eta Arantzazun egin zaizkion illetaen berri ere. Ederrak benetan danak... Gogorra izan zan neretzat berria. Nere lagunik maiteena ta kutunena galduan. Nork pentsa orain lau urte Zarautzen alkarri agurra eman genionean berriz alkar ikusi bear ez genula? Txikitatik giñan ezagunak. Erri batekoak giñan eta apaiz-ikasteetan aurrera ginjoazela, gero ta batuago ta alkartuago bizi giñan. Geroztik alkarrengandik urruti bizi izan gera biok. Baño alare bat eginda. Ameriketara etorri zanean egin zidan agurra ta bota zidan erronka bere «Arraun ta mets» liburuaren itzaurrean irakurri zenezakete. Bera itzultzean, neu ez ote nintzan Ameriketara etorriko. Ta alaxe gertatu. Ura itzuli ta ni etorri. Juxtu-juxtu agurtu nun nere errian. Alkarrizketa goxoak izan genitun azkenengoak...

karmelo iturria

Gazterik erne zitzaion Aita Salvatore'ri euskerarenganako maitasuna. Ta olerkietarako gogoia. Arantzazuko Kolejioan ikasle zala piztu ere. Amairu-amalau urte zitualarik. Arrezkeroztik ekingo zion etengabe euskera lantzeari ta bertsoak eta olerkiak asmatzeari. Euskal idazlerik gorenengo eta euskal olerkaririk onenetako izatea allatzeraño noski. Etzetik zetorkion azia. Bere aitonak oso poliki ateratzen omen zitun bertso-berriak, raiz-ta erriz-erri ta plazaz-plaza ibillia ez izan. Bere aita

zana ere oso bertso-zalea zan. «Etxebeltz» Zarauz'ko baserrian maiz entzuten ziran gure antziñako bertsorik ederrenen doñuak eta itzak. Xalbatore'k txikitatik ikasi zitun eta bai ondo buruan gorde ere. Gazte zala, oso atsegin zitzaion bertsoak barra-barra kantatzea. Abots eder eta zolia zun, ta musikarako belarri oso ona, gutrik bezelakoa. Bertso-zalea ta musika-zalea zan erabat, eta bietan naiko ikasia ta eskolatua. Eskudero maixu ta musikalari aundiak ba daki ortaz zerbait. Arantzazun Teoloji-ikasle zegola, bertso-berrien doñu ta asieraitzak idazti batean jartzen asi zan, bertso bakoitza bere neurrian, zortziko aundiak eta txikiak, amar edo zortzi edo zazpi silabazkoak illeran beren doñu bereziekin. Kuadernu ura neronek daukat gordeta ementxe, berberak emanda, pitxirik eta edergaillurik maiteen bezela. Berak Zarautzen nobizio zala ateratako bertsoak ere ba dira bertan.

Prantziskotar abitua jantzi baño len il zitzaion bere ama zana. Oso maitea zun berak. Utsune ederra senti izan zun bere bizitza osoan. Bereala atera zun olerki bat bere ama zanaren oroiz. Orain bere il-oroi-garriz ateratako estanpan azaltzen diran itzekin asten zan. «Lurrean lore ziñan», alegia. Gero bere «Ogei kanta»n Arantzazuko Amari zuzendu bazion ere, bere ama zanaren oroiz ateratakoa da olerkia; zerbait aldatua, ori bai. Bere bizitzak eta bere sentierak ematen zion motiburik eta temarik naikoa olerkiak egiteko. Bizitza benetan «bizi» egiten zun Mitxelena'k gaztetandik. Sutsua zan, biotz berokoa, maitasun sendokoa, biotzondo aundikoa. Ta lagunetikoa iñolaz ere. Ba zekin, ondotoxo jakin ere, lagunak egiten eta besteen barrura sartzen. Jendartekoa ta gizartekoa zan oso. Ori neuk baño areago aitortuko dutenak ba dira or makiña bat. «Gizona» maite zun Salbatore'k, gizona

ezagutu nai zun sustraitik eta sakonki. Orregatik gizona ezagutzera ta maitatzera eramaten gaituzten gaiak atsegin zitzaizkion geienik ikasle zala: Soziologia, Psikologia ta abar... Orrela eldu zan gero apaiz izatean, gizona maita izanik, lagun urkoarenganako maitasunak eraginda, Ameriketan, Suizan eta ainbat on egitera.

Utzi eidazute bere bizitzako bizpairu gertaera gogoratzen. Gaztetan biurria zan oso, ezin-egona, kezkatia. Geroagokoan ere, bein baño geiagotan azalduko zitzaion eta agirian jarri bere izaera ori. Beñola, biurrikeriren bat egiña zun. Etzan gauza aundirik izango. Ta orduntxe egokitu zitzaion bere arreba monjaren Profesa eguna. Iru arreba ditu monja klarisak. Zarrena zan ordun Profesa egitekoa. Oso maitea zun Salbatore'k, bere urrenengoa bai-zan familian. Nagusiak etzioten Zarautzera joaten utzi. Zearo minduta gelditu zan. Ta... olerkigintzari ekin zion. Ta bere arrebatxo monjari zuzendutako olerki ederra asmatu zun bereala. "Arraunta amets" bere liburuan deuzute, zertxobait aldatua. Antonio bere anai zanaren Mezaberri-tarako ere bertso ederrak ate-

ra zitun, berak eta bere anai zarrenak kantatzekoak. Liburu ortantxe azaltzen dira. Beste bein, gau beteko trenean Madrid'era ginjoazela (Arantzazuko korua zijoan Madrid'era abestera) bertsoak asmatzeari ekin genion. Beraxe jardun zan geien bertso berriak atera ta kanta, nekatu gabe. Saiatu izan bazan, etzan bertsolari makala irtengo.

Orduko Arantzazuko ikasle euskalzaleok talde bat osatu genduan: BAI taldea, alegia; Lizardi zanaren "Itz lauz" liburuko artikulu batzuen ideiai jarraituz. BAI izeneko errebitatxoa ateratzen gendun euskeraz, makinaz kopiatuta. Len-dik LORAMENDI izeneko beste bat aterea zuten urtetan Mitxelena'k eta bere aurrekoak. Eta geroxeago baita IZARÑO izeneko bat ere. Etzan errexa ordun gauza oietan ekitea. BAI

taldekoak Mitxelena genun gure gidari ta auspo-emalle. Bera zan gure maixu ta nagusi euskera kontuan. Gu baño askoz gorago ikusten genun bera, bai olerkigintzan, bai itz lauz idaztean.

Gauza politak egin zitun BAI taldeak. Beñola, antzerki saio eder bat ere bai "Arantzazu"ri buruz. 1943'garren urtean zan. Arantzazuko Ama Gipuzkoako Zaindari izendatu izan zaneko 25 urte-urrena ospatzen genun. Ta antzerki-saio bat egitea otu zitzaigun. Bera izan genun ordun ere gure gidari, bere itz lauzko lanekin, bere olerkiekin, bere erti-lan ederrekin. Asmamen eta irudimen bizikoa zan. Eta buru argia zun oso. Ikas-lanetan beti aurrenetakoa bera. Orduntxe erne zitzaion ARANTZAZU poema egiteko gogoa. Eta lanari ekin zion gogotik. Jardun da jardun, lan da lan, Meza-berria ematerako ia bukatuak zitun bere poema zoragarriaren aurrenengo bi atalak. Iru-garrena geroago, Donostian bizi zala, egingo zun. BIZI NAI izenekoa, alegia; oraindik

argitara gabekoa (noizpait ikusiko al degu) ta geroago "Euzko Gogoa" aldizkari ederrean saritua izana.

Etzan bere lanetan nolani asetzen zan oietakoa. Etziztaion gauzak erdipurdika egitea ta uztea gustatzen. Bein da berriz ekingo zion bere olerkiak eta lanak orraztu ta obetzeari. Errex sortzen zitzaizkion olerkiak, irudimen bizikoa zanez, baño alare etzan orrekin asetzen. Nerekin detan idaztitan ageri da. Bere letra txukune-kin idatziak ditu olerkiak, baña goian eta beian, alboan, eskubian eta ezkerrean, lumaz edo lapitzez eztakit zenbat orrazte ta txukuntze ageri diran. Orrelakoa zan. Ase-eziñekoa, bere gauzakin kontentagaitza, erdian geratu gabe beti gorago jotzen zuana. ta orrela allatu zan sermolari bikain, olerkari fin eta euskal idazle gorengo izatera. Bein lanean asten zanean, gogor eta sutu eta bere indar guziz ekingo zion bere arloari. Bukatzerano. Donostian zala, BIZI NAI ez ezik, bere "Ogei Kanta Arantzazuko" ta "Arran ta

amets" liburuak ere prestatu zitun. Gure errian ain sartuak diran kanta goxoak asmatu zitun: "Zuk zer dezu", "Zure errukizko" ta abar. "Arraun ta amets" lendik ateratako olerkiakin osatua dago. Bere lanak argitaratzean ere, kontentagaitza zan. Txukun eta eder azaltzea gustatzen zitzaion. Bera Ameriketara etortzean, nere esku utzi zun azken aitaturako bi liburu oiek argitaratzea. Ikusi zitunean etzan ain atsegin. Paper on, azal eder, letra txukun, dana egoki zun berak gogoko. Bere itz lauzko liburu "Ama Semeak Arantzazuko Kondairan" idazteko Zarautzera joan zan eta bi illabetean bukatu zun lana.

Mezaberria emanda Donostira joan zanean asi zan olerkigintzan sariak irabazten. "Educación y Descanso" zalako bazkunak eratutako txapelketa aietan ia urtero irabazten zitun sariak. Bat baño geiago ere bai batzutan gai ezberdientan. Geiegi ere ba zala esaten genion. Baña bigarren saria irabazi zuneko batean etzan

giro berarekin. "Ama" zun gaia norgeiagokak eta Lekuona apaiz gazteak eraman zun lenengo saria. Beti aurrena izatea eta beti gorago ta aurrerago jotzea zan Mitxelena'ren lema. Orrelaxe egiten bait-dira gizon aundiak...

Ameriketara etorri zanean, batek baño geiagok pentsa izan zuten euskerarako galdua genula. Baña bai oker atera beren ustea. Alako batean, berak bialdutako ta makinaz kopiatutako idazti luze bat jaso nun Arantzazun nengola. "Unamuno ta Abendats" liburu sakon eta ederra izango zana zan idazti ura. Gogoz irakurri gendun bere lagunok. Andik urte batzutara beste idazti bat eskuetara zitzaidan monjatxo baten bidez. Berak bialdutako "Erri bat gurutzbidean" idaztia zan. Ederra benetan drama ura! Eskudero maixuak drama orri musika jartzea zan bere irrikarik biziena. Ameriketatik itzuli zanean joan gintzaion Eskudero'ri bere etxera. Azaldu zion Mitxelena'k Eskudero'ri berak zeukan itz-jario biziakin dramaren muiña. Zoratuta

SALBATORE MITXELENA

- 1919: ilbeltzak 18, jaio. Zarautz'en. Iñurritza auzoko Etxebeltz'ean.
- 1943: abenduak 28, apaiz. Arantzazu'n.
- 1945'tik 1954'ra: Donostia'n, sermolaritzan.
- 1954: Montevideo'ra. Hurrengo, Asuncion'era eta Cuba'ra. Azkenik, sermolari bezala Ameriketara zear.
- 1963: Suiza'ra, emigranteen kappellau.
- 1965: abenduak 20, Suiza'ko Chauv-de-Fonds'en hil.
- ARGITARATU ZITUAN:
- 1949: «Arantzazu, Euskal Sinismenaren Poema».
- 1951: «Ama-Semeak Arantzazuko Kondairan».
- 1952 aldera: «Ogei Kanta Arantzazuko».
- 1956: «Arraun ta Amets» (Kuliska-Sorta).
- 1956: «Unamuno ta Abendats». Urgazle zan.
- Sari asko irabazi zuan bere olerkiekin.

gelditu zan Eskudero ta opera moduzko poema zoragarri bat egin zitekiela esan zigun. Eskudero, lagun maite: noizpait ikusi bear ote degu zure lan

ori? Ba dakizu zure ta nere lagun maite Mitxelena'ren gogo betekoa izango zana... Ekin zaiozu alako batean... Ni onera etorrita gero, "CONFIXUS" izenarekin zerbait aldatua bialdu zidan drama. Sakona ta zoragarria! Orain Caracas'en bizi dan Ibinagabeitia'tar Andima'ren eskuetan egon bear du, neronek emendik bialduta. Beste lan batzuk ere ba zitun Mitxelena'k gogoan eta asmoan. Beste drama bat Ona ta Gaitza gai arturik eta Euskalerraren gaurko egoerari egokituta. "Bidarte: bide bi tarte" edo izango zukean titulua drama orrek. Gaia pentsatua ta sakonduxea zun karta batean esaten zidanez. Nobela bat ere egitekoa ote zan-edo. Ta beste lanak ere asmoan zitun. Euskalerrria ta euskera zitun bere maitemiñak eta, naiz Ameriketan edo Suizan egon, aiengan pentsatzen egongo zan beti.

Danetan eta beti *benetakoa* izatea zun gogokoen. Bere praille ta apaiz bizitzan, pulpitoan edo eguneroko bizimodu lau eta arruntean *benetakoa* izatea. Etzan iñolaz ere azal-

-eder eta barne-uts oietakoa. Eztzutun maite Kristok beiñola aitatutak, obi-zuri oietakoak. Ta benetako izate orrek kezkatzen zun geiena. Batez ere pulpitoan iragartzen eta erakusten zuana bere bizitzan betetzeak. Kezkati zala esan det lenago. Danetan zan ala, baña batez ere barruko gauzetan, barne-bizitzan, sinismeneko kontuetan, apaiz lanetan. Sinismenak lanak ematen zizkion. Artetxe'k orrelako zerbait aiatu du bere artikuluan. Baña bere ezbai ta dudak alde batera, sinismen sendoa izan zun beti. Bere *benetakotasun* edo benetakoa izan naiak ekartzen zizkion askotan ezbaiak eta zirimolak. Baña naimen aundikoa zanez, errex menderatzen zitun. Asko ikasia ta irakurria zan, bai literatura gaietan, bai oraingo eliz-gaietan. Edozein izkuntzetako gaurko olerkariak eta idazleak gogoko zitun. Ba zekin nundik nora zebillen gaurko literatura, itz lauz eta olerkiz. Ta eliz-gaietan orain nodan dauden teologoak ezagutzen zitun... Buru argia, irudimen bizia ta

biotzondo sakona zitun. Ta odol berokoa zan. Eztabaidetan biurria zan oso. Etzan errex menderatzen. Iztuna beste aldetik, gai bereziak zitun eztabaidan jarduteko. Baña errarrik gabea, biotz onekoa zearo, maitasunari, lagunarteari ta adiskidetasunari emana.

Gizon aundia galdu du Euskalerriak. Olerkari gorenengoa. Bere "Arantzazu" poema zoragarria, bere olerki sari-tuak, bere "BIZI NAI", "Ogei kanta" ta "Arraun ta Amets" liburuak, eta bere "Gurutzbidea" lekuko. Etzan orain modan dauden eta ainbat aupa-tzen dituzten olerkari illun eta ulerkaitz oietakoa (barka, gazteok!). Naiz-ta bide berrietatik abiatu, ba zekin erriarengana jotzen eta errikoia izaten. Itz lauzko idazle sakon eta fiña. Erderaz "estilista" esango genuken oietakoa. Zeiñen txairo, txukun eta egoki erabiltzen duan euskera bere "Ama Se-meak" eta "Unamuno ta Abendats" liburuetan. Zearo bere mende jarria zun izkera. Bere-berea zun idaztankera, Mitxelena'rena ez beste iñorena.

Etzan oraingo aldizkarietan maiz ikusten diran naturaltasunik eta personaltasunik gabeko idazle oietakoa (barka, berriz ere, gazteok!). Makina batetik lukainkak bezela ateratakoak ematen duten idazle oietakoa... Ondo esan du Amillaiz'ek prosistarik ederrena Mitxelena genuala aitortuz. Sermolari bikaiña. Euskalerriko pulpitoak lekuko. Ta Euskalerrikoak ez ezik, Ameriketako lurralde askotakoak ere bai. Kuban, Montebideon, Bolibian, San Salvador'en, Kolonbian eta beste lekutako pulpitoetan ibillia zan. Eta beti ta nunai erriaren erraietan barrura sartzen ba zekin, erriaren biotzondoa ikuitzen maixua zan. Oraindik badira Bolibia ontako La Paz urian bere sermoi eder eta sakonak gogoan dituztenak. Eta Mixio ura 1957'garrenean eman zuten... Gogoratzen al dezute **TIME** Norteamerikako aldizkari eza-

gun eta famatuan azaldu zan bere erretratua? Arpegiak sua zeriola, giarra betekoa zan bere sermoietan. Sutsu ta beroa... Gizonekikoa. Gizona errotik maite zuna. Gizartekoa ta lagunartekoa, adiskidetasunari emana. Beti on egiteko ta lagun urkoari laguntzeko prest zegona. Ameriketara Suizan eta nunai bere ibillerak eta on-egiñak testigu...

Gizon aundia galdu du benetan Euskalerriak. Eta nik nere lagunik maiteen eta kulturen. Nork betekoa ote digu berak utzi digun utsunea?... Aita Salvatore maite: Agur betiko! Zaude Jaunagan. Ta or goitik emen beian gelditzen geran zure lagunaz, zure ta gure Euskalerriaz oroi ta otoi...

Asi bezela, barka-eske bukatu bear det. Barka, arren, berriro ere «ni ta ni» geiegi erabili ditudalako. Bafin ezin izan det besterik asmatu eta bestela itzegin. Agur bero bat danoi urrutiko lurralde auetatik.

«Orixe» ren poemari buruz,

Labayen jaunari karta idikia

juan san martin

Adiskide eta euskaltzainkide:

“Orixe” omenaldi liburuaren 22-garren orrialdean eskatzen didazun bezela, nere «gaizki esandakoak» zuzentzera natorkizu —ta bide batez zure gaizki ulertuak eta liburu ori eskuratzen dutenek gaizki ulertu ditzazkeanak ere bai—. Izan ere, liburu ori ez zan tokirik egokiena auzi ori sartzeko, bi errazoi gaitik: lehenengo, liburua osotu duten idazleeri faltatzea dalako auzi-bide bat jartzea; ta, bigarrenago, or sartzeko eskubiderik izan ez dugun Euskaltzaindikoak astintzea ez dalako ongi. Batez ere Euskaltzaindiaren ardurapea eskatu ondorean. Baldin, gauza guziak zuk eskatzen duzun babesa eta neurria bear badute.

Iru urteren buruan izan duzu denbora edozein euskal al-dizkaritan ortaz zerbait esateko.

Beraz, Orixe-ren poema nagusiarekiko iritzietan zurekin bat ez banendorrren ere, oraingoz ixiltzea naiagoko nuen oho-rezko bilduma orren eta bertan izenpetzen duten adiskideen errespeturako. Orregaitik konprenitu bear zenuke oraingoz

auzi ori zergaitik ez dudan nai ikutu. Laffite-k ongi dion bezala: «bertze aldi batez, buru-berokeriak utzirik, norbaitek edo hobeki norbaitzuek odol hotzean bereziko bide dute haren obran, nun den Orizetasuna eta nun Orizekeria.» (Herria, 302 zenbakia —lehen plana— Abenduaren 16-koa. 1965).

Ezer baiño lehen, zure nahasketa argi ipini ditzadan: 22-gn. orrialdean zuk aipatzen dituzun nere itz oiek, ez dira zuk diozun tokian jarriak. Zeren billa? humorezko artikulu aretan ez nuan nik ezertarako aipatzen Euskaldunak poema. Nunbait zerorrek, naigabez edo, deiak tokiz aldatu dituzu, batarena bestean jarritz. Gaiñera, komillaz jarriaz, itz oiek beren girotik atera dituzu, zeure beste erabateko esan naira biurtuaz. Ez dakit zelan ez duzun izan ori baiño kontu geiago orrelako gauza batean.

Oraindik konprenitu ez dudana da, zerek zirikatu zaituan nere izena bi aldiz agotan artzeko, ta bietariko batean, gaiñera, Euskaldunak poemarekin zer ikusirik gabekoa izanik. Ta, nere izenen aurrekaldean, «Orixe»ri buruz esan diran «Poesiarik gabeko poema»; «Euskaldunak s... usai dariola («olatu berriko» poetatxo edo); ta «basurde» ez izena eman ziela, aipatzen dituzu baiña beren izenak agertu gabe. Zergaitik ordea? Zergaitik ez dut nik izan aiek aiña begiramendu? Ta gaiñera, iru orriren barnean guziak sartzer, nere izena bi aldiz aipatuaz, normaik esango luke beste aiek ere neri erantsiak direla. Ondo dago besteeri kontuz ibiltzeko esatea. Baiña kontuz norpera ere. Ez baita erreza alkarren ondorean orrenbeste trunpatze egitea.

Nijoan, gaiñerakoak baztertuz, neri dagokidan partean erantzutera:

21gn. or. diozu: "Yakinzale zeatzegiak ez dute Poesia-begiz ikusten, bere teknikaz baizik; eta, jakiña, ezin Olerkirik geiegi maite."

Ni banaiz jakinzale, eskertzen zaitut iritzi orregaitik, baiña ez dut nere burua jakituntzat. Gaiñerakoan ez nago zurekin. Jakinzale izan diteke olerkari, teknika alde batera utziaz, olerki muñaren sentipenik sakonenean. Zure itzak gezurtatzen dituzte goimaillako olerkarien izen auk: George William Russell, T. S. Eliot, Saint John Perse, A. Machado, Unamuno, P. Salinas eta abar. Jakinzale zeatzik izan bada, oiek izan dira olerkariak izatetik aparte.

Ala ere, orrera arte esaten duzunak ez du orrenbeste garrantzi. Baiña ortik oratzen diozu beste esan nai oni: "Gure arri zaar eta ezur-biltzaille batzuek gaitz ortaz kutsutu zaizkigu, ta gai ortan jakintsu dugun...", diozu ondorean. Berriz ere jakinza ta olerkaritza elkarren kontra baleude bezala, ta orrek eskubidea emango balu bezala nik literaturan sarbiderik ez izateko.

Alde batetik, ni ez nauzu, arestian esan dizudan bezala, jakintsua, nere zoritxarrerako. Orretan jakintsua, gure artean, Barandiaran, Altuna, Basabe, Apellaniz eta abar dituzu. Eta, Teilhard de Chardin ere bai —eta ez da erreza igartzen Teilhard de Chardin-en barnean nor dan gailen: arkeologoa ala olerkaria—. Beste agiririk bear bazenuke ere, ara beste izen bat arkeologo bezala eta poeta bezala munduan oso ezaguna dena: William Butler Yeats. Beraz, ez diot zentzu geiegirik arkitzen zure esan naiari.

Eta, gauzak bere neurritik zer bait ateratzea bada ere, zerron neurrira etortzeko asmurik gabe, geiago esango nizuke: irakurri zazu Oteiza-ren *Quousque tandem...!*; eta konturatuko zera batzuentzat "gure arri zaar" oiek zer ikusia dutela poesia-rekin. Eta olerkari bezala ukatu eziña eta izen aundia duan Gabriel Celaya berak, *Baladas y decires vascos*, bere azken liburuan, "El silencio vasco" izeneko poesia bat dakar "cromlechs" eta gure izakereri buruz egiña. Beraz, ta au, bada ez bada esa-

ten dizut, ez duela ezer txarrik “arri zaar eta ezur-biltzaille” izateak, eta izatekoan ere bai gauzonik.

“Olerkariak gure baserriak loraz beterik ikusten dituztela: eta mendizaleak (ez “mendigoizaleak”) ikusten dugu egia: lora gutxi ta zimaurreta eta kirats asko”, jartzen duzu. Ori esaten banuan ere, ez *Euskaldunak*-rengaitik, baizik gure olerkari erromantikuegaitik. Ta, zuk nahastatu nauzu or. Ez da ez dioa baserritarren kontra ere. Ez! Ez nago baserritarren kontra; baizik alde. Kalean bizi diran abertzale olerkari erromantiku asko dira baserria idealizatuaz eta aientzat zijoan ziria, ta ez baserritarrentzat, ez da gutxiagorik ere. Bestela nere gurasoen aurka joatea izango zan. Neronek ere baserria oso maite dut. Maite ditudalako ikusten ditut zimaurreta eta kirats artean zokoraturik. Bestela joan zaitez Matxinbentara. Ango gizarajoak alorretan piñua sartu ta kalera peontzara etorri ezin direla ikusiko duzu, lurra berenak ez direlako. Piñuak sartzen dizkie bai, laboraritzako lurra gutxiteko, inorenzako piñuekin. Ta, ori ez da Andalucia-n gertatzen dana; ez! Baizik Gipuzkoaren biotzean. Zimaurreta, kiratsa ta mixeria gorria ikusi nai baduzu joan zaitez bertara. Edo, bestela, irakurri “Zeruko Argia”, 42-gn. zenbakia, 1963-koa, abenduaren 15-ekoa. An eta beste zenbait tokitan, *Euskalerritik* atera gabe arkituko duzu gertakari bera. Ta ori salatu bear luteke gure folklore olerkariak, baserriak benetan maite ba dituzte. Gu, bapo! bizi gera baserrieri kanpokaldetik begira. Barrutik dioa prozezioa. Baiña, bada ez bada ere, berriz dizkizut, orrekin ez nuela *Euskaldunak* ezerzan pasatu orrelakorik ori idatzi nuenean.

Baserriaren bizimaiñak sendotzen eta goratzen kontatu nerekin. Baiña ez itzez, baizik laguntzaz: justiziaz. Gutxienez kaletarrak aiña eskubide izan daiten.

22-gn. orrialdean diozun “Paketsuak, apalak, motelak eta totelak” agertzen dirala *Euskaldunakoak*. Ori bai esan nuen

Euskaldunak gaitik. Neregandik, zuretzako pekatu bakarra ori izan bear zan; ez bestea.

Aurretiko iru itzak kostatuko zaizu desegitea *Euskaldunak* ciñarri artzen baduzu. *Euskadunak* irakurri duten guziak oartuko ziren ortaz. "Totelak", puntua beteaz jarri nuen, poemaren puntu pobreen bezala, eta aitortzen dizut ori ipini bearrik ez nuela. Beraz, puntua joan zitzaidan aruntzago. Baiña *Euskaldunak* irakurri dutenak konturatuko ziran noski, bertako gizon- ezko eta emakumezkoak naikoa totel direla.

Euskaldunak aspergarria da. Nik ezagutzen ditudan euskeltzaleeri (euskeltzalea ez danik ez bai dut ezagutzen poema ori irakurri duanik), poeman ezarriak dauden erri-kantak gustatu zaizkie. Erri-kantak eta Elizanburu, Arrese Beitia, Lekuona eta orrelakoen poesi atalak (ori bai, "Orixe" k bere zorrorako ongi aukeratuak). Poemaren astuntasunean arnasa lasaitzen dute tarteka dituan kanta oiek. Ezin esan erri-kanta oiek poesia- rik ez duenik.

Ukatuko ez dizudana da, ta onetan erdiz zurekin bat nator- kizu: "Orain bi milla urte Virjilio'k egindakoa, gure "Orixe" aztu-eziñak, "Euskaldunak" poema nagusian berritu ta osatu du". Orixe bai, "Orixe" orain bi milla urtekoa genduana. Ori da esatea ausartu ez nintzana. Ori ain zuzen ere bere gurari ta egintza, orain bimilla urtekoa. Baiña alde batetik eziñezkoa. Virjilio-ren *Bukolikak* eta *Georgikak* beste zantzo bat ekarren munduari; bigarrena Augustori jendea nekazaritzara igortzeko asmuz egiña. Lehenenak ere erromatar gerratieri irakasten zien lanak jasotzen duala mundua eta ez gerrak. Orregaitik dira *Eneidak* baiño askozaz gorago jartzen diranak. Baiña, oiek ahal ziran "Orixe" ren errazoiak? Ez dut uste. "Orixe" ren errazoi bakarra izan zan euskaldunori poema nagusi bat egitea. Eta ez zan konturatu, bestelako erriak, bestelako errazoiak bultzatuta egin zutela. Ori jakin izan balu, ta bere burua olerkaritzat eduki, Walt Whitman-i jarraituko zion eta ez Virjiliori.

Orregaitik, "Orixe"ri ez diot ukatzen euskera asko ekianik, itzultzaile ona ez zanik eta abar. Are geiago, *Olerti* aldizkarian argitaratu nuen *Olerti muiñari buruzko solasa* lanean (1965, 3/14 or. argiratu. Larrean 1964-gn. urteko olerki-jaiari irakurritakoa) jartzen nuena irakurri dutenak jakingo dute "Orixe"-ren poesi-mistikoa aintzat artzeaz gaiñera, goraltzen nuela. Naiz eta emen ere aspaldi joandako ideeri lotu, adimen kezkatia azaltzen bai du.

"Orixe" ezagutu nuanean, Nemesio Etxaniz-en bidez eta bera lekuko zala, agurtu ta laister, bat-batean esan nion aurrez-aurre, *Euskaldunak* ez zitzaidala gogoko, baiña bai *Barne-muinetan*. Bere erantzuna au izan zan: "Askok esan didate ori bedori. Baiña askoz landuagoa da *Euskaldunak*". Orduan, erantzunez esan nion: "Ori ez dizut ukatzen, *Euskaldunak* landuagoa izango da, baiña *Barne-muinetan* jarri zenituan zure kezka ta barne gogo guziak, ta bertan dituzu zure pentsameneko gudu nagusiak. Ta or dago gizona bere pentsaeraz ta sentieraz". Ez zuan jakin erantzun ziur bat ematen. Au ondo gogoratzen naiz; nere buruan milla aldiz erabilitako pentsamendua zalako. Baiña, "Orixe"k alkarrizketa aretan, era guzietarako literatura, bakoitzak aukeratu zezan, egin duan gizon baten idurira mintzo zan. Are geiago, berak ere segurantzirik gabe, zertan asertatu zuan eta zertan ez.

Ta, nik teknikaz ikusi poesia? Ez jauna. Poesia teknikaz "Orixe" berak ikusten zuan, ez nik. *Euskaldunak* poema, arkitektu batek etxe jasotzen duan bezala egiña da, itzak, lerroak eta bertsuak pillatuz, bertsz-bertszu bere gorputza muntatuz; silabak eta bertsuak ondo kontatuaz, puntuetan ere bere alegiña emanaz. Geroago ta geiago desbaliatzen dijoan Fernando de Herrera-k bezala. Bai aspergarria lan ori. Kalkulatua, otza, biotzik gabea: "Poesia gabeko poema". Gaiñera, poema bezala, bere mendearen giroko positibismoa falta zaio. Positibismoa,

Salbatore Mitxelena-ren *Bizi nai* poema bikaiñak duana (ikusi "Euzko-gogoa", 1955'go. orrilla-lotazilla, 66-75 orrialdeak).

Nornaik ikusi ditzakeana da an sartu dituan erri-kantak eta iñoren olerkiak —esan dudan bezala— dirala onenak, bizi-garrienak. Bai moldez eta bai izpirazioz obeto tajutuak dirala. Orregaitik, gaur, zer luke txarrik esango banuke Mikel Lasa-ren poematxo bat naiago dudala "Orixe"ren atalik onena baiño?

Ta ori pentsatuarren, "Orixe"ren lanari ez deritxot alperri-kakoa, ez eta gutxiagorik ere. Beti izango zaigu jakingarri, bai euskeraren aldetik eta bai etnografiaren aldetik. Ori ezin uka.

"Orixe"k uste zuan (ta "Orixe"k bezala beste askok) derrigorezkoa genuela poema nagusi bat, gure literaturaren aberastasunerako. Konturatzeke munduan diran poema nagusiak ez dirala asmu orrekin egiñak. Eldu ziranak, beren mendeko giroaren eragiñez elduak dirala. Baiña, gaur, beste denbora batzuek dira, ta rusoak eta amerikanoak literatura aurreratua ta aberatsa dutela iñoiz poema nagusirik izan gabe. Aien poema denen artean egiña da, geroan betiko balore istoriku bat izango duena, Homero, Virjilio, Dante, Cervantes edo Shakespeare-nak bezelaxe. "Orixe"-renak nekez izango duen balorea.

Mende onetako literaturaren tajuratik urruti ibili zan "Orixe". Gure errian aspaldiko mendeetan loratu zen nekazaritzaren garaikoa. Ta ordurako ere idealizazio faltsuz beterik. Zergaitik, gure errian ere izan bai dira lapurrak, erailleak, gaizkilleak eta gaiñerako giza-txar mota guziak (gure ustez beste erri batzuetan baiño gutxiago izan ba dira ere), baiña "Orixe-k bere poeman, bere denborako Euskarriko beste zenbait bizi-bide asko ta garrantzitsuri bezala, ez dizkie tokirik eman. Errealitate gutxiko ames erromantikoak indar asko bai zuen bere gain.

Jakitzekoa izango litzake, beste izkuntza batera itzulita, erbestekoen aburua.

Zure lanean aipatzen dituzun errazoiegandik aparte, bestelako irizpiderik baduzu *Euskaldunak*-ri buruz, poema epiko bezala, pozik entzungo nuke. Hegel aspaldi pasatu zen mundutik, gure artean lorratz aundirik utzi ez badu ere. Lotu gaitezen dialektikara, argirik bada agirian jartzeko. Zure, nere ta gure argitasunerako.

Bukatzeko, Mitxelena-k atarikoan jartzen dituan itz batzuek artzen ditut neretzat: "Ez naiz, ordea, gaizki esaka ari. Gure aldikoa izan balitz, gure gisako gizona eta idazlea izango gendukean, ohea naiz kaxkarragoa, baiña antzekoa eta kidea" Orrekin geiena esanda dut.

Z A B A L D U

KULTURAREN URTEA dugu aurtengoa.

JAKIN Euskal-Herriaren kultura gizontzen ari da joan daneko HAMAR urte hontan. Halere, JAKIN ez da behar haiña ezagutua euskaldunon artean.

Orain bost urte, 14-garren alean, gure aurrekoek zioten bera dizuegu gaur ere:

«Erakus zaiozute JAKIN lagun bati, irabaz zaiozute euskerari irakurle berri bat. Ekin, ba: ia harpidedun bakoitzak beste berri bat irabazten duen!» Hori bai litzakela KULTURA URTE hau ospatzeko era polita.

burgeskeriari agur?

Aideak bezela inguratzen gaitu burgeskeriak.

Giza-arimaren saldarra eta handitsutzat salatzen dute batzuek. Eta uste dute handitsua irazten eta lehertzen doala egunean. Alegia: burgeskariaren heriotza urbil dagoala.

Bai? Ez dakit.

Analisi hontan, Gabriel Marcel'en berextea onarturik, ez dut aztertuko burgesia "problema" bezela (hots, ikusle baten antzo), baizik-eta "misterio" bezela (hau da: norberari urbildik ikutzen dion arazo baten gain gogoeta). Ba du garrantzia berexsteak, nik uste. Burgeskoiak gerala aitortzea baita.

Hori dala-ta, errez uler ditekena da zergatik ez ditudan burgesiaren politiku ta sozial antolaketak eta egiturak ikusiko. Uste baitut esturktoretan gertatzen dala, lehenbizi gizonarengan jazo dalako. Horregatik aztertu gura nuke, gehienik, burgeskeriaren "izpiritua". Burgesia, sakonean, ikus-molde osoa da, pentsaera, biziera; arima giroa, hitz batez.

Azken urte hoetan asko idatzi da burgeskeriaren aurka. Ta anitz idazlan saiatu dira probatzen, sugeak larru usteldua harri-kontra baztertzen duan bezela, nahi duala (edo beharko lukela) utzi gaurko munduak ere burgesiaren azterri kirastua. Ba liteke.

Lan nekeza, ordea. Ta hain latza, burgesi-humanismuak betiko tentazio hari indar gehiago eman baitio. Ara: tentazio zaharra izan da izpiritu ta materiaren arteko alkar hartzea gehiegi berextea, bata edo bestearen kaltez beti. Izpiritua aupatzearren, materia, gorputza, arbuiatu oi zan maizenik, lehen. Izpirituak pagatu behar izan du, ordea, oraingoan. Izan ere, izpiritu ta ekaiaren arteko ezkontza austurik —pentsamentua ta egintzarena ere honegatixek—, Izpiritua ukatzeraiño allegatu da burgesi-humanismua. Teorian ezpada ere, behintzat jokabidean, bizieran, bai, materialismoa hanpatuaz.

Ezetz? Bai. Ez dago ukatzerik: materia geratu da errege garai batean, eta oraindik ere dirau zenbait lekutan. Honen gordiñik ezpada ere, kutsu horixe darie hainbeste Hitza zanpatze ta egiña goraltzeeri. Produzioak du ardura: pentsatzen zuten. Ta, hortara, baztertu ta ukatu egin zuten izpiritua. Bestalde, gizonaren alde jokutzen zebiltzatela ere egia da. Baiña, Mounier'ek dionez, Materia hori gizonaren onerako ta gizakumearen errextasun ta lasaitasunen alde labratzen ari zalarik, Gizatasuna berexeten zijoan orduntxe bertan, izpiritua ukatzeagatik. Eta honek ez du harritzekorik. Ekaiak behera baidu joera. Ta, dagokionez, Materiaren pasibukeriak izatez (ta ezinbestean) izpirituaren indar-kreatzailleak ahuldu egiten baiditu. Honegatik hain zuzen, gertatu zan gertatu zana, alegia, giza-talde handi bat, materia hortan lanegiñaz, hortantxe geratu zala esku-lanari kateatua. Ta hori, geroago ta makurrago. Zergatik, langilleak bere lanean eskuetatik at parterik ez hartzean, indar kreatzailleak gero ta antzugo bihurtzen zitzaizkion.

Presondegi ederra bilakatu zitzaion materia gizonaren diñatasunari! Ta lantegiak bihotzaren eta pentsamentuaren kanposantu mortuak (santutik gu-txi bazuten ere).

Erdiko-Aroan ez zitekean Izpiritu ta Ekaiaren artean holako austurarik gerta. Erdiko-Aroan, Izpiritua Gizakundean finkatua nola zegoan, aisa egiten zuten, alkarrekin lanegiteko, izpirituak eta materiak bat (bategi behin baiño gehiagotan). Kanpantorre bat erriaren erakusle zitzaion bidazti ibiltariari. Otoitza ta langintza eskutik zijoazten.

Ohar bat egingo dut, ez nadin gaizki ulertua izan. Ez da zailla arkitzeaz Erdiko-Aroko tasunei (egiazkoak, eta asmatutakoak) estuegi atxikiz, Renazimentutik onako kondaira Satanas'en erreinuaren garaitzape-natzat jotzen duten katolikoak. Aitzitik, beren burua aurreratutzat daukaten artean, askok Erdiko-Aroa ezabatu nahi lukete, ta uste dute positibotasun guziak XVI'gn. gizalditik egunera eman direla.

Ez bata, ta ez bestea. Zozokeria litzake, dudarik ez, Erdiko-Arora itzul gindezela desiratzea. Ba dakigu gaizki dagoala inpernuko sutan ez-baiño kartzelan pekatur ordaindu beharra. Baiño gure garaia ere ez da xerutarra ta terziopelozkoa. Ba dakigu, aldiz, Hitler'en hilikintza nardagarria gure mendeko gertaera dala.

Maritain'ek dio garia ta iraka batera datoztela Kondairan ere. Hau da: onak eta txarrak, alkarrekin, egiten dutela Historia. Onak aurreratu egin badu, txarrak ere beste horrenbeste egin duala. XVIII'gn. gizaldiak ames egin zuan progreso beharrezko ta zuzenaren aurkakoa da aburu hau. Ta Kondairaren Filosofirako lege bilakatu ditekene omen da, gaiñera. Eta Maritain'ek erakusten du, gaur sentitzen ditugula iñoiz baiño barrutiago, giza-eskubideak, erriarekiko gobernu, tabar. Baiña ez dezagula ahortzi ere egunean egin direla iñoizkorik gudarik gehien; nazismua, fazismua ta komunismua, gure egunekoak dirala. Ta Beltsen ta Dachau, hor daudela gure lotsagai. Ta Viet-Nam?

* * *

E. Mounier'ek aditzera ematen duanez, jadanik, bi kasta jaio dira: langille-kasta, eta burgesi-kasta.

Burgesia eratu da, ba.

Eta burgesiaren ardurapean (hobe, morrontzan) geratu dira Hitza, "Moral", Arrazoa, Izpiritua eta Idatzia.

Huts eta putz gertatu zirala bide hok burgestarren eskuetan oharrazten du Mounier'ek; aterleku, ta arrisku gabeko olinpo goitia. Baietz!

Egia da ere, kafetegi ta saloietako berritxukeri kirastuetan ustelarazi zutela bai Hitza bai ta Izpiritua, beren ahaltsun guziak txautu zituztelarik.

Errealitate gutxiko literatura egin zuten. Urrun ziran herritik. Ta noski, etzuten urbildu nahi ere, errealitate gordiñak, ideiak, iritziak (eta biziera bera ere nunbait), aldatzera behartuko zezaizkien beldur ziran-eta. Beti izan da aisa bizi danaren karakteristika madarikatua bere egoera gerizatzekotan egiari uko egitea. Egia ez du ez janik ez dirurik ematen, pentsa bide dute. Egia bost axol.

Hargatik, bateko, herria nazkaturik, eta besteko, "goikoak" hitz-jokuetan eta ezdeuskerietan murgildurik (eta galdurik anitzetan), lurra jo zuan kulturak. Oba ez! Eta berariz ala oharkabez, tensio bortxatua erne zan

kasta bien artean. Zituzten har-eman apurrak hourak ere apurtu ziran oraingoan. Batabestearen kontrako ta ukatzaille zeuden.

Harritzekoa al da, honela, jende-multzo handi bat ikurrin materialista antzuari eranstea? Ez dute-ta siñesten ez Hitzarengan, ez Izpirituarengan, ez goikoen Moralean. Eta egitan, siñeskoia izan behar du batek, hainbeste denboran burgesen eskuetan ikusita, federik izateko.

Horregatik dio Mounier'ek, arrazoiak, uste dut, materialismoa ez dala askotan, burges-mundu horren aurkako gehiegia baiño. Alerkunde, konbenzimentu baiño gehiago. Burgeskeriaren ukaera bat; ez besterik.

* * *

Ez zitekean holako ondorioetan pentsa burgesiaren jaiotza egunean. Renazimentuko seme da, eta reakzio bezela sortu zan. Gizarte astun eta izpiritu ertsi ta estu batek sorrarazi zuan "heroe" hura, mentura-zale ezaguna. "Escaramouche" datorkit burura momentu hontan.

Aitor dezagun: pentsaera positiboak ikuturik gaudenon artean, nork ez du atsegin izan "Basoetako Robinson"-en edo "Escaramouche"-ren gorabeherak, salbideak, gertakariak eta arriskuak ikusiarekin?

Beste mundu bat ageri zaigu hor, askeagoa, aiseagoa edo. Aski da Escaramouche bera bakar Erregiñaren zaldun ta zintzoei aurka egiteko. Eta gizon eta errealdadeak oro gainditzeko, hau ere beharrezko karakteristika baita. Ez dala beste mundu bat?

Baiña denborarekin, zibilizazioak langak jarri dizkio biderdian menturazale horri. Nahi-ta-nahi-ezko gizartearen aurrerapen hortan, estrukturatu egin zuan zibilizazioak hala gizartea nola gizonaren biritza. Galdu egingo ote zan betirako "heroe" ta menturazaleen izpiritu hura? Ez. Enpresako buruzagiak jasotzen du, naiz motelxeago egin. Eta liberalismuaren azken zintzo hok, arbasoen loriaz irrikiturik iduriz, jo dute noizbait abenturaetara ekonomian. Bai, eta Renazimentuko handitasuna bereganatu zutela uste ere, apika, heuren konkistak mundu zabalera hedatu zituztenean.

Zabalkunde honek ekarri zuan bere ondorena: dirua. Erreztasunak dakarzkian indar eragille hori. Irabaziak eta lanik-eza ere, heina batean, ez dira diruaren lorkizunak baiño. Ezin uka: erreztasunaren eta lanik-ezaren inertziak beherapen eta jausbide nahitaezkoa daramate urrengo jenerazioetara. Bizimodua biguinik eta leun arkitzean, gizakumea ahuldu eta moteldu (ta azkenik usteldu, betiere ustelkorra izaki) egitea, kondairaren ikaskizuna da, eta halabeharra, ez dalarik egiten barne-indarren eta

ahalkizunen usu, geroago azalduko dudanez. Arbasoen arriskuen griñci, konfort epela dagokie orain. Adibidera itzuliaz: lehen deporte ta jolas egitea zana, gaur telebistatik, lasaiki, ikustea litzake.

Jausbide hontan, erreztasunak, erosotasunak, zanpatzeraiño azpiratu du, bai, gizona, arima ta guzi. Gutxi du maite Modernu-Aroko aberatsak arriskua. Nahiz ekonomikoa, nahiz politikoa, gutxiago're pertsonala.

Kontrara, segurantzian ta ahalaren ta aipamenaren goseti amorrata da. Asetzeko, haren nahikundeen arabera moldatu ta antolatutako gizarte honek —nola ez!— emango dio, bai, bere kutiziak eskatu-ala. Noski! Ta noizbait enbarazorik sor balekio bere lor-bidean, urrearekin barreiatuko luke laister... "Jaun ahaltsua baita dirua", Quevedo'ren esakuntzan. Ahaltsua eta itsua.

Eta indar-ekutu ta itsu hau sartu da, satorraren lana egiñaz, gizarte organismuaren barrenera, liberalismuaren tajutu gabeko askatasunari eskerrak. Bizitza ekonomikoa menderatu zuan, lehenik. Gizarte-bizitza urrango, eta gero norbere bizitza, ta kultura, ta erlijioa ere, errextasunaren milla jantziz diximulaturik, azpiratu ditu.

Hitz batez: aspikoz gora, salerosketaren dantzan, ipiñi du diruak gizartea. Hala da. Urrearekin gizona eros edo sal liteke, zezen bat plazarako saldu edo erosten dan moduan.

Asmoz egin dut zezenarekin konparazioa. Ta esango dut zergatik: Diruak, nola itsua dan berez, ez du gizona baitan izpiriturik ezagutzen. Mundutar irabazkina zaio diruari kriterio. Alde hontatik (esan dut), pizti baten eta gizon baten artean ezin dezake diferentziarik ikus, expada gizona manejatzeko zaillagoa dala. Zailtasun berhauxe ere deusezteko, ahalegintzen da, askotan, gizonaren burua pentsamentuz uztutzen, gero deportez, aragiz edo ahuleriaz bete ahal dezaion. (Kontu egin dezagun "buru-garbiketa" moduak, uste baiño ugariagoak dirala).

Beste askotan, horrenbesterañi ez iritxirik ere, diruak karreatu du gizonen arteko bereztea. Nola? Gizarteko hartuemanak komertzializatuaz. Ta hau ez ekonomian bakarrik, ez. Lehentxo esan dugu bizimodu sozialan eta bizitza pribatuan bertan ere zinki sentitu dirala haren ondorioak.

Komertzializatzeko honek, gaiñera, ederki preparatu dio terrenoa individualismoari. Izan ere, gizonak alkar ez ezagutzera eraman zuan eskutik. Ta sarri burgesak gizona haintzat ere ez artzera, ulerterreza danez.

Maxence Van Der Meerseh'i entzun genezaiok bere "Munduaren pe-
katurik handiena"-n. Haren Denise mintzo da:

"...Exeri nintzan teatroko malla baten, Auber kale inguruan. Eta denbora asko igaro nuan hantxe, taxi ta kotxeak nere aurrean geratzen ikusten nituala, damak larru zuriko abrigoekin eta jaunak frak beltze-
kin jantzirik ikusten nituala. Eta bultza egiten ninduten. Batek ere ez zuan begirik beratu nirengana, nere zoritxarrera. Eta orduan ez zidan horrek harritzen. Iruditzen zidalako izaki haiek ez zirela nere aragi eme ta mintsu harekin mamituak..."

Aski da hontaz.

* * *

Ba dakit, azaletik ikus dezakenarentzako, erabat desberdiña dala Alfred Ancel'en eta pentsatzaille askoren iritzia. Baiña ez da itxurak ematen duan lain. Burgesia hitzarekin harek gizarteko gidaritzza daraman klase zuzentzaillea, hortarako dagozkion tasun guziekin orniturik, ente-
nittu nahi du.

Ta hemen ikusi dugun burgesiaren pentsaera aberats berriarena li-
tzake, bere gardiz.

Bere hitzak dira ere "aburgesatzea dala burgesiaren heriotza".

* * *

Burgeszar honek ez du, bestalde, giza-balio handirik. Zer dala-ta konprenitzea erraza da oso, ta gorago aipatu dugu. Alegia, gizakume orok izan behar duan izatasunarekiko gudutik aldendu egin dalako eragozpen eta kon-
tra-indarrak alik gehien deuseztean, eta, batez ere, izpirituko indar sor-
tzaille haiek kizkurtarazi dizkiolako erosotasunaren epelak. Erreztasu-
nak nagitu egin dio pentsamena ta ollotu nahimena. Gizartearen aurre-
rapenerako gizon eskasa da holakoa.

Eleizak ere gutxi espero lezake honelako gizon batengandik. Erlijioak ez du askorik axollatuko. Maitasun gabeko kristaua, errextasunak, berriz diot, ittoarazi bide dizkio kezak eta axanpak oro.

Erlijioa ta biziera, izpiritua ta materia: ezkongaitzak bere pentsaeran eta jo-
kabidean.

* * *

Asko ematen dan aitaturiko burgeskeri hau?

Asko, dudarik ez. Ondotxo dakite hau soziedadea hobeagotu nahian lanean dabiltzan hainbeste kezkatik, jendearen burgeskerian baidute estakururik handiena. Edo-ta hobe, galde iozu zere buruari, ta azter arima, ea haren aztarnarik ba dagokeanentz.

Gutxi da burgeskeriatik salbatzen danik, gizarte-egoitzan ezpada, joka-bidean. Eta egiñetan ez datekenean, bihotzean, gogoan, nahian edo xedean.

Eta funtsean, ez dago diferentzirik segurantziz aserik dagon burgestzarraren izpirituaren eta burges-txikiaren izpirituaren artean. Harek lortu duana, atxeman nahi besteak. Ta nola bestearena gutiziatzen duan, helburu bakarra jarrio dio burges-txiki honek bere bizimoduari: dana dalaren gaiñetik hara irixtea. Bide bat hartu du, hortarako: bere ekonomia. Gizajo hau, heltzearren, prestu dago saltzeko, onak, alegriantza, poza, arraitasuna, famili-bizitza, zernahi.

Graduko diferentzia da, beraz, bien artekoa.

Hargatik aipatu dut hastean, burgesia gizarteko mailla eta klase bat baiño gehiago izpiritu bat dala, guztiok daramakiguna, eta, gauzen gaiñetik dagoanez, klase batera apartatu ezin ditekena. Sakabanatua dago. Horregaitixek, ez da bidezko (ez egiazko) hesiak gahiegikeriz ipintea eda arloak berextea aurre-iritziz. Aberatsari erru osoa erantsiaz, eta langilleari daukantxoa ere erantsiaz. Hori zinema ezagun batzuetan gerta ditekena da, baiña ez errealdadean.

* * *

Galdera bati erantzunaz amaitu genezake, gaurkoz.

Nun datza burgeskeriaren sustrai ustela?

Sartre ta Camus baiño aintziñago mintzo zan Jaspers esistentzialismoaren burgesi-kontrako kutsuaz eta joeraz. Giza-gorputzaren zati baten ordeaz, giza-libertadearen, bere ahaltsunen eta bere nortasunaren eta mugaen berri ba duen gizakia aurkezten baidu esistentzialismoak.

Eta puntu hontan (hots: pertsonagan) esistentzialistak eta pertsonalistak bateratzea ez da ustekabeko zori zozoa izan. Ez, baizik burgesen indibiduoaz ez-baiño pertsona hartzen dutelako biak oiñarrizat.

Jakin egin behar da, hortarako, zer ulertzen duten Mounier eta bere eskolakoak, indibiduoaz eta zer pertsonaz.

Pertsonalisten mintza-moldean, Frederic Copleston'en ustez, garrantzi handikoa da berexte hau. "Indibiduo" hitza esangura txarrean darabilkitez, desira berekoizkerien iturria ta sorburua adierazteko; bere txilberrari xoillik behatzen dio gizabanakoak. Thomas Hobes'en indibiduo zatituaren paretzu jartzen dute. Materialista praktikoa, gizon uskerizalea, multzoaren zati hutsa, ta barne-bizitarik ez duena... hori da indibiduo.

Ta hau da, hain zuzen, burgesiak karreatutako gizona, indibidualismoari, konzienki, eskua luzatuaz. Indibidualismoak, halaber, absolutu egin du gizabanakoa. Eta teori politiku bihurturik, orenen gaiñetik indibiduoaren etekin ta helburu propioak jartzen ditu. Herbert Spencer'en aburua ere antzekoa dala dio Copleston'ek. Alegia: Estaduak ez duala zer egiñik gizonen etekin ta probetxu pribatuei laguntza ematetik kanpo. Gizabanakoari dagokio dana, eta gizartearen, edo estaduaren, eskubideak lotzenago ta hobetoago.

Aldiz, pertsona zer da?

Ez omen dago pertsona erabat zertzerik. Halare, zerbait esan ditezke, zerbait hori asko bada ere.

Pertsona gizaki askea da, naturaleza espiritualaren jabe, nordana eta beretasuna ba duena. Gizarteari idikia. Tabar.

Esango nuke: Indibiduo bakarrizketa izanik, elkarrizketa litzakela pertsona. Indibidualismoaren ukazio ta midizina, beraz.

Baiña, beste zenbakiren baten pertsonalismoari ikutu bat egiteko asmo dut-eta, ez dagokit orain alperrik luzatzea.

unamuno

ALA

james?

"El Diálogo Imposible" izenpuru, artikulua irakurgarri bat eman digu berriki Isidoro Fagoaga'k.

Saiakera labur eta bizi batean, Unamuno eta Jammes alderatzen ditu; eta Endaia'n behin bi idazleak egokiturik ere, bien artean alkarrizketarik izan ez zala erakasten digu; eta ezin izan zitekeala.

Eta ni ere hortan nago.

Jammes'en izkribuak ez ditut Unamuno'renak bezin sakonki ezagutzen. Fagoaga'k egia duela gauza ageria zait halere.

igara

Aspaldian, orain dala hamabost bat urte, irakurri nuen Jammes'en "Los Robinsones Vascos" liburua. Egia esango ahal dut? Bai. Esan egingo dizuet: liburua hasi, eta... ez nuen bukatu. Horra egia: ezin! Bi gazte xeru haiek... hondartza xeru hartara etorriak... euskal izen "garbiak" eta gaiñerakoa frantseseraz... dana hain xerukiro gertatzen... hain xerukiro ibilki... Ene! Nolako garbitaxuna euskaldunona! Nolako xaxi-olerkitasuna gure hondartzetan! Miarritze'ko "Syndicat d'Initiati-

ves" dalakoak azaltzen duen "Chambre d'Amour"aren istorioa eta Jammes'en hori nola ez aldera?

Mistral'en "Mireio" (españeraz eta euskeraz) orduan irakurri nuen ere, edo orduantsu; baiña plegu berekoa izanik ere, ez ninduen hainbestetaraño... gogaitu.

Berdintsu ere Pierre Loti bere kide eta adiskidearen izkribuekin: bizpahiru liburu irakurri ditut osoki, "Ramuntcho", esate baterako, nekez, oso nekez, amorro bizian batzutan, baiña... gainditu egin nuen.

Jammes ez. Hunekin ezintasun guztizkoa. Francis Jammes gogaikarri izan zitzaidan, faltsu, arras pikuan ari, guztiz Euskal Herri'tik urrun (Loti eta Peyré, Trueba eta Zunzunegi, sail ederra dugu!).

Hazparne'ko bere jauregia, eta herrian oraindik ere gelditu dan jauntasun-aztarna, neuk neure begiez ezaguturik, hobeki ulertu dut: Jammes Hazparne'ko jauntxoa zan. Urbil bizi izanik ere, urrun bizi. Euskal Herri'ko geografia maite izanik ere, Euskal Herri'ko jendea nagusiro eta jauntxokiro mespretxatuz. Jammes'entzat gu turismoko bitxikeria giñan.

Nor zan kontrako nere joera sakon horien eragille eta errudun nagusia? Bilbotar famatu bat zalantzarik gabe: Ronda-kalean sortutako gure Unamuno.

Ikasle nintzan garai hartan Bilbo'n, eta, bata bestearen ondoan, Unamuno'ren lanak irakurri ohi nituen. Horrela itsatsi ziran nigan bizkaitar "olerkari filosofo"aren ideiak. Eta horrengatik, gizonaren barne-sukarra eta gogo-zorabioa egiazkoegiak zitzaizkidan, gure herriaren zoria txantxetan, kontrabando-ohitura baten gisa, edo folklore-estakurutan edo sasi-olerkigintzan lardaskatua eta xahutua onartzeko.

Nork uka dezake, ordea, xerukeriarik gabe, bigunkeria guzietatik urruti baiño urrutiago, Unamuno olerkari eta idazle aparta danik?

Fagoaga'k haunditzat hartzen ditu biak, batari mesede eta besterai laido egíñez; Zumalakarregi eta Eraso parean jarriaz gertatuko litzakean bezela.

Unamuno sakona dalako, gizatarra dalako, eta egiazko olerkitasuna senditzen eta sendiarazten dakielako, idazle eta olerkari haundia da. Baiña bizkaitarra, bestelakoa izateaz gain ere, biarnotarra baiño milla aldiz gorago da nere ustez. Zeren-eta Olerkia Egiak egiten baitu; eta ez belaskeriak edo egiarik ezak.

Fagoaga'k ez du hau esaten; baiñan esan egin behar zuen, nere ustez. Idazleak eskubiderik ahal du herritik eta gizonarengandik aldegitoko, eta ametsetan gerizatzeko?

Zer da Olerkia? Zer da idazle bat? Zein da Literaturaren betekizuna? Kakoa hortan da.

Korapillo hori ezin diteke hitz gutxitan aska. Idazle batek bere burua sartu behar ahal du munduan, ala pikuan bizi diteke "Olerkia" eta "Literatura" egiteko?

Erantzuna garbia da nere ustez: Unamuno, ez Jammes.

Olerkia eta arinkeria, Literatura eta xerukeria, idazkintza eta ameskeria, ez dira bat, ez datxezko alkarri, ez dira soin bereko haragi eta hezur.

Jammes, beraz, ongiegi hartu du Fagoaga'k bere artikuluan, bien artean irakurleak prestuki bata ala bestea berdin aukera ahal balezake bezela. Kaskarinkeria eta burgeskeria ezin ditezke olerki-iturritzat eta filosofiatzat har (hedonismoa eta olerkia nahasi gabe bederen).

Jammes idazlanetan ez dago gizatar egarririk, ez dago surik, ez dago arimarik: nik behintzat ez ditut aisa aurkitu. Bere zuhaitzek berek ez dute lurrean sustrairik. Bere euskaldunak ez dira turistentzako jauzkari mordo bat baizik: koloreztatua-go eta hobe! Bere Euskal Herriak, bere Biarno'k, bere Ortheze'k berak, ez dute zaifiik. Bere sorkurek oro ez dute gizatar giharrik. Mundutik at bizi dan haundiki baten amets zonzoak baiño ez dira; edo ez zaizkit neri.

Unamuno'ren izkribuenak ez. Unamuno'ren sorkariak eta giza-kezkak, geureak dira; bere Euskal Herria, gaztetan gerra ondoan ezagutu zuena batez ere, geuk ezagutu duguna da, zoritxarrez, bere bidearekiko itsutua.

Unamuno gure etsai amorratua danean ere (eta gehiegitan dugu etsai, ondikotz!), geurea da, Baroja bezela; eta bere odolak daramazkien berotasuna eta ukoa, gure herri gizajoak eta gizadi osoak pairamendu eta sofrikario ikaragarritan zehar mamitu eta bildu dituen egia latzak baizik ez dira.

Hau dio Fagoaga'k: "el diálogo... entre el poeta bucólico y el pensador existencialista no fue posible". Egia. Baiñan ez zait xuxena edo bidezkoa iruditzen bi idazleak parean jartzea, berriz diot; ez baitira nehundik ere mailla berekoak, Jammes ez baita, ez jokabidez eta ez gizatasunez, Unamuno'ren arikoa.

Unamuno'k ez du gizonaren tragedia bere kaskotik, edo eroaldi batean, "asmatu". "El Cristo de Velázquez" ez da beroaldi bat... Jammes'en mundua, aldiz, axalekoa da, gezurrezkoa da eskierki Euskal Herri'ko ikuskera dan aldetik. Alde huntatik, atzerritar aspertu eta aspergarri baten sasi-Euskal Herria bat baizik ez da.

Unamuno gure etsaia da. Jammes gure "empresario"a.

Kasu, halere. Mutur batetik bestera igarotzea errexa baita.

Etsistentzialisten kontra, "ezker" (?) aldetik batzutan egiten diran maiseoak ez dira oso bidezkoak izaten. Ilya Ehrenbourg'en ustez, esate baterako (P. C.-aren zerbitzari leial beti), etsistentzialisten larrimiña (eta "El Sentimiento Trágico de la Vida"ren hestuasunak, beraz) ez dira burgeskeriaren hondakifiak baizik. Ehrenbourg'ek dionez, "sozialismo"an ez da horrelakorik senditzen: ustelkeria horiek amaitu egin dira...

Eskuiñaren muturrean, aldiz, Robbes Grillet (Robbes Grillet eskuiñean, bai, berak oso aurrerakoitzat bere burua hartu arren). Literatura eta Politika guztiz berezi behar dira. Hau egia, noski, burgeskeria guziena jopu billakatzen da. Hitzek ez badute fisik esan behar, idazleak ez badu ezer esan behar... ixil bedi!

Zaillago da, esate baterako, Sartre'ren jokabideari eustea. Fedea elizkeriarik gabe, ekintza itsukeriarik gabe. Zaillago eta xuxenago hargatixek. Nola joka? Etsai askoren kontra: "toutes les Eglises nous repoussent et nous excommunient". Unamuno'k ere hori zion: "no me clasificuéis".

Idazlearen bidea hori da: zernahi gostarik ere, Egia zerbitzatzea. Eta Egia hortan, gizonaren norarik-ezari eta larrimiñari parte haundi bat dagokio. Funtsean ez dira Sartre eta Unamuno alkargandik hain urrun.

Literatura eta Politika, Egia eta Ekintza: ez dira gauza bera; ez dira aisa ezkontzen. Hau ongi dakite egiazko intelektualek. Ezin ezkontaraztetik, milla katramilla datoz. Beste hainbeste Egia ezin obratzetik eta ezin aurkitzetik beretik ere. Zer predika? Zer agin?

Ipuiei eta sasi-olerkitasunei uko egiteko bertute izan behar da.

Eta hortan, iruditzen zait, Unamuno'ren aurrean kendu behar dugu txapela.

Gauzak ikert ditazke, ala gaine-
tik, ala beheretik.

Badira gauzeri behatzeko bi gu-
ne: gaina eta beherea.

Jakitatea gizonak biltzen du eme-
ki, ximenki, artoski, gauzak ikertuz
gizon moldean, edo beheretik.

Jakitatea gizonak beretzen du ere
gauza guzien geinerat bet-betan ber-
duratuz bere soa, oro hunkitzen di-
tuela, erran ginezake, Jaungoikoa-
ren moldean, edo gaineetik.

Lehen jakitatea dago xehetasunez
betea. Bigarren jakitateak lehenak
xehetasunak xehe bezain, dauzka
bere larritasunak larri. Haren soa

GIZONAREN EZIN GELDIA

Jaungoikoaren aldetik

ez da xehetasunetan edo xendretan
sartzen, bainan, bide handia edo
larria harturik, da bihotzeraino
jausten.

Lehen jakitatetik jalgitzen dira,
ainhitz diren zientziak. Bigarren ja-
kitatetik aldakutzen, orok berdin
deitzen duten filosofia.

Nahi baduzu ezagutu Heleta zo-
ko-mokoetan, ibil zaite oinez etxe-
tik-etxerat. Nahi baduzu ezagutu
Heleta bere ferdail hedaduran, ira-
gan zaite Baigura kaskorat.

Nahi baduzu ezagutu Xubero, zoko-mokoetan, ibil zaite oinez, Mauletik Atarratzerat. Nahi baduzu ezagutu Xubero bere ur dantzari, arbolez estalietaraino, iragan zaite Orhi puntarat. Jakiteko zer den, zabaLEAN-zabal, itsasoa, iragan zaite Jaizkibel bizkarrerat. Ikasteko zer diren Azkoitia, Zumarraga, Vergara, Mondragon, Oñate, Alzazua, Beasain-ko bizitegi multzoak, eman zaite Aitzgorri-ko harroka xutenaren gainean, xutik.

Mailez-mail, lerroz-lerro iragaiten balitz gizon zeruko jauregirak, hel litake Jaungoikoaren alderaino, eta eman lezake munduari, eta bere buruari, Juangoikoaren behakoa.

“Haste-hastean bazen Hitza”, daukigu salhatu Joanes Apostoluak. Gizona bere zirimolan altxa litake Hitzaren ozkarat. “Hitza Jaungoikoa baitan zen, eta Hitza Jaungoikoa zen. Diren guziak harek eginak baitira, eta eginetarik ez baita hura gabe eginik”, gizonak aurkit lezake hola Hitzean, gauza guzien gakoa, gauza guzien hitza.

Batto da Jaungoikoa. Haren batasunak baditu hirur jabe, Aita, Semea, eta Izpiritua, bainan hirur jabeak bat daude, batasunean elgarri koropilatuak, elgarretarik ezin deslotuak.

Jaungoikoak nahi ukan duelarik, amodioaz bortxaturik, bere izeitea kanporat ixuri, ez zion bertze batasun oso bat, bere aitzinean, eman

tente. Jainkoaren heineko Jainko litake, bertze osotasun batekoa.

Jaungoikoak, bere botere guzian, ez dezake bertze Jaungoiko bat sor-araz, paganoek uste ukan duten bezela. Jautsi da mailetik-mailerat, lerrotik-lerrotat, Jaungoikoaren izeitea. Sua barreatzen den bezela, pindar andanaka, Jaungoikoaren izeiteak jauz-arazi ditu izar-iguzkiak, harat-hunat, burrustan, emeitan ziotela izeite bere izeitetik, ehoten aldiz izar iguzkiek ardietsi izeitetik, eremua.

Orobat, Jaungoikoa bizi da geldirik dagon, atzo, egun, biharrik ez duen eternitatean. Jaungoikoak ez zezaken erdi-araz gelditasunean, geldikuntzan, eternitatearen geldian, igitu eta aldatu gabe egon zitakeen mundua. Mundu geldia Jaungoiko litake, eta bi Jaungoikoren buruz-buru emeitea adimenduak asma ez dezakeen zorokeria. Holakoan bat bertzeari emeitea, bat bertzetik jalgitzea. Jaungoikorik ez dela zin egitea.

Mailetik mailerat, lerrotik lerrotat, jautsi da Jaungoikoa, eta eternitate gelditik abiarazi du ezin geldituzko denbora. Ezin geldituzko denbora bere geldi izeite bulharretik, hazten du Jaungoikoak, ezin geldituzko zalapartan atxikitzen du, bere eternitate geldiaeren esneaz bazkatua.

Eremua eta denbora, elgarren haurride dira. Eremuak eta denbo-

rak aita bera dute. Jaungoikoa da heien Aita.

Guti litake eremua, ez balu berekilan denbora. Hila litake eremua, eskas balu denbora. Denborak dio emeiten eremuari bizia. Denborak du egiten eremutik zerbeit bipil. Denborak dio sakatzen eremuari Jaungoikoaren bizitik, bizi xorta.

Eremua dugu Jaungoiko ahalaren lekuko. Denbora zaikigu Jaungoiko biziaren berme. Bizia ahala baino gehiago baita, ahalik haundiena, baitake bizia bizirik daukan ahala, Jaungoikoaren izeitea ageri da guziz denboran.

Eremua, aise, aise baino aiseago ikusia, da Jaungoikoaren lekuko ika-ragarri, demendren arrunta. Denbora da, apal-apala mintzo den Jaungoikoaren berme berezia.

Izarrak daude osoki eremuan eta doi bat denboran. Gizona dago doi-doi-doi bat eremuan: irringarri haren gorputz kukuso hertsia, izarren gorputzari behatu-eta. Bainan gizonak galtzen duena eremuan, irabazten du denboran. Gizona bizi da denboran. Denbora gizonaren behexgarri eta ontasun.

Arboleak, ihiziak, jalgitzen dira eremutik, sartzeko denboran. Ere-mutik urrunago, eta gizonari hur-bilago.

Gauzek izartzeko badituzte lau alderdi; hirur eremuan: luzetasuna, zabaltasuna, barnatasuna; bat denboran: adina.

Hirur alderdi askitito ditazke gauzen negurtzeko. Gizonaren izendatzeko, alderdi baitezpadakoa da, laugarren alderdia, edo denbora.

Evoluzionizmo iduripenak ez du bertzerik jalgitzen. Dio zer guziek, bainan zer guzien artean, gizonak egoitza dutela denboran: atzo, egun, bihar, direla heien urhats eta mugak.

Atzo, egun, bihar, zedarrieri dagola estekaturik gizona, aspaldi du ohartuak zaizkotela. Bainan solastatzen ziren, gizonari orhoit-arazteko hil behar duela; haren hatsa agortuko dela azken hatsean:

Zer dire gure egunak?

Zer da gure bizia?

Itzalaren pare dire:

nun dugu zuburtzia?

San Augustinek deitzen zuen bizia: "Herioaren terrenteria, prolixitas mortis".

Bainan bizia balitz "prolixitas vitae, biziaren bizirat iragaite hurria?"

Evoluzionizmo hitzak erakusterat emeiten daukigu, zerak, bere aldakuntze jauzietan, hastetik buru, berberak gelditzen direla, egun eta bihar, atzori, hara nola abarrak erroari, tinki estekatuak.

Hobeki baino hobekiago erran nahiz zerak, bat dagotzila, egun barne, atzotik biharrerat, Newman kardinaleak evoluzionizme hitzaren horde ibiltzen du "développement", edo haundikuntze, larritze hitza.

Bi hitz horiek guziz bigarrenak laka pean uzten du biziaren zabal-tzea, hanpatzea, aiduru ez zuenaren irabaztea. Ez dabila bizia beti ttapa-ttapa, urhatsa labur, urhatsa berdin, iduri xahar herabea. Badu oldar. Badaki jauzi egiten.

Elgarri uztartu poxikaz moldatu bidean, badira jauziek zabal-zabala utzi zilhoak. Jauzi egiten duenak ez daki xuxen norat helduko den. Transformisme edo bestekuntza ibiltzen dute biziaren buru-bero harroa aipatu nahi luketenek. Diote erroa harri litakeela kausitzen balu, norat noraino hedatuko zaizkion abarrak.

Bi gauza erren behar, bizidunen hala-hala egoitea, eta bizidunen berzelakotzea, eta elheak, bat aldian, banazka, aipatzen. Bizia estekatua egonki atzo egunari, handik baita jalgitzen; bizia musu emeiterat abiatu, bihar egunari, bihar baitu gogoan. Eta gizonak eskas ahala hizt bater aipatzeko atzo eta bihar. Gizonak edo erraiten arbola dela erroan, nahiz hil li-

takeen erroa erro geldituz; edo aipatzen arbola dagola abarrean, abarra, moztu deneko, eihar gogor erortzen delarik. Solasean, ezak baia jaten du, baiak era higatzen. Biziak aldiz, ez eta ba, eskuz-esku emeiten ditu. Ez da bakarrik bizia atzoren haur; bihar-en seme da orobat. Ez bakarrik bihar en haur, baina atzoren seme.

Evoluzionizme edo aldakuntzak badu bere legea: zerak iragaiten dira ekei berdinetik ekei desberdinerat, aldakutzen eta koropilatzen direlarik, aldi oroz.

Biziaren argia ez ditake jasan sobera argi baita, izeitea gatik Jaungoiko-argiaren dirdira histua. Biziaren hitza ez ditake barrea, baita betiereko Hitzaren oiharzun ezeztatua.

Jakiteko, guti edo aski, zer den denbora, zer den evoluzionismo edo aldakuntza, behar litake behatu gaineratik, zerutik, Jaungoikoaren aldetik.

Haste-hastean, alabainan, bazen Hitza.

Gizona denboran

Gizona bizi da denboran. Denbora bizi da gizonean. Denbora gizonaren hazkurria.

Guti ditazke mundu zabalean, Eskualdun jendeak bezenbat dauzkatenak denboraren alderat, ikustate.

Denboraren azken mendeak dagotzi asko argal Euskal-Herriaren gainean. Baina azken mendeak iragan orduko, Eskualdun denbora galtzen

da ilhunbean, Eskualdun haurrari heldu baitzaio, gauaz-gau, haren muga gabeko itsasoaren marruma.

Badaki Eskualdunak denborak duela gizon umetik gizona egiten. Aldakuntzari esker da gizonaren umea gizon bilhakatzen. Bainan aldakuntzak nahi du denbora. Ken denbora, eta kalitua da aldakuntza, zendua gizona.

Sortu deneko zamari ttipia emeitan da xutik amaren ondoan. Zonbeit egun, eta abiatuko da tristi-trosta, neherek erakutsi ez dion lasterreen. Zonbeit aste, ar murtza-murtza amaren errapeari, eta hasiko da laubazkari, haizea akulatzaile. Zamari ttipia osoki dohatsu da, zamari izeitean. Iduri luke oihu egiten duela hesietako arboleri: "Badut zain, badut odol, badut indar, badut behatz. Ez dut denborari zorrik. Bego denbora, jitea xuhur duten gizagaizo eskoilentzat." Zonbeit urte labur eta zamaria jarriko da bere azkar hoberenean.

Bertzelakoa da gizonaren haria. Egunak eta asteak aski zamariarentzat; hilabeteak eta urteak behar gizonarentzat. Amak du luzaz haziko, garbituko, troxatuko, ohakoan ttunkulatuko. Amak du luzaz haziko, garbituko, troxatuko, ohakoan ttunkulatuko. Amak erakutsi dio, xutik egotea, urbatsa urhatsari lotzen. Amak mintzatzen, beztitzen, jaten. Lagunek, lasterka, harrika, horroka, pilotan eta dantzan. Aitak ez nor nahiren aitzinean buru has emeitan.

Amattok eginen du otoizlari, eta aitattok kantari.

Etxea ikas-etxe haurrarentzat lehenik, eta gero ikas-etxea, haurrarentzat etxe. Ikasleak, apezak, herriak, lauzkatuko dituzte burbasoak. Haurrak, haur lan. Bainan gizona ez da haurra: gizonak gizon lan; eta xahar erdi bigatuak, xahar lan.

Hirur adin iragaiten ditu jendeak. Hirur izen hartzen ditu. Diote hirur patar iragaiten dituela: haurtasuna, gordaintasuna, zahartasuna. Aldakuntza hastetik buru, lanean ari da, ixil-ixila. Gelditzen delarik, bizia gelditzen da. Aldakuntza eta bizia, jo eta jo hasiak batean, jotik baratzen dira elgarrekilan.

Eskualdun mintzairak hirur aipu baluzke apailatzeko zor zaitoten bezela, hirur adineri buruz: xu erraiten dio haurrari, xu baita hegal zafla bezain ezti; to erraiten dio, bere haineko lagunari, to horrek baituke elhorrizko makilaren idorra; zu erreiten bera baino zaharragoari eta orobat, bera baino goragoari; zu hitzak baitauka elizako ezkilaren arrabots ozena.

Denboraren denbora-aitzineko animale ikaragarriek zaukaten gorputza bezurrezko kofioean, inguri-inguri, estalia. Iduri zukeen ez zutekela

hirriskuen beldurrik, eta jazko euriaz bezela trufa zitazkeela kalte guziez. Bizkitartean ziren hartarik ez zitazkeen bigi. Aldakuntzeko poxulu zuten bere bezurreria. Ongitik gaizki: ito ditu salbatu behar zuzkeen bezur kofoiak.

Hezur estalgi gabeko, larru mehail biluzi aterbe irringarri daukan gizona, jalgi da ateka txar guzietarik. Begiratu da aldakuntzari esker. Mundua aldatzearekin, harekin batean aldatu da. Munduaren gainean egon da ixtaklok. Ez du aurtikitzerat utzi bere burua. Erreferatu diote zeren desafioari. Harek du, bere abulean, hezi mundua, hura bere ez deusean, jalgi munduaren errege. Hirrisku haundienean, hirriskuari oldartuz, bizia orotan da nagusitu.

Gizon eskualdunak badu zerbeit onik. Ezagutzen du, dituen guziak zor dituela, denbora nasaiari; denbora izan dela, haren ohako bazterrean, emaintzaz estali duen aingerua. Bera izendatzen da Eskualduna, edo solas eskuaraz orhatu gizona. Bera baino gorago ezartzen du denborak ekarri Eskuara. Ukan ontasuna ez du arnegatzen. Ukana, harentzat ohore. Ukana, harentzat, izena.

Ni nago oraiko gizon gebientsuek ez dutenez bihotzaren zolan, ezin aitortuzko arrangura. Nahi lukete agertu nebori zorrik gabe, bere buruaren iturri. Arbuizatzen dute denbora, eta denborarekin herria. Badukete bur-bur-bur ausikika ari, Freud-ek izendatua duen Oedipen koropiloa, aita hil duen semearen min gaixtoa.

Denbora alde batetik gizonaren aita, bainan bertze aldetik, denboraren aita, gizona. Jaungoikoak eman dio gizonari, esku denboraren gainean. Eskualdunak egin ditu Eskual-Herriak. Beraz Eskualdunek ez lukete abantzi behar Eskual-Herria. Eskual-Herria egin behar dute Eskualdunek.

Eskualdunek badakite zer dioten ekarri Eskual-Herriak, eta hortan xuxenean dira. Hortan egia dute jasaile. Bainan abantzten dute berehala, Eskual-Herriak zer lukeen ukan behar heien gogo ahurretik. Hortan ez dira xuxen. Ez dira egian. Gezurra dute hortan jasaile.

Haurra haur dagono, aita egoiten da aita. Hori da leben adineko legea. Haurra gordain bilhakatzarekin, eta aita oraino gordain egonki, aita eta semea, biak aita, biak seme, lagun gisa bizi dira elgarrekilan. Aita xahartzearekin, eta semea gordain izanki, aita bilhakatzen da semearen seme, eta semea aitaren aita.

Lehengo mendetan, xabarrak ziren herriaren bidatzale, herriaren itzain. Xaharrago eta hobeago. Xahartasuna, jakitatearen uzta zuketelako

froga hoberena. Lekengo mendetan denbora hurriki zabilan. Eman zeza-keen gelditu zela. Heldu zen mendeak emeiten zituen urhatsak, itzali mendearen hatzetan. Behar zen begia garbi mende bat bertzetik be-
bexteko.

Mundua harturik dauka, oraiko mendean, aldakuntzaren sukarrak. Mila mendez egin ez duen punpea, egin du mende batez munduak. Diote jakitatea doblatzen dela, oraiko tenorean, hamar urtetarik, hamar urterat. Baditake holako kalda ezagutu zuen munduak harri legunaren adinetik lekora, sartu zelarik burdin horiaren adinean.

Eman lezake gizon eskualduna berantegi sartu zela burdin horiaren adinean. Harrian trebe zagon, gizon eskualduna. Haitz-kora, haitz-lurra deitzen ditu, menderen-menderen ondotik, mozteko eta zilhatzeko tresna. Harretxe deitzen dira asko familia, eder baitzit-zaioten egontegizat har-
rizko etxearen ukeitea.

Burdin langilea aldiz, deitzen dugu Eskual-Herrian, agotza, arrotza, ageri kanpotik jina dela, ez dela herri lurretik jalgi arbola.

Tresnaren mende berrian ederki sartu dira, Gipuzkoa eta Bizkaia, ez gaizki Nabarra eta Alaba, gaizki baino gaizkiago, gibelka, Xubero, Baxe-Nabarre eta Lapurdi. Husten ari dira Xubero, Baxe-Nabarre eta Lapurdi, herabe agertu direlaketz hango etzeko-jaunak. Egon dira alda-
kuntzaren beldur. Aldatzeko, ohidura zabarrak behar dute erhauts erori. Ohidura berriak ez ditazke sor ez badira hiltzen ohidura zabarrak. Herio-
tik jalgitzen da bizia. Ohidura zabarren zilhoratzerat ezin mentura, Es-
kual-Herriko jendea dute hobi zilhoari ondoratu.

Jaungoikoa zintzurra zaurtzen daukigu kantu guziz maitatuak:

Agur eta ohore Eskual-Herriari,
Lapurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari;
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Alabari.
Zazpiak bat, besarka lot beitetz elgarri.

Nagusia, barka bere zilinkeria, gure arbasoeri!

Aldakuntza beharrago, eta aldakuntzarak uzkurrago. Beti hola da. Jauzi egiteko tenorean erhortzen da jauzi egiteko izialdura. Orotan xaba-
rrak oiesten ari dira gazten alderat. Oro hortan barne da Eskual-Herria. Aditzen da oihu okaztagarria: "Gora zabarrak, kuku gazteak". Alegia-eta
zabarren iguzkia ez den gaztea! Behin ere ez dira adinetakoak bere zue-
netan hola bermatu, borxatzerainokoan gazteak ihesari lotzerat. Badela

Oedipen koropiloa! Dena den atera ditake badela Zaturnen koropiloa. Zaturne zen gosedun jainkosa. Bere haurrak zauzkan bazkalki.

Eskual-Herriak ukan ditu saindu miresgarriak: Iñaki Loyolakoa, Frantses Xavierekoa, Mixel Ibarrakoa. Bainan ez du Jaungoikoa maitatzen, ez dituenak gizona, eta gizonen biltzarra, herria, zerbitzatzen.

Eskual-Herri zintzoa, dena esku zarta dago gazten alderat.

Axuri beltza ona da, bainan
Hobeago da xuria.
Dantzan ikasi nahi duten jendeak
Guri bezate begira,

diote gaztek, zaharren jostagarri, zaharren zorion.

Zabar baten deia gazteri buruz hau ditake: Eskualdun gizonaren al-dakuntzak, sor-araz dezala Eskudun Herri-gizon herria!... Larreak behar dira irauli; mendiak arbolaz beztitu; herriak lantegiez, ikastegiez, sendotegiez, jostategiez, bizitegiez, otowitztegiez estali. Abalgegarri, herrikoerri ogia emeiten ez duen herria. Uhar berean mugek behar dute moztu, gogobihotzek herritik herrirat uztartu. Eskual-Herrian sor dadila geroaz axola eta atsegin dukeen putikoa, hogoigarren mendeak etsiturik igurikatzen duen, hogoigarren mendeko gizona.

denboraren erretorikak

Gauza guziak ala garbi, ala zikin dezazke gizonak. Gauza guziak bezela izan da gizonaren zikinertiaz zikindua denbora. Hirur saki bildu ditu denborak. Eri duga denbora.

Denborak, bere harat-hunatetan, errebelatzen du gizonaren gogoia. Akitua izeitea gatik bere lasterrean, gizonak ateratu du denborarik ez dela, eta gauzak geldidagotzila, haren soak esker eskuin harro aiduru. Iduri luke holako gogolariak, beihelako ihiztaria: Jaun ihiztaria, jalgi zen, ametsetan, erbi-keta, zanpa-zanpa, bere oineko kaskailekin. Erbia ez zen igitu. Hartu zuen ihiztariak bi beharrietarik, eskaintzeko Etxeko-andereari, bazkariaren apaintgailu. Erho eman lezake holako ihiztariak. Bizkitartean hortaratzen du gizona, ez gogo eskasak, bainan gogo

beteak. Ezin jasainak hartzen du gogo ernearen gogo. Ez de-
zake onhart trabarik jakitatearen bidean. Suntsitzen ditu gogoaz,
gogoaren poxuluak. Nahasten dute denboraren itzuli-mitzuliek.
Jaliko du denborarik ez dela; denbora dela gogo gabekoen us-
teria lilluragarri zoroa.

“Gogoak eta gogostatuak, biek bat dute egiten”, zion bortz
ehun urte Jesus Jauna sortu aintzin, Grezia Eleako Parmenidek.
Biek bat egiteko zion izeitea zagola hala hala, geldi geldia, bilin-
tzi-balantzian eman gabe edo ez izeitetik izeiterat, edo izeitetik
ez izeiterat.

Fikziztek gauza bere derasate ez filozofiaren solasean, bai-
nan zientzen hizkuntzan. Diote fikziztek geldia legea aurkitua
duela heien gogoak gauzetan, beren gogoak duelarik gauzeri sa-
katua. Ezen ez dute bere gogo eman gauzen zerbitzari, gauzak
dituzte ezarri bere gogoaren zerbitzuko. Mintzo dira ez gauze-
taz, bainan bere gogoaren xedeaz.

Ez ditugu guk ere eskas, irriz hantu kasko haundikoak.
Dio: Baduzue sinheste Europan? Zabalkitzue mendeak? Ez da
nihun Europan ez hatz ez behatz ageri.

Ez dira ohartzen haundi beharrean, izanak eta izaitekoak
ez dutela aita bera. Bizkitartean, ukan dezakete ama bera: al-
dakuntza.

Denboraren bigarren eritasuna ezagutua da ere aspaldian:

Parmenide mintzo zelarik Elean, Heraklite erakasle zuten
Efezan. “Oro xurrupitatzen dira, eta deusik ez da gelditzen”,
zion bere ateraldi etsian. “Bidea badoha goiti, eta badoha beheiti.
Ibaia burrustari: ez ditake bietan mainha, ibai berean.”

Nigarra begian bizi zen Heraklite. “Dena nigar Heraklite” ze-
rasaten Efezetiarrek. Denboraren mementoak pirka-pirka, be-
hexten badira, nihundik heldu ez den nehorat ez dabilan den-
borak osoki funts-gabea eman lezake.

Baditu jarrikitzaleak Heraklitek.

Herakliten hitzak derabiltzate ahoan oraiko “existentialis-
tes” edo izaitealiztek. Erran beretan daude.

Bizia iduri zaiote dela bururik ez buztanik ez duen zer
okiloa. Begitartea daukate ilhun, mintzoa zorrotz, hats-behera
luze. Bainan begitartea ilhun, mintzoa zorrotz, hats-behera luze
jarri orduko, begitartea xuhailtzen zaiote, mintzoa goxatzen,

hats-behera jabaltzen. Ohartu dira denbora funts-gabearen erdian, dagotzila xut-xuta funts jabe. "Oro funts gabe dira, beraz funts jabe naiz" dezakete oihu egin.

Bere jabe egoitea, bere bertasunaz bere bermolderat jokatzea, hori zaiote gizontasunaren frogara. Gizontasunarena, edo hobeki jainkotasunarena, Jaungoikoa egoitea gatik bere izeiteaz osoki jabe.

"Egiten dut nahi dutana, nahi dutana, dut egiten", dio Jean Paul Sartre-ek. Albert Camus-ren bihotzeko pipia, Sizife, Greziako zigantea. Harroka iragaiten du mendi kaskoraino. Pirripititzen da harroka, mendi zolarat. Eta hasten da berriz eta berriz Sizife euriatzat, igurkiaz errea. "Iduripendu behar da Sizife dohatsu".

Albert Camus-ren liburua irakurtu dutalako, gerlako presoner gisa, Alemaniako Stalag batean, betikotz goihendu nute elhesturia farzuntziek. Badakit zen hazta duten.

Aipatu bi eritasunak denborari lotuak daude Jesus-Jauna sort-aintzinetik. Hirugarrena lotu zaio Jesus Jauna sort-ondotik. Behar zuen denboraren ilhunbean Hitzaren argiak egin argi, jakiteko zerbeit miresgarri zitakeela denbora, eta balio zukeela darion ontasunen bihurtzea, zerutik lurrerat, Jaungoikotik gizonerat.

Kapitalizmoak, eta komunizmoak badakite denboraren berriri. Zamatzen dituzte denborak ekarri ontasunak, baina gizona adimenduan, gizona altxatzen dutela lurreko zeruan, zerua izeitea gatik, heientzat lurra.

Kapitalismoa dago leporaino sal-erospenetan sartua. Aski zitzaio dirua, baitu. Komunizmoak nahi luke dirua berdin. Ez baitu tole, emeitan da arrazoin eta arrazoina, ainhitz arrazoin behar baitira gutzizatu diruaren ordaintzeko.

Jaungoikoak hartua, omen, gizonak galdua. Jaungoikoari emana, omen, gizonari ebatsia. Erranak erran, zer ez du jasainaraziko azkarrenak ahulenari, ez balinbadu heinean begiratzeko, Jaungoikoaren larderia? "Ez baginu Jaungoikoaren beldurra, gu nork atxik", dio Eskualdunak, bere bortitzeriaz izitua. Nehorek ez ditu marrokerietarik atxiki komunixt nagusiak. Azpiratu dituzte ahulenak, zangopilatu. Oro haizu heien alderat: ez zautkaten alabainan zerutiar, baina lurtiar, ihizi begi erne, tresna mintzodun, hots ez gizonki, baina zerki.

Laidoen iretsarazteko, ez baitake gizonari sobera apal-araz burua, sakatu diote, hanbat jasain harek gehiago, eta hanbat gutiago ibiliren dutela haren ondokoek. Geroa, maltzuraren leloa. Alegia eta orok ez duten bere zama karreatu behar. Eskualdunak bazoatzin beihela Ameriketarat, eta han gauak egun eginenez, akituak, higuak, itzultzen ziren Eskual-Herrirat, nun ohetik ezin jalgi, egunetik egiten baitzituzten gauak. Flokañoa lepoan, muztaxattoa sudur pean, orenak higitzen zituzten zubi bazterrean, ureat thu, ikusteko thua polliki ibiltzen inguri-inguri. Elhea jalgi eta thu. Thu, eta elhea jalgi. Holakoa ditake komuniztek gutirziatu geroa.

Denbora dugu eri. Denboraren eritasunaz gira hobendun. Onhartzeko orde denborak ekartzen duela aldakuntza, batzuek denboraren aldakuntza ukatu dute eta bertzeak hartaz dira baliatu. Iduri zitzaioten Jainko zirela, eta denboraren nagusi. Bat urgulutan zen bere adimenduaz. Bertzea urgulutan bere bere, berebergoaz. Berzea bere nahikundeaz. Hanbat gaixto denbora baitute trufatu. Denbora ez da ahanzkor, ez eta ere berantkor. Gezurrerat eroriko da, adimenduaz goretsi dena; sarean artuko da, berebergoaz hantua dena; opor eginen du nahikundeaz dagona harodun.

Betierako Jaungoikoaren bizia aipatu-eta jalgi behar litake: Haste-hastean bazen Hitza. Bainan gizonaren bizi labur, bekatuaz funditua deitzean, aitortu behar: Haste-hastean bazen Apaltasuna. Gizonak diolarik: Haste-hastean bazen Apaltasuna, Jaungoikoak itzultzen dio: Haste-hastean bazen Hitza.

Denbora erakasle

Denbora aldatzen den bezela, gizonak behar du, egunarekin, urtearekin, mendearekin higitu eta aldatu. Aldakuntza da haren eginbidea; Eginbide dorpea.

Aldatu behar luke lurraren beztia, agerian emeteko, denboran, Jaungoikoaren dohain eternitatean mugastatua.

Munduaren aldatzean, bere burua behar luke berritu eta aldatu, gizona egin baitu Jainkoak munduko eskerren bihurtzeko eta mundua gizon eskerren beretzeko.

Aldakuntzari ezetz ihardestea da, Jaungoikoa, aldakuntzaren egileari, ezetz bihurtzea, Jaungoikoaren neurriko bere buruaren kausitza.

Nola ditake gizona Jaungoikoaren tokirat hupa, denborak daiolarik, bere aztaparretan badu ekarri, laster duela bere aztaparretan eremanen?

Erhotzen du denborak gizona, eskas duelakotz behar lukeen bihotza aldakuntzari baietzen itzultzeko.

Guti dira oraiko aldakuntzak. Jinen zaikigu aldakuntzaren aldakuntza: azken oreneko aldakuntza.

Hil egun bezperan, hirur aldiz erori zen Jesus Jauna Olibetako baratzean ezin onhartuz herioaren aldatza lotzarria.

Sartzen da zerurat, mailtako Olibetako mendixka.
Herioa eta iguzkia ez ditazke beha, bekoz-beko.

*Dezagun kanta gogotik
Gaiten guziak bozkaria
Gure salbatzea gatik
Jesus, eman duzu bizia.*

Jesusek hitzeman daukigu gure ondoan izanen dela lurretik zerura heltzeko arima eta gorputza behexiko dituen bertzelakotzean.

Ez da harritzeko garratz baitzaikigu aldakuntza. Bururatzen da atseginean; hasten atsegabean. Ez ginuke has-teko bihotzik, Jesus Jaunak ez baginauku igorri esperantza. Esperantza da atsegabearen eta atseginaren lotzarria. Esperantzak emeiten daukigu atsegabean, atseginaren jasta; atsegabean, atseginerat abiatzeko lehia; aldakuntzan, aldakuntzari, gogo onez jarraikitzeo indarra.

GORROTOA LEGE

Etxaideko Yon'ek azkena argitaratu duan liburu eder eta yoria onela deritza: «Gorrotoa Lege». Izen sarkorra benetan, eta izana barrenkorragoa oraindik.

Lan sakon eta bikain au astiro-astiro irakurri ondoren ozenki esan dezakegu Etxaide idazle goitarrak ondo baiño obeto irabazi duala «Txomin Agirre'ren Novela Saria». Ats aundiko liburua egin bait digu; azal eta mamiz aberatsa, bizi ta txairo idatzia, euskera oparoan, zailtasunik gabe, eta novelistikari buruz ederki tajutu ta borobildua. Zenbat orduko lana ez ote du egilleak artu «Gorrotoa Lege» bururatzeko?... Ortan dabilenak daki. Gogoeta luzetan jardun ta gero ainbeste paper arakatu, Historia zaharreko agiriak irakurri, gaiez ondo ta zuzen jabetzeko. Ez da noski egun batzuetako lanbidea, ez!: illabete asko ta urteetako baizik.

Etxaide bezelako langille purrukatu ta burutsua bear da onelako eleberri giartsu ta jantzia agertu arazteko. Gertakariak eta gizonak zeatz ikusiak daude. Eta antziñako kondairaren illunpetatik Etxaide'k argitasun betea ateratzen digu. Egiteko gaitza gure novelagilleak, errez, argi ta garbi azaltzen diguna. Ganbotar eta oñaztarren burruka negargarriak, begien aurrean, bertatik bertara ikusten ditugu. Zer nolako erakusbide baliotsua irakurle guzientzat.

Etxaide'k errotik ezagutzen du euskera, esaera zahar ta zoko-moko danak, ta gero ta obeto idazten ari zaigu. Nobelagille bezela, berriz, eta batik bat Historia gaietan, oso jantzi ta gallena.

Campion argidotarra maisutzat artua duta onelako irakasletik ikaslea ezin txarra atera. Euskaldunen Walter Scott deitu genezaioke ta *Gorrotoa Lege* eleberriari «Ivanhoe'n tankera ematen diot».

Egia esateko ez ditut ea irakurtzen orain erderaz argitaratzen diran novelak baiñan *Gorrotoa Lege* nik ezagutzen ditudan asko baiño gorago dago... Gure arteko musin batzuek ez uste arren. Eta erderaz itzulita ez luke ezer galduko ta Literatura maillan onenak aiñkoa da.

Onek esan nai du irakurria izatea merezi duala ta euskaltzaleen liburutegietan toki berezi bat zor zaiola.

Beraz, badakizute nun dagon salgai irakurgai eder bat. Ar bitza Etxaide'k gure adiskide-zorionik miñenak. Egilleari omen egiteko erarik bidezkoena bere liburua erosi, irakurri ta zabaltzea dezute.